



Zergak

65. zk.
2023-1

ISSN: 2253-7805

Aurkibidea

ARTIKULUAK ETA KOLABORAZIOAK	3
Ekonomia Itunaren etengabeko eguneratze dinamikoa: 2023ko finantza doikuntzak	4
<i>Edriga Aranburu Agirre</i> <i>Finantza eta Tributu Zuzenbidean doktorea</i> <i>Deusto Business School-Deustuko Unibertsitatea</i>	
El ajuste bilateral a efectos de precios de transferencia en el ámbito foral	16
<i>Alejandra Iturre Salinas</i> <i>Bizkaiko Foru Aldundiko Finantza ikuskatzailea</i>	
Políticas de igualdad e IRPF en la CAPV: especial análisis desde la perspectiva de Bizkaia	32
<i>Izaro Iturbe Azkoaga</i> <i>Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua (UPV-EHU), eta Aholkularitza Fiskaleko Masterra (Bilboko Merkataritza Ganbera)</i>	
Fiscalidad en la UE (enero-junio 2023)	56
<i>Luis Elizondo Lopetegi</i> <i>EBrako Euskadiko Ordezkaritza</i>	
ELKARRIZKETA	90
ZERGAK aldizkariaren hogeita hamargarren urteurreneko formatu berriaren aurkezpena, Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko sailburuordearen eskutik	91
<i>Itziar Agirre Berriotxo</i> <i>Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko sailburuordea</i>	
ZERGA KONTSULTAK	95
EZKOren kontsulta lotesleak	96
Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen Kontsultak	108
EKONOMIA ITUNAREN ARBITRAJE BATZORDEAREN EBAZPENAK	146
67/2022 - 176/2022 eta 1/2023 - 66/2023 ebazpenak	147
FORU ALDUNDIEN DIRU-BILKETA	170
Tributu itunduen bidezko 2022ko diru-bilketaren txostena	171
Tributu itunduen bidezko diru-bilketaren estatistika eguneratua	181

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

182

Zerga-arauak gaur egun	183
Zergei buruzko zenbait argitalpenetatik ateratako iritzi-artikuluak eta administrazio-doktrina	183
Iruzur Fiskalaren Kontrako Borrokarako Batzordea	183
2023. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren Kontrako Borrokarako Plan Bateratua	183
2022. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) iruzur fiskalari buruzko urteko txosten integratua	184
Zerga-hezkuntza programa	184
TicketBAL	184
Ekonomia Itunaren Zabalkundea	184
Ekonomia Ituna Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren web orrialdean .	184
Ad Concordiam	185
Itun Ekonomikoaren eta Foru Organuen Ikerketarako Agiritegia (ITUNA)	185
Aipamena: <i>El Concierto Económico Vasco: una visión personal</i> . (Pedro Luis Uriarte) . . .	185
Aipamena: <i>Ekonomia Itunaren bilakaera bere lege-testuen bidez</i> . (Javier Armentia) . . .	185
Aipamena: <i>Reglamentación y tutela financiera de las haciendas locales vascas: entre la Constitución foral y el Concierto Económico (1853-1937)</i> . (Mikel Erkoreka)	186
Beste esteka interesgarri batzuk	187

Artikuluak eta kolaborazioak



Ekonomia Itunaren etengabeko eguneratze dinamikoa: 2023ko finantza doikuntzak

Edriga Aranburu Agirre

Finantza eta Tributu Zuzenbidean doktorea - Deusto Business School-Deustuko Unibertsitatea

Abstract: Azken hilabeteotan, Ekonomia Itunaren Legea aldatu da, plastikozko ontzi berrerabilezinen gaineko zerga berezia eta berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga, besteak beste, sistemara egokitzeko. Aldi berean, apirilaren 3ko 10/2023 Legea onartu da, 2022-2026 bosturtekorako EAEko kupoa zehazteko metodologia onartzen duena, euskal erakundeei jarraipena, segurtasuna eta finantza-egonkortasuna emateko.

Horren guztiaren ondorioz, euskal administrazioek dituzten finantza-baliabideak handitu egin dira, eta sistemak mekanismoak ditu gehikuntza hori behar bezala kalkulatzeko. Artikulu honen helburu nagusia da beraz, lege-arauetan sartutako finantza-doikuntza berriak azaltzea, Ekonomia Itunaren finantza arloan sakontzeko eta bide batez, Ekonomia Itunaren sistemaren funtzionamendua hobeto ulertzeko. Doikuntza hauek itundutako zerga batzuetan bakarrik erabiltzen dira eta berebiziko garrantzia dute Euskal erakundeei behar bezalako diru sarrerak izan ditzaten.

Hitz klabeak: Ekonomia Ituna, Batzorde Mistoa, tributuak, finantzak, kupoa, doikuntzak

Abstract: En los últimos meses se ha modificado la Ley del Concierto Económico para adaptar al sistema el impuesto especial sobre los envases de plástico no reutilizables y el impuesto sobre los gases fluorados de efecto invernadero, entre otros. Paralelamente, se ha aprobado la Ley 10/2023, de 3 de abril, por la que se aprueba la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2022-2026, con el fin de dar continuidad, seguridad y estabilidad financiera a las instituciones vascas. Todo ello se traduce en un incremento de los recursos financieros de los que disponen las administraciones vascas y el mismo dispone de mecanismos para calcular correctamente dicho incremento. El objetivo principal de este artículo es, por tanto, explicar los nuevos ajustes financieros introducidos en las normas legales, con el fin de profundizar en el ámbito financiero del Concierto Económico y, de paso, comprender mejor el funcionamiento del sistema del Concierto Económico. Estos ajustes sólo se aplican en algunos impuestos concertados y son de vital importancia para que las instituciones vascas dispongan de los ingresos adecuados.

Palabras clave: Concierto Económico, Comisión Mixta, tributos, finanzas, cupo, ajustes

Sumarioa:

1. Sarrera. Ekonomia itunaren sorrera eta finantza esparruaren garapena.
 2. Finantza doikunen esparrua ekonomia itunean.
 3. Kupoaren metodologia eta tributu berrien ituntzea.
 4. 2023ko finantza-doikuntzak praktikan.
 5. Ondorioak.
 6. Informazio iturriak eta bibliografia.
 7. Kontsultatutako lege eta arauak.
-

1. Sarrera. Ekonomia itunaren sorrera eta finantza esparruaren garapena

1876ko foru-abolizioaren ondoren, Espainiako Gobernuak eta euskal aldundiek akordio bat lortu zuten, Euskal lurraldeetan —Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Lurralde Historikoetan, zehazki— foru-aldundiek bildu zituzten zergak eta, aldi berean, gastu publikoari aurre egin ziezaioten, aurreko foru-etapan egin bezala. Akordio horren arabera, aldundiek konpromisoa hartu zuten Espainiako Gobernuari kupo gisa euskal lurraldeetan bildu ez zuen zenbatekoa ordaintzeko. Akordio hori, hasiera batean behintzat, behin-behinekoa zen, hau da, euskal lurraldeak erresumako zerga-sistema erkidean sartu arteko epe mugatu baterako. Hala ere, gaur egun ere indarrean dago, izan ere, Ekonomia Itunaren sistemak dituen ia 150 urteetan, Espainiako Gobernuak eta aldundiek (hasieran bakarrik eta 1981etik aurrera, Eusko Jaur-laritzaren laguntzarekin) akordioa berriro dute, eta 2002an izaera mugagabea hartu du.

1978ko Espainiako Konstituzioaren aldarrikapenaren ondorioz eta 1979ko autonomia-sistema ezarri eta 1979ko Gernikako Estatutua onartu ondoren (baita ere Ekonomia Itunaren sistema), sistema horrek 180 graduako biraketa izan zuen finantza-arloan. Izan ere, ordutik aurrera, Estatuari ordaindu beharreko kupoak Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu ez zituen eskumenak kontuan hartuta kalkulatzeko hasi zen, eta Estatuari Autonomia Erkidegoak ordainduko zion, eta ez foru-aldundiek. Hala ere, BEZaren eta zerga berezien ituntzearekin batera, euskal erakundeek beraien herritarrek kontsumitutakoaren araberrako diru sarrerak izateko finantza doikuntza berezi batzuk ezarri ziren. Doikuntza hauek gaur egunean ere indarrean daude eta doikuntza berriak aurreikusi egin izan dira azken hilabeteetan itundutako zeharkako zergetarako.

Ekonomia Ituna funtsezkoa da euskal autogobernurako, honen bidez arautzen baitira EAE eta Estatuaren arteko tributua eta finantza-harremanak. Hori guztia sistemaren berezko itunari esker lortzen da, eta akordioaren bidez, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan ordezkaturik dauden alderdiek akordioak lortzen dituzte, eta ondoren Gorte Nagusiek berretsi behar dituzte. Gai hori beti errespetatu izan da 1978ko aro demokratikoa ezarri zenetik.

Ekonomia Itunaren sistemaren bidez, EAEko administrazio eskudunek zerga itunduak arautu eta biltzen dituzte, eta kupo global gisa finantzatzeko dituzte Estatuak bere gain hartutako kargak, non Estatuak ez duen inolako kopururik jasotzen zerga itunduengatik.

Kupoaren zenbatekoa bosturtekoan indarrean dagoen kupoak kalkulatzeko metodologia arautzen duen Legearen bidez kalkulatu da, eta gaur egungoa apirilaren 3ko 10/2023 Legea da, 2022-2026 bosturtekorako EAEko kupoak zehazteko metodologia onartzen duena.

Lege horretan, kupoak kalkulatzeko prozedura ezartzeaz gain, EAEri dagozkion finantza-baliabideak izan ditzan egin beharreko finantza-doikuntzak adierazten dira. Beraz, lan honen helburua sistemak dituen finantza-doikuntza berriak aztertzea da. Gaiari heltzeko, lehenik eta behin, Ekonomia Itunaren sistemaren funtzionamendua aztertuko da, ondoren, kupoak nola kalkulatu den azalduko da labur-labur, eta, azkenik, finantza-doikuntza berriak aztertuko dira.

Sistemak duen lehen finantza doikuntza BEZaren ituntzearekin eman zen eta beraren arautzea abenduaren 13ko 11/1993ko Legearen bidez gauzatu zen. Doikuntza honen helburu nagusia, BEZa kudeatzeko modu bereziarekin batera, gertaera ekonomikoak gertatzen diren guneen eta gertakari horiek sortzen dituzten betebeharrak fiskal materialak gauzatu behar diren erreferentzia-eremuaren arteko lotura ezari konponbidea ematea zen. Finantza-arazoa zerga-bilketaren (konexio-puntuaren arabera lor daitekeena) eta zerga-bilketaren (zerga-ordainketaren oinarri den egitate ekonomikoari egotz dakioketena) arteko desadostasunean dago eta doikuntzaren bidez arazoa konpontzen da.

Beraz, Kupoak kalkulatzeko gain, itundutako zeharkako zerga ezberdinetan doikuntza berezi batzuk egin behar dago, euskal ogasunek beraien herritarrek burututako kontsumoaren araberrako diru sarrerak izateko.

2. Finantza doikuntzen esparrua ekonomia itunean

Ekonomia Ituna beharrezko tresna da euskal administrazioek beren zerga-sarrerak kudeatu eta arautu ahal izateko, gastu publikoari aurre egiteko eta euskal finantza-sistema behar bezala arautzeko. Horrela, EAEko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak arautzen du egungo Ekonomia Ituna, eta bertan ezartzen dira sistemari aplikatu beharreko arau orokorrak, gaur egun dauden zerga itunduak, harreman-organismoak, Estatuaren eta EAEren arteko harremanak arautzen dituzten finantza-printzipioak, kupoa kalkulatzeko metodologia eta aurreikusten diren finantza-doikuntzak.

Ekonomia Ituna 1978ko Espainiako Konstituzioak babesten eta errespetatzen duen eskubide historikoa da, eta doktrinak eta jurisprudentziak zehatz-mehatz aztertu dute, haren definizio zehatza eta espezifikoa ematen saiatuz. Garrantzitsua da, beraz, eskubide historikoei buruzko definizio bat ematea, ondoren Ekonomia Ituna zertan datzan adierazteko eta dauden doikuntza ezberdinak hobeto ulertzeko. Herrero y Rodríguez de Miñonek eskubide historikotzat zer hartzen den zehazteko ematen duen definizioa hartu dezakegu erreferentzia gisa: «eskubide historikoen funtsa beren historikotasunean dago, eta foruerakunde zaharren eskumen-multzo bat da lehenik, eta haien ondorengoena gero; foraltasunaren hondar-ikuspegia da, haien krisiaren eta zatiketaren ondorengo». Horrela, bada, foru-abolizioaren ondorioa izango litzateke, besteak beste, Ekonomia Itunaren sistema ezartzea; izan ere, De la Hucha Celadorrentzat, «Ekonomia Ituna da Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernuaren adierazlerik garrantzitsuenak, edozein kontsiderazioen gainetik», eta «tributu-boterearen partekatzea da, Estatuaren eta foru-lurraldeen artean; zergak ordainarazteko lotura-puntu erabakigarriak finkatzen dira, zergen harmonizaziorako irizpide egokiak ezartzen dira, eta foru-lurraldeek Estatuaren karga orokorrak finantzatzen laguntzeko formulak ezartzen dira (kupoa edo ekarpen ekonomikoa), lurralde historikoei eta/edo Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituztenak; EAEren kasuan, kupoa zehazteko, eta kontuan hartuta zerga-boterearen titularrak lurralde historikoak direla —eta ez EAE—».

Bestalde, Ekonomia Itunak bere eragin praktikoa duten ezaugarriak ditu sistema osatzen duten bi alderdiak jorratzeko orduan: tributuak eta finantzak. Horrela, ezaugarri hauek izango lirateke: itundutako izaera, zerga itunduen zerga-kudeaketa, Euskal Autonomia Erkidegoaren aldebakarreko arriskua, euskal erakundeen arteko arrisku partekatua eta foru-aldundien administrazio-ahalak.

Laburbilduz, artikulu honen helburu nagusia ez denez, ezaugarri horietako bakoitza honela azal daiteke:

Sistemak duen izaera itunduari dagokionez, sistemaren azpian dagoen erdigunea azpimarratu nahi da, hain zuzen ere, administrazioen arteko ituna. Horrenbestez, sistemari buruzko guztia adostekoan, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak da bitariko organoa. Ekonomia Itunaren Legearen 61. artikuluan arabera, batzorde hori osatuko dute, alde batetik, foru-aldundi bakoitzeko ordezkari batek eta Eusko Jaurlaritzako beste hainbatek, eta, bestetik, Estatuako Administrazioaren beste horrenbeste ordezkariak. Ondoren, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabakiak aho batez hartu beharko direla esan beharra dago. Era berean, Ekonomia Itunaren Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriak adierazten du Ekonomia Itunaren edozein aldaketa hura onartzeko jarraitutako prozedura beraren bidez egingo dela, eta Estatuaren tributu-ordenamendu juridikoan aldaketaren bat gertatzen bada eta erreforma horrek tributuen ituntzeari eragiten badiu, zeharkako zergapetzearen eremuan eragina duten araugintza-eskumenen banaketa aldatzen bada edo tributu-figura edo konturako ordainketa berriak sortzen badira, bi administrazioek, ados jarrita, Ekonomia Ituna ordenamendu horretan izandako aldaketetara egokituko dute.

Zerga itunduen araugintzako eta zerga-kudeaketako autonomiari dagokionez, Ekonomia Itunak foru-aldundiei aitortzen die zerga itunduak ordainarazteko, kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko, berrikusteko eta biltzeko ahalmena, eta, horrela, «zerga-autonomia maila handia soilik gainditzen dute zerga-harmonizazioa Itunaren sisteman baino ahulagoa duten herrialde federaletan, eta iturrien gainjartzea da arau orokorra».

Sistema alde bakarreko arriskukoa da, eta horren arrazoia da Estatuak ez duela parte hartzen euskal erakundeek bildutako diru-bilketan, eta ez duela bere gain hartzen gastu publikoen estaldura, EAEk ezin

badie aurre egin bere betebeharrei. LÁMBARRI eta LARREAK adierazi dute «beregianatu gabeko karga orokorretarako ekarpena ez dela egiten bildutako diru-sarreraren arabera, baizik eta Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko aldagai batzuen arabera egiten dela: eskumen horietarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako gastuen arabera».

Alde bakarreko arriskuak ahalik eta eraginkorrenak izatera behartzen ditu euskal administrazioak, bestela, Estatuak inoiz konpentsatuko ez lituzkeen baliabide gutxiago izango lituzketelako gastu publikoak ordaintzeko. Horrenbestez, euskal erakunde bakoitzari dagokio bere diru-sarrerak eta gastuak kudeatzea aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioetan oinarritutako aurrekontu-arauak betez, eta toki-erakundearen finantza-babes egokia zainduz.

Sistemaren berezko erantzukizun hori euskal administrazio guztiena da; izan ere, Ekonomia Itunaren mekanismoen erabileraren kudeaketa ona edo txarra Euskal Autonomia Erkidegoari soilik dagozkio, hau da, Eusko Jaurilaritzari, foru-aldundiei eta EAEko udalei. Ezaugarri horrek, Ekonomia Itunaren sistemaren aldebakarreko arriskua deritzonak, ondorio zuzena eta praktikoa du administrazio-maila desberdinen gaitasun ekonomiko eta finantzarioan, eta administrazio solidarioak dira elkarren artean kupoa ordaintzeari aurre egiteko orduan. Beraz, sistemak zigortu egiten du bere baliabideak behar bezala biltzen (eta kudeatzen) ez dituen administrazioa.

Era berean, Ekonomia Itunaren Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriak adierazten du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiek 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikulua ekonomia- eta administrazio-arloan aitortu zizkien ahalmenak izango dituztela, eta, Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarrian aurreikusitako foru-araubidearen eguneratze orokorrerako prozesuaren arabera, beren burua iraunkortzat jotzen dutela, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua aipatzen dituen oinarriek kalterik egin gabe. PORREsek adierazi du «Itunak vis erakargarri bat izan duela, eta horrek berekin dakarrela, zerga- eta finantza-autonomia dela eta, ahalmen ekonomiko-finantzarioak ez diren beste ahalmen administrazio batzuek aitortzea». Hala ere, Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 2ko 11/1984 epaiak dio 1906ko lege-testuak ez duela argitzen euskal aldundiek dituzten ahalmen zehatzak zerranda, honako hau baieztatzean: «Eusko Jaurilaritzako ordezkariak berak adierazten du ezen, 1906 baino lehen, euskal aldundien zor-jaulkipenei edo bestelako zorpetzei eta finantza-autonomiari buruzko bibliografia eskasak beharrezko erantzunik gabe uzten dituela aipatutako 15. artikuluan aitortutako ahalmenei buruzko gaiak».

Sistema horrek dituen ezaugarri horiez gain, oso garrantzitsua da Ekonomia Itunaren Legearen 48. artikulua, hor jasotzen baitira EAEren eta Estatuaren arteko finantza-printzipioak. Hemendik aurrera, laugarren printzipioa jorratuko dut, sistemak dituen finantza-doikuntzekin lotzeko; izan ere, Euskadik Autonomia Erkidegoak bere gain hartu ez dituen Estatuaren kargei, hau da, kupoari, egin behar dien ekarpenari buruz hitz egiten digu.

3. Kupoaren metodologia eta tributu berrien ituntzea

Kupoa EAEk Estatuari egiten dion ekarpena da, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa, eta horrek euskal erakunde bakoitzak bere herritarrei zerbitzu publikoak emateko eta finantza-betebeharrei aurre egiteko duen gastu-ahalmena zehazten du.

Hasieran adierazi dudan bezala, abiaburu den urteko kupoaren kalkulua Euskal Autonomia Erkidegoko kupoa 2022-2026 bosturtekorako zehazteko metodologia onartzen duen apirilaren 3ko 10/2023 Legean arautzen da. Horrela, 2022-2026 bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa zehazteko, Autonomia Erkidegoak bere gain hartu gabeko kargen zenbateko osoari egozpen-indizea aplikatu behar zaio, eta dagokion doikuntzak eta konpentsazioak egin behar dira.

Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu ez dituen kargak zeintzuk diren jakiteko, Estatuko Aurrekontu Orokorretan islatzen diren gastuetatik abiatu behar da. Gastu horiek Euskal Autonomia Erkidego-

tik kanpoko faktoreen arabera kalkulatzeko, euskal administrazioek ezin baitute inolako eraginik izan Estatuko Aurrekontu Orokorren edukian. Gastu horiek kalkulatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartutako kargei dagozkienak deskontatu behar dira; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartutako eskumenak dira, hau da, Gernikako Estatutuaren I. tituluan ezarritakoak. «Hala ere, ez dago adostasunik orain arte EAeri dagozkion eskumenak zenbat eta zeintzuk diren ezartzerakoan, eta, beraz, Estatuko Administrazioak kudeatzen ditu, eta ez autonomikoak».

Ekonomia Itunaren Legeak, bere aldetik, 52. artikuluan ezartzen du zeintzuk diren Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen kargak, baina karga horietako batzuk baino ez ditu aipatzen. Honela dio artikulua honek:

«Bat. Autonomia-erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuaren kargatzat hartzen dira autonomia-erkidegoak benetan bereganatu ez dituen eskumenei dagozkienak.

Bi. Karga horien zenbateko osoa zehazteko, Estatuaren Aurrekontuko gastu guztietatik kenduko da autonomia-erkidegoak bere gain hartutako eskumenei estatu-mailan dagokien aurrekontu-esleipen osoa, kasuan kasuko dekretuetan finkatutako transferentziaren eraginkortasun-datatik aurrera.

Hiru. Besteak beste, honako hauek izango dira Autonomia Erkidegoak bere gain hartu gabeko kargak:

- a) Estatuaren Aurrekontu Orokorretan Konstituzioaren 158.2 artikuluan aipatzen den Lurralde arteko Konpentsazio Funtzari esleitutako zenbatekoak. Karga horri aurre egiteko, Kupoaren Legean zehaztutako prozedura erabiliko da.
- b) Estatuak erakunde publikoen alde egiten dituen transferentziak edo dirulaguntzak, baldin eta erakunde horiek betetzen dituzten eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez baditu.
- c) Estatuaren zorren interesak eta amortizazio-kuotak, Kupoaren Legeak zehazten duen moduan».

Euskal Autonomia Erkidegoak finantzatu beharreko kargak zeintzuk diren jakin ondoren, guztizko kopuru horiei, Estatuko Aurrekontu Orokorretan islatutakoei, egozpen-indizea deritzona aplikatzen zaie. Indize horrek EAEk Estatuko BPGan duen pisu erlatiboa islatzen du, eta, funtsean, Lurralde Historikoen errentaren arabera zehazten da, Estatuari dagokionez, 1981etik aplikatzen den ehunekoa % 6,24 izanik. Indize hori denboran aldatu ez den arren, bere garaian parametro ekonomikoak kontuan hartuta kalkulatu zen, baina zenbait ahotsak zalantzan jartzen dute indizeak, gaur egun, EAEk Estatuko BPGan duen benetako pisua adierazten duen.

EAEk bere gain hartu ez dituen kargak kalkulatu ondoren, Ekonomia Itunaren Legearen 55. artikulua adierazten du zuzeneko zergapetzea hobetzeko doikuntza bat egingo dela, Ekonomia Itunaren 9.bat.1.a. b) eta 7.bi artikuluetan ezarritako kasuak kontuan hartuta ateratzen diren kopuruen arabera. Kasu horiek honako hauek dira: alde batetik, Estatuak, beste autonomia-erkidego batzuek, lurralde erkideko korporazioek eta beren lurralde- eta erakunde-administrazioetako gainerako erakundeek egindako jaulkipenak, Estatuak eskatuko dituenak, eta, bestetik, lansari aktiboek zein pasiboek dagozkien atxikipe-nak, hartzailea ez den beste pertsona batek sortutako pentsioak barne, Estatuak funtzionarioei eta Estatuko lan- edo administrazio-kontratazioko araubidean enplegatuei ordaindutakoak.

Hori dela eta, Estatuko Zerga Agentzian egindako eta sartutako Estatuko funtzionarioek euskal lurraldean zerbitzuak ematearen kontzeptuan emandako zenbatekoak eta Estatuak, beste autonomia-erkidego batzuek edo Euskal Autonomia Erkidegoan ordaindutako lurralde erkideko korporazioek jaulkitako zorren eta jesapenen interesak eta gainerako kontraprestazioak doitu egin behar dira, eta lurralde historikoen aldeko zenbateko bihurtu. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen kargei kopuru horiek kentzen zaizkie.

Era berean, Ekonomia Itunaren Legearen 56. artikuluan arabera, lurralde historiko bakoitzari dagokion kupoari kontzeptu batzuk kendu behar zaizkio (egozpen-indizea Estatuko Aurrekontu Orokorretan islatutako zenbatekoari aplikatuta) konpentsazioagatik.

Kontzeptu horiek itundu gabeko tributuak, zergazkoak ez diren aurrekontuko diru-sarrerak eta Estatuko Aurrekontu Orokorren defizita dira. Kontzeptu horiek guztiek zerikusia dute Euskal Autonomia Erkidegoak ez duela bere diru-bilketan parte hartzen, eta, beraz, hauek Euskal Autonomia Erkidegoaren alde erabat hitzartzen ez diren bitartean, Estatuak bere horretan mantentzen du diru-sarrera horien guztien diru-bilketarako gaitasuna, eta diru-bilketarako ahalmen hori ez da Euskal Autonomia Erkidegora aldatu. Hau da, kopuru horiek konpentsatu ezean, Estatuak bi aldiz irabaziko luke, alde batetik, EAEk ordaintzen duen kupo-kopuruagatik, eta, bestetik, itundu gabeko diru-sarreretatik jasotzen dituen kopuruengatik.

Horrela, kopuru horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen kargei kentzean, kupo likidoa lortuko litzateke, berau konpentsazioak eta doikuntzak egin ondoren ateratzen den kopurua izango litzatekelarik. Azkenik, kupo likidoa behar bezala kalkulatzeko, Arabarako, Ekonomia Itunari buruzko Legearen Laugarren Xedapen Iragankorra aplikatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako erkidegoei dagozkien eskumen gehigarriengatik lurralde historiko horrek duen konpentsazioa zehazten baita (zuzenean ordaintzen zaio).

Bosturtekoaren hurrengo urteetan, printzipioz, ez dira berriro kalkulatzeko Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu ez dituen kargak eta lehen azaldu ditudan konpentsazioak eta doikuntzak. Ordaindu beharreko kupoa beste indize bat kontuan hartuta kalkulatzeko da, hau da, 2022-2026 bosturtekorako Euskal Autonomia Erkidegoko kupoa zehazteko metodologia onartzen duen apirilaren 3ko 10/2023 Legearen 10. artikuluan arautzen den eguneratze-indizearen bitartez. Indize hori zatidura bat da itundutako tributuen-gatik diru-sarreraren aurreikuspenaren (autonomia-erkidegoei erabat lagatako tributuak kanpo utzita) eta kupo likidoa aipatzen duen ekitaldiko Estatuko Diru-sarreraren Aurrekontuko I. eta II. kapituluetan agertzen denaren artean eta Estatuak bosturtekoaren abiaburu-urtean tributu-kontzeptu berberengatik aurreikusitako diru-sarreraren artean, behar bezala homogeneizatuta. Beraz, emaitza abiaburu-urteko kupo likidoari aplikatuko zaio, eta horren emaitza ekitaldi horretan ordaindu beharreko kupoa izango da.

Indarrean dagoen bosturtekoan bereganatutako eskumenak aldatzeak dakartzan ondorioak kontuan har daitezke, Ekonomia Itunaren Legearen 58. artikulua eta bost urteko Legearen 11. artikulua adierazten dute Euskal Autonomia Erkidegoak, bosturtekoaren edozein urtean, bere gain hartzen baditu eskumen berriak, eta horien estatu-mailako urteko kostua bosturtekoaren abiaburu-urteko kupoa zehazteko zenbatu ziren Estatuaren kargen barruan sartu izan balitz, eskualdaketa gertatzen den ekitaldian eskualdatzeari lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa kalkulatzeko dela, ekitaldi horretarako Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik ondorioztatzen denaren arabera. Hala ere, eskualdaketa berriaren eraginkortasuna ez badator bat ekitaldiko urtarilaren 1arekin, ekitaldi horretan eskualdatzeari lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa proportzionalki hainbanatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen horiek bere gain hartu dituen urtearen zatiarekiko proportzioan, eskualdaketa gertatu den ekitaldiko kupoa zehazteko ondorio eskusiboekin.

Azkenik, bosturteko Legearen 12. artikulua adierazten duen bezala, behin-behineko kupoak finkatu ondoren, behin betiko likidatzen dira, Estatuak benetan lortutako likidaziotik ondorioztatzen den eguneratze-indizearen benetako balioa aplikatuta, bai kupoaren ekitaldian, bai bosturtekoaren abiaburu-urtean duen homogeneoan, abiaburu-urteko behin betiko kupo likido homogeneoa.

Puntu honetara iritsita, batek, oker, ondoriozta dezake Euskal Autonomia Erkidegoak bere gastu publikoari aurre egin behar diela zergadunek aldeztu aurretik bildutako zenbatekoarekin, likidatu eta ordaindu den kupoa kenduta. Bada, hori ez da guztiz egia; izan ere, sistemak jasotzen dituen finantza-doikuntzak egiteke geratuko lirateke, eta zerga desberdinetan egin behar dira, bilketa dagokion lurralde-eremuko kontsumoarekin bat etor dadin. Doikuntza horiek ez dute eraginik kupo likidoaren kalkuluan, baina bai euskal administrazioek duten finantza-ahalmenean.

4. 2023ko finantza-doikuntzak praktikan

Aurretik aipatu izan dudana bezala Kupoaren kalkulua egiteko legeak metodologia bat arautzen du eta kupoa kalkulatu ostean, euskal lurraldeek berau ordaindu beharra dute, kontuan hartu gabe euskal oga-

sunek jasotzen duten diru kantitatea zerga bilketarengatik. Hala ere, kupoa, gastu bat den heinean, euskal erakundeek duten finantza ahalmenaren bidez egiten die aurre eta horretarako zerga bilketako dirua ere erabiltzen dute. Hala ere, zerga bilketaz gain, badaude euskal erakundeentzat berebiziko garrantzia duten beste diru sarrera (edo gastu) batzuk ere kontuan hartu beharrekoak direnak, besteak beste, zeharkako zergetan euskal herritarrek kontsumoaren bidez ordaintzen dutena, kontuan hartu gabe hauen bilketa euskal ogasunek egin edota Lurralde erkideko ogasunak. Kantitate hauek finantza esparrua handitzen dute eta Ekonomia Ituna arautzen duen legearen II. Kapitulua doikuntza berezi batzuk aurreikusten ditu hauek behar bezala kalkulatzeko.

Ekonomia Itunaren Legearen 53. artikulua Balio Erantsiaren gaineko Zergan kontsumoari aplikatu behar zaion doikuntza adierazten du, eta 54. artikulua Fabrikazioko Zerga Bereziaren kontsumorako egokitzapena aipatzen du. 2022ko azaroaren 17ko Batzorde Mistoaren erabakiaren ondoren, 54 bis artikulua sartu da, kontsumorako doikuntza adierazten duena, plastiko berrerabilgarriko ontzien gaineko zerga bereziaren gainean, eta 54 ter artikulua, kontsumorako doikuntzari buruzkoa, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren gainean.

Azken bi doikuntza berri horiei dagokienez, esan behar da haien helburu nagusia lehendik indarrean zeuden doikuntzek lortu nahi duten bera dela, hau da, euskal ogasunak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliarrek egindako kontsumoaren bilketarekin geratzea, eta ez izan duten benetako bilketarekin, beren kontsumo errealagatik egokituko litzaiekeenarekin desberdina izan baitaiteke. Horrela, doikuntzak zeinu positiboa edo negatiboa izan dezake Euskal Autonomia Erkidegorako; lehenengo kasuan, kontsumoa ekoizpena baino handiagoa denez, jaso beharko lukeen kopurua da, eta bigarren kasuan, Estatuak kobratu beharko lukeen kopurua, EAEko kontsumoa ekoizpena baino txikiagoa baita.

Doikuntza zenbatekoa den jakiteko, Ekonomia Itunaren Legeak eta bosturteko Legeak bi doikuntza horietarako xedatzen dutena aztertu behar da, egokitzapen bakoitzerako agertzen diren formulak berdinak baitira, nahiz eta horien osagaiek nomenklatura eta kantitatea aldatu.

Horrela, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren doikuntzari dagokionez, formula hau erabili da hura kalkulatzeko:

$$RFPV = RRPV + f * RRAD + (f - g) * H$$

Izanik:

RFPV = Urteko azken zerga-bilketa Euskadin.

RRPV = Urteko benetako zerga-bilketa Euskadin.

RRTC = Urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean.

RRAD = Urteko benetako zerga-bilketa inportazioak direla-eta

$$f = \frac{\text{Euskadiko egoiliarren kontsumoa}}{\text{Estatuko egoiliarren kontsumoa (zergaren aplikazio-eremua)}}$$

$$g = \frac{\text{Euskadiko zerga-bilketaren ahalmena}}{\text{Estatuko zerga-bilketaren ahalmena (zergaren aplikazio-eremua)}}$$

$$H = \frac{RR_{PV}}{g} \quad \text{baldin eta} \quad \frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \leq \frac{g}{1-g}$$

$$H = \frac{RR_{TC}}{1-g} \quad \text{baldin eta} \quad \frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \geq \frac{g}{1-g}$$

Joan gaitezen gauza bakoitza aztertzen, dagokion doikuntza behar bezala kalkulatzeko.

Ontzi horien kontsumo erlatiboa adierazten duen (f) adierazpena hartu behar da abiapuntutzat, eta Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliarren kontsumoa Estatuko egoiliarren kontsumoarekin zatituta kalkulatu da. Egungo bosturteko Legearen 16. artikuluan ikus daitekeenez, (f) adierazpena % 3,657 da, eta BEZaren doikuntzarekin gertatzen den bezala, doikuntzaren kalkuluan bi zati bereiz daitezke, zergapeko ondasunen inportazioen (1) edo kargatutako barne-eragiketen (2) kargaren arabera.

Horrela, aduanetatik (1) datorren diru-bilketan, Estatuaren eskumen eskusiboa denez, EAEk ez du diru-kopururik biltzen horregatik, eta, beraz, Estatuak bildutako zenbatekoaren % 3,657 dagokio, hau da:

$$\begin{aligned} (1) \\ A &= f * RRAD \\ A &= 0,03657 * RRAD \end{aligned}$$

Bestalde, barne-eragiketen diru-bilketa (2) kalkulatzeko, (g) esamoldea erabiltzen da, hau da, benetako diru-bilketa, zergaren hitzarmenari jarraiki. Bosturteko Legearen 16. artikularen arabera, ehuneko hori 1,912 da.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoari % 3,657ko kontsumo-bilketa egozten bazaio eta Euskal Autonomia Erkidegotik lortutako benetako bilketa % 1,912 bada, EAERI egokituko zaion doikuntza honako hau da:

(2)

(f)-(g)

$$3,657\% - 1,912\% = 1,745\%$$

Hala ere, ehuneko hori doitu egin behar da lurralde bakoitzaren diru-bilketaren kudeaketaren eraginkortasuna kontuan hartuta (H), eta Ekonomia Itunaren Legeak hiru agertoki aurreikusten ditu:

(3)

1. agertokia: EAE eta lurralde erkideak pareko eraginkortasun maila dute zerga bilketa egiterako orduan.

$$\frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \leq \frac{g}{1-g}$$

$$\frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \geq \frac{g}{1-g}$$

Beraz, egokitzapena (H) hau izango litzateke:

$$H = \frac{RR_{PV}}{g}$$

Edo

$$H = \frac{RR_{TC}}{1-g}$$

2. agertokia: EAE luarralde Erkidea baino eraginkorragoa da

Horrek esan nahi du EAEk lortutako benetako diru-bilketa teorian dagokiona baino handiagoa dela.

$$\frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \geq \frac{g}{1-g}$$

Beraz, (H)

$$H = \frac{RR_{TC}}{1-g}$$

3. agertokia: Lurralde erkidea EAE baino eraginkorragoa da

Kasu honetan, 2. agertokiaren kontrakoa gertatzen da: EAEk lortutako benetako diru-bilketa teorian dagokiona baino txikiagoa da.

$$\frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \leq \frac{g}{1-g}$$

Beraz, (H)

$$H = \frac{RR_{PV}}{g}$$

Horrela, EAeri legokiokeen azken bilketa honako hau izango litzateke:

$$RFPV = RRPV + (1) + ((2) * (3))$$

$$RFPV = RRPV + f * RRAD + (f - g) * H$$

Eta aplikatu beharreko doikuntza osoa:

$$A = (1) + ((2) * (3))$$

$$A = f * RRAD + (f - g) * H$$

Hau da:

$$0,03657 * RRAD + 0,01745 * H$$

Gainera bosturtekoaren legearen 16. artikulua prozedura berezi bat ezartzen du EAEk zerga honen bilketan %10eko desbideratzea baldin badauka. Horrela dio: «Euskal Autonomia Erkidegoak lortutako benetako bilketa, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziari dagokionez, jasotako indizea Estatu osoko benetako diru-bilketari aplikatuta ateratzen den zifratik ehuneko 10 baino gehiago desberdina bada, indize horiek zuzenduko dira, aipatutako aldeak gertatzen diren urteko doikuntzak egiteko».

Bestalde, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren doikuntza aurreko doikuntzaren modu berean kalkulatzen da. Prozedura ez errepikatzeagatik, Ekonomia Itunaren Legearen 54 ter artikulua eta bosturteko legearen 17. artikulua hari buruz ematen duten formulazioa baino ez dut aipatuko. Artikulu hauen arabera, EAeri dagokion kontsumo kantitatea aduanetan Estatuak jasotzen duenaren arabera da, % 4,337koa (h) eta EAEk biltzen duena % 0,343 (i) barneko eragiketa gisa. Beraz, (h) –(i), EAeri egokitu zaion doikuntza honako hau da:

(h)-(i)

$$\%4,337 - \%0,343 = \%3,994$$

Horrela, EAeri zerga honegatik dagokion doikuntza guztia hauxe litzateke:

$$RFPV = RRPV + h * RRAD + (h - i) * H$$

Izanik:

RF_{PV} = Urteko azken zerga-bilketa Euskadin.

RR_{PV} = Urteko benetako zerga-bilketa Euskadin.

RR_{TC} = Urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean.

RR_{AD} = Urteko benetako zerga-bilketa inportazioak direla-eta.

$$h = \frac{\text{Euskadiko egoiliarren kontsumoa}}{\text{Estatuko egoiliarren kontsumoa (zergaren aplikazio-eremua)}}$$

$$i = \frac{\text{Euskadiko zerga-bilketaren ahalmena}}{\text{Estatuko zerga-bilketaren ahalmena (zergaren aplikazio-eremua)}}$$

eta EAERI dagokion doikuntza ondokoa litzateke:

$$A = h * RRAD + (h-i) * H$$

Hau da:

$$0,04337 * RRAD + 0,03994 * H$$

Era berean, berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren doikuntzan azaldu den bezala, kontuan hartu behar da lurraldeen eraginkortasuna diru-bilketan (H).

5. Ondorioak

Espainiako ordenamendu juridikoan izandako azken tributu aldaketek, besteak beste, Ekonomia ituna eta kupoa kalkulatzeko metodologia legeak aldatzea ekarri ditu eta horretarako historikoki erabili den formula berdina erabili izan da: akordioa. Akordio hau Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan egin da eta ondoren, egin beharreko aldaketak egin izan dira dagokion erakunde eskuduneari.

Aldaketa hauek euskal administrazioentzat diru sarrera iturri berriak ekarri ditu eta horiek zehaztu ahal izateko, Ekonomia Itunaren legea eta indarrean dagoen apirilaren 3ko 10/2023 Legea onartzea ekarri du. Aldaketa nabariak zerga berezi batzuetan eman izan dira: plastikozko ontzi berrerabilezinen gaineko zerga eta berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergan hain zuzen. Zerga hauen ituntzeak EAEk hauek biltzeko eskumena lortu izan du eta, horrela, hauengandik diru sarrera berriak jaso izan ditu, baina kontsumoaren arabera da jasotakoa eta ez produkzioaren arabera.

Egoera hau konpondu eta EAERI benetan dagokion kantitatea zehazteko doikuntza ezberdinak arautu izan dira, ordurarte, beste zerga batzuekin gertatzen izan den bezala, prozedura berdina erabiliz.

Doikuntza hauen bidez, EAEk lege dagokion diru sarrerak zehaztu dira eta hauen bidez eta kupoa kalkulatzeko lege berriaren bidez, segurtasun juridikoa eta finantza egonkortasuna lortu izan da.

6. Informazio iturriak eta bibliografia

- AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, I. (2009). *Facultades de las Diputaciones Vascongadas como Organismos Administrativos. Lex et consuetudo dant ordinariam jurisdictionem*, Bizkaiko Foru Aldundia.
- ALONSO OLEA, E. (1995). *El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y Formación de un Derecho Histórico*, Colección Tesis Doctorales, IVAP.
- ALONSO OLEA, E. (2001). *Foru Ogasunaren 500 urte-500 años de Hacienda Foral*, Ad Concordiam.
- ENDEMAÑO ARÓSTEGUI, J.M. (2011). «Los derechos históricos en el régimen de conciertos económicos. Su proyección en el orden económico y administrativo de los municipios». *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica*, 317, 175-211
- ERKOREKA, M., GARCÍA RABADÁN, J., & GARRO, J. (2022). *Conocimiento y opinión del alumnado de la UPV/EHU sobre el Concierto Económico: resultados de la encuesta Ituna 2021*. Ad Concordiam.
- DE ESTECHA Y MARTÍNEZ, J.M. (1997). *Régimen Político y Administrativo de las Provincias Vasco Navarras*. Bizkaiko Foru Aldundia.
- HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M. (1998). *Derechos Históricos y Constitución*. Taurus.
- LÁMBARRI GÓMEZ, C. & LARREA JIMÉNEZ DE VICUÑA, J.L. (1995). *El Concierto Económico*, IVAP.
- DE LA HUCHA CELADOR, F. (2006). *El régimen jurídico del Concierto Económico*, Ad Concordiam.
- LARREA ANGULO, P. (1991). «El Modelo Financiero del Concierto Económico». *Ekonomiaz*, 19, 34-53.
- LARRAZABAL BASÁÑEZ, S. (2004). *Derecho Público de los Territorios Forales*, IVAP.
- LARRAZABAL BASÁÑEZ, S. (2019). «El cumplimiento del Estatuto de Gernika de 1979», *Iura Vasconiae*, 16, 307-347.
- PORRES AZKONA, J. (1992). *Política y Derecho. Los Derechos Históricos vascos*. IVAP.
- SERRANO-GAZTELUURRUTIA, S. (2012). *El Concierto Económico Vasco ante el juez Comunitario*, IVAP.
- DE VICARIO Y PEÑA, N. (1997). *Los Conciertos Económicos de las Provincias Vascongadas*. Bizkaiko Foru Aldundia.

7. Kontsultatutako lege eta arauak

1978ko Espainiar Konstituzioa.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Autonomia Estatutuarena Euskadirentzat.

Maiatzaren 13ko 12/1981 legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.

Abenduaren 13ko 11/1993 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Legea eta Zerga Bereziei buruzko Legea egokitzea.

Maiatzaren 23ko 12/2002 legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.

Urriaren 7ko 4/2021 Legea, 2022-2026 aldiaren egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia buruzkoa.

Apirilaren 3ko 9/2023 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duena.

Apirilaren 3ko 10/2023 Legea, 2022-2026 bosturtekorako EAEko kupoa zehazteko metodologia onartzen duena.

El ajuste bilateral a efectos de precios de transferencia en el ámbito foral

Alejandra Iturre Salinas

Bizkaiko Foru Aldundiko Finantza ikuskatzailea

Abstract: Como bien es sabido, los precios de transferencia tratan de asignar a cada jurisdicción o administración competente, el beneficio que le corresponde a efectos de que pueda someterlo a imposición con arreglo a su normativa, pero... ¿qué ocurre cuando dos contribuyentes que han realizado una operación vinculada están sometidos a Administraciones tributarias competentes diferentes?

A lo largo del presente artículo, se van a analizar cuáles son las herramientas de las que disponen las Haciendas Forales y sus contribuyentes a efectos de practicar el ajuste bilateral o correlativo en materia de precios de transferencia, así como la problemática que puede surgir cuando la operación vinculada que pretende ser objeto de regularización se ha realizado entre un contribuyente de competencia estatal y otro contribuyente de competencia foral.

Para ello, examinaremos cuál es la naturaleza jurídica de dicho ajuste bilateral y haremos un breve repaso sobre las disposiciones que regulan dicha cuestión, con especial referencia a la introducción del artículo 47 ter del Concierto Económico para los periodos impositivos iniciados a partir del 30 de diciembre de 2017. En este punto, además, revisaremos algunas Resoluciones emitidas por la Junta Arbitral, así como diversas sentencias dictadas por el Tribunal Supremo en las que se han visto involucradas las Haciendas Forales.

Abstract: Jakina denez, transferentzia-prezioen bitartez dagokien onura esleitu nahi zaie jurisdikzio edo administrazio eskudun bakoitzari, zerga araudiari jarraikiz ezarri dezaten; alabaina... zer gertatzen da lotutako eragiketa bat egin duten bi zergadun zerga-administrazio eskudun ezberdinen mende daudenean?

Artikulu honetan, hain zuzen ere, foru-ogasunek eta zergadunek transferentzia-prezioei dagokienez bi aldeko doikuntza edo doikuntza korrelatiboa egiteko dituzten tresnak aztertuko dira, baita ere zein arazo sor daitekeen erregularizatu nahi den lotutako eragiketa estatuen eskumeneko zergadun baten eta foru-eskumeneko beste zergadun baten artean egiten bada.

Horretarako, bi aldeko doikuntza horren izaera juridikoa aztertuko dugu eta berrikuspina labur bat egingo dugu gai hori arautzen duten xedapenei dagokienez, arreta berezia jarritz Ekonomia Itunaren 47 ter artikuluan 2017ko abenduaren 30etik aurrera abiarazitako zerga-aldietarako jasotakoari. Puntu honetan, halaber, Arbitraje Batzordeak igorritako ebazpen batzuk aztertuko ditugu, bai eta Auzitegi Gorenak emandako zenbait epai ere, non foru-ogasunak nahasita egon baitira.

Sumarioa:

1. Introducción. 2. Visión global del ajuste bilateral o correlativo: 2.1. Ajustes de precios de transferencia. Fundamento del ajuste bilateral o correlativo; 2.2. Problemática del ajuste bilateral cuando la operación vinculada implica a Administraciones Tributarias diferentes. 3. Marco jurídico del ajuste bilateral o correlativo en el ámbito foral: 3.1. El Concierto Económico; 3.2. Normativa del Impuesto sobre Sociedades. 4. Conflictos planteados en la Junta Arbitral. 5. Análisis de la jurisprudencia emanada del Tribunal Supremo: 5.1. Sentencia de 17 de septiembre de 2020 (RCA 5808/2018); 5.2. Sentencia de 20 de diciembre de 2022 (REC 3175/2022); 5.3. Sentencia de 23 de diciembre de 2022 (REC 1763/2021). 6. Conclusiones.

Como bien es sabido, los precios de transferencia tratan de asignar a cada jurisdicción o administración competente, el beneficio que le corresponde a efectos de que pueda someterlo a imposición con arreglo a su normativa, pero... ¿qué ocurre cuando dos contribuyentes que han realizado una operación vinculada están sometidos a Administraciones tributarias competentes diferentes?

A lo largo del presente artículo, se van a analizar cuáles son las herramientas de las que disponen las Haciendas Forales y sus contribuyentes a efectos de practicar el ajuste bilateral o correlativo en materia de precios de transferencia, así como la problemática que puede surgir cuando la operación vinculada que pretende ser objeto de regularización se ha realizado entre un contribuyente de competencia estatal y otro contribuyente de competencia foral.

Para ello, examinaremos cuál es la naturaleza jurídica de dicho ajuste bilateral y haremos un breve repaso sobre las disposiciones que regulan dicha cuestión, con especial referencia a la introducción del artículo 47 ter del Concierto Económico para los periodos impositivos iniciados a partir del 30 de diciembre de 2017. En este punto, además, revisaremos algunas Resoluciones emitidas por la Junta Arbitral, así como diversas sentencias dictadas por el Tribunal Supremo en las que se han visto involucradas las Haciendas Forales.

1. Introducción

Resulta innegable que vivimos en un escenario en el que la internacionalización de la economía es cada vez mayor. Además, y tras la reciente pandemia, cuestiones como la economía digital o la posibilidad de teletrabajar, están modificando la manera en la que se genera y localiza el beneficio empresarial.

Para abordar los diversos retos que han ido surgiendo en el ámbito económico, las Administraciones tributarias han tenido que ir adaptando su normativa, ya que, para buena parte de ellas, los cambios que se han producido en el plano de las relaciones empresariales han supuesto una merma en su recaudación.

No podemos perder de vista que el principio de capacidad económica es el que inspira la potestad de someter a imposición de las Administraciones tributarias. Por ello, es muy relevante poder determinar correctamente cuál es la capacidad económica de los contribuyentes, asignando para ello a cada uno de los mismos el beneficio que efectivamente ha generado.

En el ámbito de los grupos empresariales puede resultar tentador alterar dicha capacidad económica modificando, por ejemplo, los precios pactados entre sus miembros, ya que, en ocasiones, el estar bajo la potestad de Administraciones tributarias diferentes, puede determinar que resulte más ventajoso localizar parte del beneficio empresarial en una de ellas.

Pues bien, la normativa reguladora de los precios de transferencia tiene como finalidad evitar dicha deslocalización y velar por el principio de plena competencia, para lo cual establece que el precio que debe pactarse entre partes vinculadas debe ser el valor normal de mercado, entendido éste como «aquél que se habría acordado por personas o entidades independientes en condiciones de libre competencia».

El origen del principio de plena competencia lo encontramos en el apartado 1 del artículo 9 del Modelo de Convenio para evitar la doble imposición internacional sobre la renta y patrimonio y prevenir la evasión fiscal diseñado por el Comité de Asuntos Fiscales de la Organización para Cooperación y el Desarrollo Económicos (en adelante, MC OCDE) de 1963, que coincide en su redacción con el Modelo de Convenio previsto por la ONU.

Dicho artículo establece que «Cuando a) una empresa de un Estado contratante participe directa o indirectamente en la dirección, el control o el capital de una empresa del otro Estado contratante, o

b) unas mismas personas participen directa o indirectamente en la dirección, el control o el capital de una empresa de un Estado contratante y de una empresa del otro Estado contratante, y, en uno y otro caso, las dos empresas estén, en sus relaciones comerciales o financieras, unidas por condiciones aceptadas o impuestas que difieran de las que serían acordadas por empresas independientes, los beneficios que habrían sido obtenidos por una de las empresas de no existir dichas condiciones, y que de hecho no se han realizado a causa de las mismas, podrán incluirse en los beneficios de esa empresa y someterse a imposición en consecuencia».

No obstante, también es un principio presente en nuestra normativa interna si bien, la definición y aplicación del principio de plena competencia ha variado a lo largo de los años.

Así, el artículo 16 de la Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Bizkaia (en adelante NFIS 3/1996) en su redacción originaria no definía expresamente el concepto de valor normal de mercado y disponía que las operaciones realizadas entre partes vinculadas podían valorarse por su valor normal de mercado, cuando la valoración convenida hubiera determinado, considerando el conjunto de las personas o entidades vinculadas, una tributación en España inferior a la que hubiere correspondido por aplicación del valor normal de mercado o un diferimiento de dicha tributación. Por lo tanto, la corrección valorativa únicamente se aplicaba en esas dos situaciones.

Desde su anuncio, el impuesto al salmón ha provocado un efecto escalofriante entre la industria de la acuicultura del salmón en Noruega, con empresas que despiden trabajadores, cancelan las compras de permisos de cultivo, así como las compras de capacidad de licencia. Grieg Seafood, una de las principales empresas de cultivo de salmón del país, calificó la nueva tasa impositiva como «significativamente mejor» que la inicial.

«Grieg Seafood estudiará los detalles del impuesto final cuando se hayan hecho públicos y evaluará todas las inversiones que se suspenden a la luz del impuesto final», dijo la compañía.

Reducir el IVA de las bicicletas⁹⁶

En febrero de 2023, el Parlamento Europeo pidió a los Estados miembro de la Unión Europea que rebajen los tipos del IVA con los que gravan la venta, el alquiler y la reparación de bicicletas, ya sean eléctricas o convencionales.

Una medida que, de momento, solo ha llevado a cabo Portugal, que este enero redujo del 23% al 6% su gravamen, convirtiéndose así en el primer país de la UE en hacerlo, según la Federación Europea de Ciclistas, después de que, en 2021, los gobiernos de los Veintisiete acordasen flexibilizar las normas del IVA para que las bicicletas, entre otros productos, pudiesen contar con tipos reducidos.

Ahora, esta reivindicación forma parte de una resolución aprobada a mano alzada por la Eurocámara, y que, esencialmente, insta a la Comisión Europea a crear por primera vez en la historia una estrategia para fomentar el uso de la bicicleta a nivel comunitario.

Según la impulsora de la resolución, la eurodiputada francesa Karima Delli, que preside del comité de Transportes del Parlamento Europeo, esta eventual estrategia «convertirá la bici en un verdadero medio de transporte cotidiano, al mismo nivel que el coche o el metro».

El texto aprobado por el pleno pide al Ejecutivo comunitario que se establezca el objetivo de duplicar, de aquí a 2030, el número de kilómetros que los ciudadanos europeos recorren en bicicleta.

El papel de la política tributaria en el control de la inflación y la promoción del crecimiento sostenible en el contexto de la recuperación económica

El 23 de mayo de 2023, el Subcomité FISC del Parlamento Europeo organizó una audiencia pública sobre «El papel de la política tributaria en el control de la inflación y la promoción del crecimiento sostenible en el contexto de la recuperación económica».

Ricardo Martner, Comisionado de la Comisión Independiente para la Reforma de la Tributación Internacional de Empresas (ICRICT) y ex Economista Jefe de la Comisión Económica para América Latina y el Caribe de las Naciones Unidas (CEPAL), dijo que la batalla contra la pandemia mundial y el aumento

⁹⁶ <https://euroefe.euractiv.es/section/consumo/news/el-parlamento-europeo-pide-a-los-estados-reducir-el-iva-de-las-bicicletas/>

de los precios de los alimentos y la energía ha dejado vulnerables a muchos gobiernos, llenándolos de enormes deudas que asumieron a medida que caían los ingresos fiscales.

La pregunta es cómo podrían los Estados responder a este contexto a través de políticas tributarias. Hay que tomar una decisión: pueden optar por programas de austeridad, recortar la financiación de los servicios públicos y la inversión pública, aumentar la contribución de los más pobres a través de impuestos al consumo mejorados por la inflación y poner en riesgo el crecimiento económico con un menor gasto público e inversión. O pueden decidir aumentar los impuestos a quienes hasta ahora no han pagado su parte justa: las multinacionales y los superricos, muchos de los cuales también se han beneficiado de la crisis⁹⁷.

Por su parte, Marcel Olbert, Profesor Asistente de Contabilidad en la London Business School, habló sobre la fiscalidad de las empresas durante la crisis, en particular, las normas sobre pérdidas fiscales que son relevantes cuando las empresas están teniendo pérdidas durante la crisis económica. A continuación, abordó la reforma tributaria global o más específicamente, los Pilares uno y dos del acuerdo OCDE, incluida la tasa impositiva mínima, que pretende atajar la evasión fiscal de las empresas multinacionales, y concluyó su exposición hablando sobre los impuestos al carbono, su efectividad y el impacto corporativo⁹⁸.

Por último, Anne-Laure Delatte, economista del Instituto Francés de Investigaciones Científicas (CNRS), y miembro del OFCE-Sciences (Observatoire Français des Conjonctures Economiques), indicó que la política fiscal no es la mejor opción para luchar contra la inflación, pero puede ayudar a absorber los efectos perjudiciales de la inflación en el bienestar de los hogares. Y añadió que la política fiscal es la primera mejor política para luchar contra la crisis climática, pero para hacerlo, se necesita una reforma⁹⁹.

En esta dirección se puede encontrar un documento de contexto elaborado por el Servicio de Investigación del Parlamento Europeo (EPRS)¹⁰⁰.

⁹⁷ <https://www.europarl.europa.eu/cmsdata/270487/Ricardo%20Martner%20Statement.pdf>

⁹⁸ <https://www.europarl.europa.eu/cmsdata/270489/Marcel%20Olbert%20Statement.pdf>

⁹⁹ <https://www.europarl.europa.eu/cmsdata/270492/Anne-Laure%20Delatte%20Statement.pdf>

¹⁰⁰ [https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/ATAG/2022/733710/EPRS_ATA\(2022\)733710_EN.pdf](https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/ATAG/2022/733710/EPRS_ATA(2022)733710_EN.pdf)

Elkarrizketa



«ZERGAK aldizkariaren hogeita hamargarren urteurreneko formatu berriaren aurkezpena, Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko sailburuordearen eskutik»

Itziar Agirre Berriotxoa, Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko sailburuordea

Zergak aldizkaria 1993tik argitaratzen du Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak (EZKO), eta fiskalitatearekin lotutako gaiak jorratzen ditu nagusiki, Euskadiko fiskalitatera bereziki bideratuta.

Itziar Agirre Berriotxoa Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko sailburuordea da Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren presidentea, eta organo horretan foru-ogasunek ere parte hartzen dute. Eta Itziar da, aldi berean, Zergak aldizkariaren erredakzio-kontseiluburua. Beraz, pertsona egokiena dugu aldizkarian proiektatzen den ikuspegi berria azaltzeko, lehenengo edizioaren 30. urteurrena ospatzen den honetan.



Itziar Agirre Berriotxoa, Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko sailburuordea

Kaixo, Itziar. Hasteko, *Zergak* aldizkaria ezagutzen ez dutenengan pentsatuz, egiguzu aurkezpen labur bat aldizkariaren jatorriari eta helburuei buruz eta 30 urteko historian izan duen bilakaerari buruz.

Zergak aldizkaria argitaratzeko ideia EZKOren barruan sortu zen. Beraz, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek batera hartutako erabakia izan zen, erakunde horiek baitira organo honetan ordezkaritza dutenak. EZKO 1989ko maiatzaren 30eko Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzaren Fiskalaren gaineko 3/1989 Legearen esparruan sortu zen.

Sortu zenean, 1993an, helburua zuen zerga-arloko informazio eta prestakuntzarako tresna publikoa izatea, bereziki Euskadiko lurralde-eremura mugatuta. Testuinguru hartan, ulertu zen bazegoela espazio bat antzeko orientazioa zuten aldizkako beste argitalpen batzuek estaltzen ez zutena, eta EZKOn ordezkaturako erakundeek pentsatu zuten interesgarria zela hura betetzea.

Formari dagokionez, aldaketa batzuk izan ditu bere ibilbidean zehar —esanguratsuen, 2011ko bilakaera, paperezko formatutik formatu digitalera pasatzea—, baina beraren xedea, egitura eta lehentasuneko edukiak ez dira asko aldatu urte hauetan zehar. Ildo editorialak lehentasuna eman die Ekonomia Ituna eta gure zerga-sistemen berezitasunak erreferente dituzten informazioei, artikuluei, azterlanei edo hausnarketei. Gainera, foru-erakundeek zerga-jarduera hedatzeko plataforma izan da, eta arreta berezia eskaini die Europar Batasunaren zerga-politikari eta EBren barruko zerga-harmonizazioari buruzko lanei eta erreferentziei, betiere lehentasuna emanez zerga-egoerarekin eta zerga-arloko etorkizuneko itxaropenekin bat datozen gaiak tratatzeari.

Azken batean, 30 urte hauetan, *Zergak* aldizkariak aukera eman die hainbat egileri eta kolaboratzailei —dela esparru publikokoak, dela publikokoak, arlo akademikoak edo administrazioaren alorrekoak— zerga-arloarekin eta, bereziki, Ekonomia Itunarekin eta zerga-sistema foralekin zerikusia duten haien lanak eta gogoetak hedatzeko. Horrez gain, aldizkariak balio izan du Itunaren esparruan eratutako EAEko zerga-sistemaren berri emateko eta horretan sakontzeko bide gisa.

Zer dela-eta aldatu da orain aldizkaria?

Egia esan, aspalditik ari ginen baloratzen formatuari eta diseinuari dagokienez gaur egungo joeretara egokitzeko eraldaketa egiteko ideia; batez ere, aro digitalean informazioa kontsumitzeko ohitura berriekin bat egiteko. Lehenagotik zetorren gogoeta bat da, orain dela urte batzuk ere burutu zitekeena. Ziu-rrenik, 30. urteurrena akuilua izan da; alegia, dagoeneko hartuta zegoen erabaki bat —soilik falta zuena administrazio-testuinguruan zehaztea— aktibatzeke elementua, beharrezko baliabideak eta dagokion programazioa esleituta.

Zein dira *Zergak* aldizkariaren diseinu berriaren informazioa kontsumitzeko joera berrietara hurbiltzeko xede hori definitzen duten gakoak?

Aldizkari elektroniko edo newsletter moduko hedabide baten alde egiten dugu, erakargarriagoa eta efikazagoa izango baita, eta ingurune digitalaren erabilera gero eta gaitasun handiagoa duen publiko bati egokitua. Diseinu berriarekin irismena zabaltzea espero dugu, batez horrelako komunikazio-tresnek pertsona bakoitzarentzat interesgarriak izan daitezkeen eduki zehatzak hautatzeko ematen duten gaitasunagatik.

Horrekin guztiarekin batera, diseinu berri bat erabili dugu, modernoagoa, irudia ezagutzeko errazagoa eta eskuragarriagoa dena, interesatzen zaigun informazioa errazago iristeko. Gainera, pentsatu dugu artikulua kolaborazioen estandar laburrago baten alde egitea, baina interesa eta gaurkotasuna galdu gabe.

Aldizkariaren bertsio berria identifikatzeko irudi ezagunarena aipatu duzu. Zer esan diezagukezu horri buruz? Esanahi berezirik dauka?

Hain zuzen ere, aldizkaria identifikatzeko aukeratu dugun irudiak bere jatorriarekin eta oinarriekin bat datorren esanahia du. Mendizaleek —batez ere Euskadikoek— berehala igarriko dute Besaide mendia gailurretik gertu dagoen ingurua dela. 564 m-ko tontor txiki bat da, bi mendi oso ezagunen artean dagoena: Udaltx eta Anboto. Leku horren berezitasuna da gailurrean hiru mugako mugarri bat dagoela, Euskadiko hiru lurraldeen arteko loturaren erreferente bihurtzen dena: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Beraz, ezin hobeto irudikatzen du aldizkariaren lurralde-ikuspegi lehenetsia eta aldizkaria argitaratzen duen organoaren osaera, hau da, EZKOren osaera, zeinaren xede nagusia baita Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako foru-aldundien arteko harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea.

Illo editorialari dagokionez, aldaketarik aurreikusten al da egungo ikuspegiaren aldean?

Egia esan, aldaketa esanguratsuenak arestian aipatu ditugunak dira, batez ere diseinuari dagozkionak, edukiaren egitura eta lehentasunak ez baitira nabarmen aldatuko. Aldaketa batzuk egon badaude, bai. Izan ere, atal guztiak berrikusi ditugu, hartzaileen erabilgarritasunaren eta interesaren ikuspegitik, eta, berrikuspen horretan oinarrituta, eduki batzuk ezabatu edo birkokatu egin ditugu, eta beste batzuk birformulatu. Nolanahi ere, aldizkariaren muina eta, nire ustez, balio bereizgarria ematen diona, artikuluen eta kolaborazioen atalak izaten jarraituko du. Atal horretan, lehentasun tematikoa Ekonomia Ituna eta zerga-sistema foralak dira, baina uko egin gabe beste lurralde- eta eskumen-eremu batzuetako zerga-gaiei edo, hertsiki tributukoak ez izan arren, tributuekin lotura estua duten gaiei heltzeari, esaterako finantza-arloari.

Atal honi dagokionez, alde batetik, lehen adierazi dudana bezala, *Zergak* aldizkarian parte hartu nahi duten egileei orientabideak emango dizkiegu luzera txikiagoko formatu estandar batera egokitzeko, eta, bestetik, eutsi egingo diogu euskarazko dibulgazioa indartzeko erredakzio-kontseiluak duen konpromisoari, hau da, aldizkariaren ardatz nagusia osatzen duten zergen eta finantzen arloko artikuluen eta kolaborazioen euskarazko zabalkundeari. Halaber berresten dugu zergagintzaren alorreko generoaren ikuspegia lantzeko konpromisoa, eta gai horrekin urtero artikulua bat gutxienez argitaratzeko asmoa finkatu dugu.

Gainerako atalei dagokienez, *Zergak* aldizkariaren diseinu berria, oro har, edukiak arintzea erabaki dugu. Horren arabera, informazioa Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren webgunean bertan zabaltzen den kasuetan —esaterako, argitaratutako zerga-araudiaren produkzioan edo Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpenetan— konponbide logikoagoa eta efizienteagoa iruditu zaigu web-orriaren edukietara birbideratzea.

«Estatuarekiko finantza- eta zerga-harremanen eremuan, niretzat pozgarria izango litzateke zerga itunduen ahalmen arautzailean aurrerapenak ekarriko lituzkeen edozein albiste irakurtzea Zergak agerkarian. Gai horiek gure gobernu-programaren ekimenetan jasota daude, Euskadiren autogobernu ekonomiko-finantzarioa indartzeko eta garatzeko konpromiso orokorraren barruan».

Zenbatean behin argitaratuko da?

Hasiera batean, sei hilean behin ateratzea erabaki dugu, orain arte bezala; urtean bi zenbaki, uztailean eta abenduan. Baina etorkizunean urteko maiztasun handiago baterantz jotzeko aukera ez dugu baztertzen, lehenengo edizioetan egiten dugun balorazioaren arabera. Gogoan dut hasieran eta aldi batzuetan maiztasuna lauhilekoa izan zela, urtean hiru zenbakirekin.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko sailburuordea zarela probestuz, eta arlo fiskalean eta tributarioan eginkizunak dituzten ordezkari itzazko instituzionaleko organo kolejiatu nagusietan (hala nola Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan eta EZKO) dituzun karguak baliatuta, zehaztuko zenizkiguke zure eskumeneko zein gai nahiko zenukeen lantzea etorkizun hurbilean aldizkariaren hurrengo zenbakietan?

Estatuarekiko finantza- eta zerga-harremanen eremuan, niretzat pozgarria izango litzateke zerga itunduaren ahalmen arautzailean aurrerapenak ekarriko lituzkeen edozein albiste irakurtzea *Zergak* agerkarian. Gai horiek gure gobernu-programaren ekimenetan jasota daude, Euskadiren autogobernu ekonomiko-finantzarioa indartzeko eta garatzeko konpromiso orokorraren barruan. Zehazki, agendan dauden bi gai azpimarratu nahi ditut: alde batetik, 2022/2523 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duen zergaren kontzertazioa, zuzentarau horrek eragiten dien zergadunen errentetan % 15eko gutxieneko tasa globalera iristea ahalbidetuko duen zerga osagarria ezartzen duena, EAEko erakundearen lehentasunezko rola bermatuko duena eta iturri horretatik lortzen diren finantza-baliabide gehigarrien hornidura nahikoa eta zuzena segurtatuko duena; bestetik, Estatuko Administrazioa konbentzitzea eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari akordio bat helaraztea, foru-organismoek zergak aplikatzeko orduan Europako eta nazioarteko zerga-harremanen eremu gero eta aktiboagoan izango duten partaidetza zuzena antolatzeke, gai horretan lurralde historikoetako erakunde eskudunei esleitutako eskumenak errespetatuz.

EAEko erakundearen arteko barne-harremanen esparruan, EZKOren eremuan, poztuko nintzateke harmonizazio, koordinazio eta lankidetzak fiskalean aurrerapausoak ekarriko dituzten ekintzei edo ekimenei buruzko edozein albiste irakurrita. Ildo horretan, 2020-2024 gobernu-programan jasotakoarekin bat etorritik, hainbat eremutako zerga-politika —mugikortasun elektrikoan, etxebizitzan, kulturen, ingurumenean eta abar— zeharka aipatzen duten programa-konpromisoak beteta ikustea albiste pozgarria izango litzateke *Zergak* aldizkariaren hurrengo zenbakietan zabaltzeko.

Azkenik, asko poztuko nintzateke, zalantzarik gabe, *Zergak* aldizkarian argitaratuko bagenu joan den 2022/2023 ikasturtean baino ikastetxe gehiagotara iritsi garelako gure zerga-heziketako programan. Programa hori foru-aldundiekin batera landu dugu, eta Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateria-aren lehentasunezko prebentzio-ekintzen artean dago.

Zerga Kontsultak



EZKOren kontsulta lotesleak

Erabaki zk.	Zerga kontzeptua	Kontsultaren gaia	Testua
KL-2022.4	PFEZ	PFEZn zergak ordaintzetik salbuesteari eta administrazioak deituko laguntzen bidez finantzatutako doktoratu aurreko kontratuen ondorioz prestatzen ari diren ikertzaileek jasotako errenta jakin batzuk atxikipenaren mende jartzeari buruzkoa.	Testura sartzeko esteka
KL-2023.1	PFEZ	Ohiko etxebizitza batean autokontsumorako instalazio fotovoltaiakoari emandako dirulaguntza jakin batzuk PFEZen ordaintzetik salbuesteari buruz, eta ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria bizitegi-autokontsumorako sistema fotovoltaiakoaren instalazioa finantzatzeko zenbatekoei aplikatzeari buruz.	Testura sartzeko esteka
KL-2023.2	ODZ	Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren ondorioetarako, pertsona fisiko batek bere seme-alaben alde egindako bi eragiketaren zerga-tratamendua: i) dohaintza banku-sarrera baten bidez eta ii) mailegu bat barkatzea, bere seme-alabetako baten jabetzako etxebizitza baten gaineko hipoteka-kargarekin (kontsultagilea mailegu-emailea da).	Testura sartzeko esteka

2022.8.3.2 KONTSULTA – PFEZ. PFEZn zergak ordaintzetik salbuesteari eta administrazioak deitutako laguntzen bidez finantzatutako doktoratu aurreko kontratuen ondorioz prestatzen ari diren ikertzaileek jasotako errenta jakin batzuk atxikipenaren mende jartzeari buruzkoa.

Planteatutako gertaerak

Eusko Jaurlaritzak doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko laguntzak argitaratu ditu. Hona hemen laguntza horietako batzuen deialdia egiten duten eta kontsultaren xede diren aginduak:

1. Ikertalent programako laguntzak. Agindua, 2021eko uztailaren 7koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko 2021eko laguntzetarako (Ikertalent Programa). 115/2021 Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baitira nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaigintzaren sektoreko zientzia-teknologiaren eta enpresaren alorretan langile ikertzaileentzako eta langile teknologoentzako prestakuntza-laguntzak (Ikertalent programa).
2. Eusko Jaurlaritza Doktoratu aurrekoa. Agindua, 2021eko uztailaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntza berrien eta laguntza-berritzeen deialdirako oinarriak ezartzen baitira 2021-2022ko ikasturterako.
3. Agindua, 2021eko urriaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiteko Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza-aurreko Programa aplikatzen den zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako.
4. Agindua, 2021eko irailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeek jarduerak 2022-2025 aldiran bultzatzeko.
5. Agindua, 2021eko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan doktore-titulua dutenak kontratatuz eta industria-doktoregoak eginez I+Gko proiektuak egiteko laguntzak - Bikaintek programa.
6. Agindua, 2021eko irailaren 15koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira oinarritzko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko 2022-2024 aldirako laguntzak eta Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako 2022-2023 aldirako laguntzak.

Proposatutako galdera

Errentaren gainera Zergari buruzko Foru Araua interpretatzea eskatzen da. Interpretazio horren arabera, berariaz adierazi behar da prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra deitutako laguntzen bidez finantzatutako doktoratu aurreko kontratuen ondorioz jasotzen dituzten eta kontsultaren xede diren ordainsariak PFEZaren tributaziotik salbuetsita dauden eta, ondorioz, atxikipenaren mende dauden.

Erantzuna

Kontsulta egin duen erakundeak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, kontsultatutako laguntzak bi taldetan sailka daitezke. Lehenengo taldeak (1., 2. eta 3. laguntzak) doktoratu aurreko kontratuak finantzatzeko ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko banakako laguntzak biltzen ditu.

Azterketako «lehen talde» horretatik kanpo geratzen da 115/2021 Dekretuaren 2.b) artikuluan jasotako Teknologoak Prestatzeko Programa (Ikertalent Programa). Programa hori bereizita aztertuko da, gainerakoek ez bezalako ezaugarriak dituelako.

Bigarren taldeak (4., 5. eta 6. laguntzak) beste erakunde batzuei finantzaketa eskaintzen dieten laguntza publikoak biltzen ditu, eta, oro har, hainbat ikerketa-proiektu diruz laguntzen ditu.

Lehen taldeari dagokionez, oro har, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Ekainaren 1eko 14/2011 Legeko 21. artikuluan adierazten denez, beren «helburua izango da lizentziadun, ingeniari, arkitekto, unibertsitateko graduatuko titulua dutenek ikerketa-lanak egitea, proiektu espezifiko eta berri-tzaileen esparruan, gutxienez 300 ECTS (European Credit Transfer System) graduekin edo unibertsitateko masterra, edo baliokidea izanda, doktoregoko programa baterako onartuan izan badira. Langile horiek prestakuntza arloan doktoratu aurreko ikerlaritzat joko dira». Gainera, doktoratu aurreko kontratuak aipatutako legearen 21. artikuluan jasotako gainerako baldintzak bete beharko ditu.

Ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko laguntzaren kontzeptuan ordaindutako zenbatekoen tributazioari eta horren balizko salbuespenari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren (aurrerantz, PFEZFA) 9. artikuluan 9. apartatuak xedatzen du honako hauek salbuetsita egongo direla:

«Beka publikoak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak erregulatzen dituen araudia aplikatu behar zaien irabazi-asmorik gabeko erakundeek emandako bekak eta aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen II. tituluan araututako banku-fundazioek gizarte-ekintzako jarduera garatzean emandako bekak, Espainian nahiz atzerrian, hezkuntza-sistemako maila eta gradu guztietan, hirugarren unibertsitate-zikloraino ikasketak egiteko jasotakoak.

Era berean, salbuetsita egongo dira beka publikoak eta aurreko paragrafoan aipatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta banku-fundazioek emandako bekak, baldin eta Doktoratu aurretik prestakuntza jasotzen ari diren langile ikertzaileen estatutua onartzen duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuan deskribatutako esparruko ikerketarako badira, bai eta erakunde horiek administrazio publikoetako funtzionarioei eta gainerako langileei eta unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileei ikerketa-helburuekin emandakoak ere.»

Beraz, kontsultaren xede den lehenengo laguntza-multzoa erakunde publiko batek banaka ematen duenez ikerketa-lanak egiteko, aztertu behar dugu ea aipatu 103/2019 Errege Dekretuaren esparruan ikerketa-beka gisa salbuetsita dagoen (Doktoratu aurretik prestakuntza jasotzen ari diren langile ikertzaileen estatutua onartzen duena), transkribatutako PFEZ 33/2013 Foru Arauaren 9.9 artikuluan xedatutakotik ondorioztatzen den bezala.

Aipatutako 103/2019 Errege Dekretuak honako hau dio 1. artikuluan:

1. «Errege-dekretu honen xedea da Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluan xedatutako doktoratu aurreko kontratuaren bidez ezarritako lan-harremanaren araubide juridikoa garatzea, prestakuntza jasotzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileek eta lege horren 20.2 artikuluan jasotako erakunde publikoek sinatzen dutenean harreman hori, edo legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren erakunde pribatuek.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, prestakuntza diren doktoratu aurreko ikerlari izaera dute gutxienez 300 ECTS (European Credit Transfer System) graduekin edo unibertsitateko masterra, edo baliokidea izanda lizentziadun, ingeniari, arkitekto, unibertsitateko graduatuko titulua duten pertsonak, doktorego-programa batean onartuak izan badira, betiere, programa horren helburua, Doktorego ikasketak ofizialak arautzen dituen urtarilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuan ezartzen den eran, doktoregaiaren prestakuntza arloko alderdi ezberdinak garatzea eta doktorego-tesia garatzek prozedurak eta ikerketa-ildoak finka-

tzea, eta aurreko atalean aipatzen diren erakundeetara lotuta egonik ekainaren 1eko 14/2011 Legeko 21. artikuluan deskribatzen den doktoratu aurreko kontratazioaren modalitate bidez.”

Eta 2. artikuluan xedatzen denez:

1. «Errege Dekretu hau doktoratu aurreko edozein kontrataziotan aplikatzekoa izango da, aurreko artikuluan zehaztutako modalitatean eta baldintzetan, erakunde kontratatzailearen izaera, publikoa edo pribatua, gorabehera. Kontratazio guztiak Errege Dekretu honetan gartzzen den ekainaren 1eko 14/2011 Legean jasotako oinarrizko erregulaziopeko doktoratu aurreko kontratuetoako aurreikuspenetara egokituko dira.
2. Doktoratu aurreko kontratazioak, aurreko artikuluan zehaztutako modalitatearen eta baldintzen arabera, publizitatearen, berdintasunaren, merituen eta gaikuntzaren printzipioak errespetatu beharko ditu laguntzen emakidan edo dagozkion hautaketa-prozesuetan.
3. Ez dira Errege Dekretu honetan sartuta egongo lizentziadun, ingeniari, arkitekto edo unibertsitateko graduoko titulua izanik, doktoregoko ikasketa ofizialekin loturarik ez duten garp-en eta espezializazio zientifiko eta teknikora bideratutako laguntzen onuradun diren per-tsonak, edo ekainaren 1eko 14/2011 Legeko 21. artikuluko doktoratu aurreko modalitatez aparteko beste edozein modalitatearen pean kontratatuak izan badira».

Beraz, transkribatutako araudiarekin bat etorritz, eta doktoratu aurreko ikerlarien esparruan salbuespena aplikatzeko, hainbat betekizun behar dira:

1. Beka publiko bat, irabazi asmorik gabeko erakunde batek emandako beka bat edo araututako banku-fundazioek emandako beka bat izan behar da.
2. Beka horiek ikerketarako emanak izan behar dira, Prestakuntza arloan doktoratu aurreko ikerlarien Estatutua onartzeko martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak zehaztutako esparruan.

Gaineratu behar da, doktoratu aurreko kontratuak ez duela, berez, salbuespena aitortzeko eskubiderik ematen. Aipatu salbuespena eman dadin, ezinbesteko betekizuna da doktoratu aurreko ikerlaria, era be-rean, aipatu beka horietakoren baten onuradun izatea.

Bestalde, beka deitzen duen erakundea edozein izanik ere, laguntza batek izaera hori izan dezan, zen-bait betekizun bete behar dira:

1. Bekaren oinarri arautzaileak eta deialdia argitaratuta egon behar dira.
2. Oinarrietan adierazi behar da laguntzen helburua dela ikerlarien prestakuntza bultzatzea Doktore ti-tulua eskuratzeko, Prestakuntza arloan doktoratu aurreko ikerlarien Estatutua onartzeko martxoaren 1eko 103/2019 Errege Lege Dekretuan definitzen den esparruan.
3. Doktoratu aurreko ikerlaria bekaren onuraduna dela zehazten duen ebazpen bat egon behar da ar-gitaratuta.

Finan, azaldutakoa ikusita ondorioztatu behar dugu, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioiko Estatuko Ikerketa Agentziak, Unibertsitateen Ministerioak eta «La Caixa» banku fundazioak prestakuntza arloan ikerlarien doktoratu aurreko kontratuak finantzatzeko emandako lagun-tzak salbuetsita daudela, 3/2014 Foru Arauko 9.9 artikuluan xedatutakoari helduz, ikerketarako bekak izaki 103/2019 Errege Dekretuan definitzen den esparruan, beraz, ez dira laneko etekin modura zerga-petu behar. Esan gabe doa salbuespen hori hemen deskribatutako laguntzengatik jasotako zenbate-koetara baino ez dela iritsiko. Ikertzaileek ordainsari osagarriak eskuratzen badituzte entitate kontrata-tzailearen langile-kostuen aurrekontu arrunten kargura, ordainsari horiengatik beren izaeraren arabera ordainduko da, PFEZ 33/2013 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Horri dagokionez, zehaztu behar dugu ez zaiela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontu-rako atxikipenik aplikatuko, soilik transkribatutako araudian aipatzen diren betekizunak betetzen dituz-

ten eta zuzenean bekaren ondorio diren doktoratu aurreko ikerlarien aldeko etekinei. Ikertzaileek aurrekoetz bestelako etekinak jasotzen badituzte, zergaren atxikipen-sistemari lotuta egongo dira.

Bigarrenik, 115/2021 Dekretuaren (Ikertalent Programa) 2.b) artikuluan jasotako Langile Teknologoentzako Prestakuntza Programa («lehen taldea» izenekoetik kanpo), 2021eko uztailaren 7ko Aginduan eta 115/2021 Dekretuan araututakoa kontuan hartuta, ez dago 103/2019 Errege Dekretuaren eta 14/2011 Legearen aplikazio-eremuaren barruan. Hori horrela izanik, ez da aplikatuko PFEZFaren 9.9 artikuluko salbuespena, ez baitira Doktoratu aurreko kontratuen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuaren esparruan emandako ikerketa-bekak.

Azkenik, 2. taldean sailkatutako laguntzak (4., 5. eta 6. deialdiak) pertsona juridikoentzako laguntza publikoak dira, eta finantzaketa eskaintzen zaie pertsona juridiko horiek ikerketa-proiektuak gara ditzaten. Laguntzek berariazko partidak badituzte ere prestatzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaile horiek kontratatzeko, ez dira pertsona fisikoentzako laguntza izendunen deialdiak, ikerketa-zentroari berari zuzendutakoak baizik. Beraz, ez daude 33/2013 Foru Arauaren 9.9 artikuluan jasotako salbuespenean babestuta, pertsona fisikoei bakarrik aplikatu dakiekeelako. 2. taldeko laguntzen erakunde hartzaileek aldi berean argitaratzen dituzten deialdiak edo hautaketa-prozesuak aztertu beharko lirateke, zerga honen zergadunei ikerketarako emandako laguntzek 9.9 artikuluan salbuetsita geratzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten zehazteko.

2023.1.3.1 KONTSULTA – PFEZ. Ohiko etxebizitza batean autokontsumorako instalazio fotovoltaikoari emandako dirulaguntza jakin batzuk PFEZen ordaintzetik salbuesteari buruz, eta ohiko etxebizitza eros-teagatiko kenkaria bizitegi-autokontsumorako sistema fotovoltaikoaren instalazioa finantzatzeko zen-batekoei aplikatzeari buruz.

Planteatutako gertaerak

Kontsultagileak instalazio fotovoltaiko bat egingo du bere ohiko etxebizitzan autokontsumorako. Horretarako, itzuli beharrik gabeko dirulaguntza emango da. Dirulaguntza hori Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpenaren 4. pizgarrien programan ezarrita dago. Ebazpen horren bidez, energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitartzeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dira, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Proposatutako galdera

Lehenengoa. Jakin nahi du ea deskribatutako laguntzak, ohiko etxebizitzan autokontsumorako instalazio fotovoltaikoarekin lotutakoak, PFEZaren tributaziotik salbuetsita dauden.

Bigarrena. Galdetu du ea badagoen PFEZaren kenkaririk bizitegi-autokontsumoko sistema fotovoltaikoa instalatzeagatik.

Erantzuna

Lehenengoa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren (aurrerantzean, PFEZFA) 9. artikulua 27. apartatuak xedatzen duenez, honako hauek salbuetsita egongo dira:

«Lurralde Administrazio Publikoek emandako laguntza publikoak, erregelamendu bidez zehaztuko direnak [...]»

Manu hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 12. artikuluan garatzen da (aurrerantzean, PFEZE). Erregelamendu hori Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu zen, eta honako hau dio:

«1. Zergaren Foru Arauak 9. artikulua 27. zenbakian ezartzen duenari dagokionez, kargatik salbuetsita daude sektore publikoak jarraian azalduko diren arautegien eta programen edo laguntza-planen bidez (edo beren ordezkien bidez) ematen dituen laguntza publikoak. [...]

r) + Euskadi 09 Plana? Leihoen Renove planei dagokienez (leihotarakoa, elektrotresnetarakoa, galdaretarakoa, aurrezpen energetiko handiko turismoetarakoa eta altzarietarakoa), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta eraikinen birgaikuntza eraginkorrerako Renove Plana, eta aurrerantzean plan horiek xede berarekin ordeztzen dituzten beste planak.

s) Lurralde-administrazio publikoek emandako beste lurralde-laguntza publiko batzuk, baldin eta haien xedea bada ondasunak edo instalazioak berritzeko laguntza ematea, eta q) eta r) le-tretan adierazitako helburu bera badute».

PFEZEren 12. artikulua hori irakurrita, ondoriozta daiteke Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita daudela lurralde-administrazio publikoek etxebizitza eta eraikinetan energia-aurrezkia eta -efizientzia bultzatzeko emandako laguntza publikoak, bai eta ordeztzen dituztenak ere.

Kontsultaren xede diren laguntzek baldintza horiek benetan betetzen dituzten jakiteko, beharrezkoa da, lehenik eta behin, aztertzea ea haien xedea bat datorren etxebizitzaren birgaitze eraginkorraren arloko Renove Planarekin, eta, bigarrenik, ea lurralde-administrazio batek ematen dituen.

Lehenengo gaiari dagokionez, Renove Plana, PFEZEren r) apartatuan aipatzen dena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 8ko Aginduan dago idatzita. Agindu horren bidez, etxebizitza eta eraikinen birgaikuntza integral eta efizientearen arloko dirulaguntzen programaren (Renove Integral programa) 2020ko deialdia egin eta arautzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta horien ondoriozko obrak egikaritzeko. Deialdiak, besteak beste, energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko al-dibereko neurriak gauzatzea finantzatzen du, eta adierazten du lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa murrizteko eguzki-panelen instalazioak jarduera espezifikoak direla.

Kontsultagilearen laguntza-lerroaren arabera, diruz laguntzeko moduko jardura da energia elektrikoa iturri berriztagarriekin sortzeko instalazioetan inbertitzea (jarduketa fotovoltaikoak eta eolikoak), bizitegi-sektoreko autokontsumorako.

Ondorioz, kontsultaren xede den laguntzak lehen aipatutako Renove Plan Integralaren helburu bera izateko premisa betetzen du.

Bigarren gaiari dagokionez, laguntza lurralde-administrazio batek ematen duen zehazteko, dirulaguntzen deialdi horren oinarri den araudia aztertu behar da. Kasu honetan, Energiaren Euskal Erakundea (EEE) da deialdia egiten duen organoa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Europako Batzordeak onartu zuen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana, ekonomia modernizatzeko ibilbide-orria marrazteko. Haren bi ekintza-ildoak kudeaketa eraginkorra lortzeko (energia berriztagarrien eta azpiegitura elektrikoaren hedapena eta integrazioa, sare adimendunen sustapena eta malgutasunaren eta biltegiatzearen hedapena), ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua sustatu zen.

Era berean, errege-dekretu honen xedea da autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei aparteko izaeraz eta interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiengatik zuzeneko laguntzak ematea arautzea, bai eta energia berriztagarrien autokontsumorako, biltegiatzerako eta erabilera termikoetarako pizgarrien sei programak onartzea ere; horien artean dago 4. pizgarri-programa: «Autokontsumorako instalazioak egitea, energia berriztagarriko iturriekin, bizitegi-sektorean, administrazio publikoetan eta hirugarren sektorean, biltegiatzearekin edo gabe».

Beraz, aipatutako errege-dekretuak autonomia-erkidegoen esku uzten du bertan aurreikusitako azken hartzaileei laguntzak emateko deialdiak egiteko ardura, dirulaguntza horien kargura, energia-politikaren arloan dituzten betearazpen-eskumenen arabera. Era berean, prozedura bideratzeko eta ebazteko eskumena duen organoa izendatu beharra ezartzen die.

Euskal Autonomia Erkidegoan, kontsultagileak aipatzen duen EEEn ebazpenak arautzen du laguntza horien banaketa.

Energiaren Euskal Erakundea 9/1982 Legearen bidez sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko gisa, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailari atxikita, eta haren ardura da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak energiaren arloan gaur egun egiten dituen eta etorkizunean egingo dituen jarduerak planifikatzea, koordinatzea eta kontrolatzea, Jaurlaritzak bere eskumenen esparruan emandako jarraibideen arabera.

EEE ez da, berez, administrazio publikoa, baina Espainiako Gobernuaren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak lurralde-administrazio publikoei emandako laguntza horiek emateko agindua jaso du Euskadin. Kasu zehatz honetan, EEEK lurralde-administrazioek arlo horretan dituzten eskumenen kudeatzaile delegatu huts gisa dihardu.

Azaldutako baldintzak kontuan hartuta, kontsultagileak deskribatutako laguntzak lurralde-administrazio batek emandakotzat hartu behar dira, eta, horrela, salbuesteko beharrezko baldintza hori betetzen dute.

Aurreko guztiagatik, ulertzen da kontsultagai diren laguntza publikoek, autokontsumoa eta bizitegi-era-bilerarako energia-iturri berriztagarriak biltegitratzea sustatzera zuzendutakoek, ez dutela zergarik ordaindu behar Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, PFEZFaren 9.27 artikuluan eta PFEZEren 12.1 r) eta s) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena. PFEZFaren 87. artikulua 5 a) apartatuak xedatzen du ohiko etxebizitza erostearekin parekatuko direla ohiko etxebizitza birgaitzera bideratutako zenbatekoak.

Artikulu beraren 6. apartatuan:

«Birgaikuntzat hartuko dira jabeak bere ohiko etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebazpen batek jarduketa babestutzat kalifikatu edo aitortu baditu Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak —ondare hiritartua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak— xedatutakoaren arabera, edo, hala badagokio, babesteko jarduketa gisa kalifikatu badira abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuak edo hura ordezkutzen duten antzeko arauak ezarritakoari jarraiki.»

Horrela, PFEZFaren 87. artikulua 1. eta 2. apartatuen arabera, eskatzaileak % 18ko kenkaria aplikatu ahal izango du xede horrekin zergaldian inbertitutako zenbatekoetan eta obra hori egiteko kanpoko kapitalak erabiltzeagatik zergaldian ordaindutako interesetan, besteren finantzaketak eragindako gastuak barne, bere kargura egon badira. Urteko gehieneko kenkaria 1.530 eurokoa izango da. Kenkariaren ehuneko hori eta aplikatu beharreko urteko gehieneko kopurua handitu egin daitezke zergadunaren ezau-garri pertsonalen arabera eta ohiko bizilekua dagoen udalerriaren arabera.

Nolanahi ere, kenkaria aplikatzeko ezinbesteko baldintza da zergadunak Eusko Jaurlaritzaren ebazpena izatea obrak jarduketa babesgarritzat kalifikatzeko. Zenbatekoa eta interes kengarriak ebazpenean babestutako aurrekontura egokituko dira.

2023.1.3.2 KONTSULTA – ODZ. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren ondorioetarako, pertsona fisiko batek bere seme-alaben alde egindako bi eragiketaren zerga-tratamendua: i) dohaintza banku-sarreraren baten bidez eta ii) mailegu bat barkatzea, bere seme-alabetako baten jabetzako etxebizitza baten gaineko hipoteka-kargarekin (kontsultagilea mailegu-emaila da).

Planteatutako gertaerak

Kontsulta egin duenak dohaintza bat egin nahi dio seme edo alaba bakoitzari. Dohaintza bat, dirutan, bankuko diru-sarreraren baten bidez, seme-alabetako lehenengoari. Beste dohaintza mailegu bat barkatuta egingo da, bere seme-alabetako baten jabetzako etxebizitza baten gaineko hipoteka-kargarekin, eta kontsultagilea mailegu-emaila denean. Adierazten denez, hipoteka-maileguaren kontratua ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako aitortu zen Gipuzkoako Foru Ogasunean. Maileguaren interesak kontsultagileak deklaratu izan ditu Bizkaiko PFEZaren aitortpenetan.

Proposatutako galdera

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren planteatutako dohaintzen tributazioaren berri jakin nahi du.

Erantzuna

Kontsulta-idazkian planteatutako gaiari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Araua (ODZFA) aplikatu behar da. Horren 1. artikulua honako hau ezartzen du:

«Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga zerga zuzena eta subjektibo bat da, pertsona fisikoek dohainik lortzen dituzten ondare-gehikuntzak kargatzen dituen, hain zuzen foru-arau honetan ezarritako moduan».

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zergapeko egitateari dagokionez, honako hau xedatzen du aipatutako ODZFaren 4. artikulua:

«Honako hau da zerga-egitatea: (...) b) Ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein doako eta «inter vivos» negozio juridikoz eskuratzea.. (...)».

Eta arau-testu beraren 6. artikuluan honako hau gehitzen da:

«Dohaintzaz gainera, honako hauek hartuko dira, besteak beste, doako eta «inter vivos» negozio juridikotzat, zerga honen ondorioetarako: a) Zorra osorik edo partzialki barkatzea, esku zabaltasunez. (...)».

Bestalde, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 25.Bat eta Bi artikulua honako hau adierazten du:

«Bat. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du zerga hori honako kasu hauetan: a) Mortis causa eskurapenetan, eta bizi-aseguruen onuradunek aseguratuen heriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, (...) b) Ondasun higiezin eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasun horiek Euskadiko lurraldean kokatuta baldin ba-

daude. Ondasun higiezinak atzerrian badaude, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badu sortzapenaren egunean. Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onetsi duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 314. artikuluan aipatutako baloreen doako eskualdatzeak. c) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badu sortzapenaren egunean. d) Zergadunak bizilekua atzerrian duenean, baldin eta ondasunen eta eskubideen baliorik handiena Euskadiko lurraldean baldin badago, eta bizi-aseguruetako kontratuetatik lortutako kopuruaren kasuan ere bai, hitzarmen hori egoitza Euskadin duten aseguru-erakundeekin egin bada, edo kontratua Euskadin egin bada bertan jarduten duten atzerriko erakundeekin. Letra honen ondorioetarako, Euskadiko lurraldean kokatuta daudela ulertuko da lurralde horretan dauden, erabil litezkeen edo bete beharko liratekeen ondasun eta eskubideak. Bi. Aurreko apartatuko a) eta c) letretan jasotako kasuetan, foru-aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, kautzailea edo dohaintza-hartzailea egunik gehien egon bada lurralde erkidean aurre-aurreko bost urteetako denboraldian, zergaren sortzapenaren egunetik kontatuta. Autonomia Estatutuaren 7.2. artikulua araberaz izaera politikoz euskal herritar izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori ezarriko. (...)».

Aurkeztutako kontsulta-idazkian, bi dohaintza desberdinen tributazioari buruz galdetu du.

Lehenengo dohaintza dirua doan ematean datza. Transkribatutako araudia kontuan hartuta, dohaintza hori Bizkaian egin dela ulertuko da dohaintza-hartzaileek, kasu honetan seme-alabek, sortzapen-datan ohiko bizilekua Bizkaian badute.

Bigarren dohaintza seme baten jabetzako etxebizitza baten gaineko hipoteka-mailegua barkatzea da. Zorra barkatzea doako eta inter vivos negozio juridikotzat hartzen da zerga honen ondorioetarako. ODZFAren 2. artikuluko 1. apartatuko d) letran xedatutakoaren arabera, zor-barkatze batean datzan dohaintza Bizkaian egin dela ulertuko da onuraduna sortzapen-egunean Bizkaian bizi bada, eta ondorio horietarako ez du garrantzirik hipoteka-kargarik egoteak edo ez egoteak.

Aurrekoaren ondorioz, bi dohaintzek, diruarenak eta zorra barkatzekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoan ordainduko dituzte zergak, baldin eta dohaintza-hartzaileek beren ohiko bizilekua Bizkaian badute sortzapen-egunean. Gai hori ez da ezagutzen, ez baita horri buruzko daturik ematen. Hala ere, jarraian, itun bidez eta itun barruan ezarritako araudia transkribatzen da, zergaren ondorioetarako ohiko bizilekua zehazteko..

Ekonomia Itunaren 43. artikulua araberaz:

«Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren: Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko egun gehien ematen dutenean, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapen egunaren bezperan aaitzen den urtebeteko egun gehien ematen dutenean, urtearen edozein egunetatik hasita zenbatuta, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokienez. Pertsona fisikoek ohiko bizilekua, gainerako zergei dagokienez, dena delako zergaren sortzapen-egunean pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren ondoreetarako duten ohiko egoitza bera izango da. Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan. Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan badu. Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehekuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean —profesionala alde batera utzita— egotzitako oinarriak ere. Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoek errentaren gaineko zer-

garen ondorioetarako. Bi. Espainiako lurraldean bizi diren pertsona fisikoen kasuan, egutegiko urtean zehar ez badute lurralde horretan ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago egiten, Euskadiko lurraldean bizi direla joko da bertan baldin badute enpresa- edo lan-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo oinarria. Hiru. Legez banandu gabe dagoen ezkontideak eta haren mende dauden adin txikiko seme-alabek ohiko bizilekua Euskadin izateagatik pertsona fisiko bat Espainiako egoiartzat jotzen baldin bada, pertsona fisiko horrek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean duela ulertuko da».

ODZFaren 3. artikulua, ohiko bizilekuari buruzkoak, honako hau xedatzen du:

«1. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, pertsona fisikoek beren ohiko egoitza Bizkaian dutela esan daiteke honako erregela hauek elkarren segidan aplikatu ahal badira: 1.a Zerga sortzen den egunaren bezperan amaitzen den urteko egun gehienak Euskal Herrian emanik, datatik data zenbatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoan egun gehiagoan egon bada beste lurralde historiko bakoitzean baino. Bizkaiko egonaldia zenbatekoa izan den zehazteko, epe horretan izandako aldi baterako absentziak zenbatuko dira. Kontrakaren frogarik ezean, pertsona fisiko bat Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu. 2.a Interesen gune nagusia Bizkaian badu. Zergadun batek bere interesen gune nagusia Bizkaian duela ulertuko da baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen badu eta, gainera, Bizkaian lortutako zerga-oinarriaren zatia handiagoa bada beste lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino. Dena dela, ondorio bietarako, irizpide horretatik kanpo geratuko dira kapital higigarriaren errentak nahiz ondare-irabaziak eta egotzitako zerga-oinarriak. 3.a. Bizkaian baldin badu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza. Lehenengo erregela aplikatuta ere ezinezko gertatzen bada zergadunaren ohiko egoitza zein lurraldetan —erkidean edo foralean— dagoen zehaztea, bigarren erregela aplikatuko da. Lehen eta bigarren erregelatan xedatutakoa aplikatu ondoren gauza bera gertatzen bada, berriz, hirugarren erregela aplikatuko da. 2. Espainiako lurraldean egoiliar diren pertsona fisikoek urte naturalaren barruan ez badituzte 183 egun baino gehiago ematen bertan, pertsona horiek Euskal Autonomia Erkidegoko egoiartzat hartuko dira, baldin eta beren ekonomia-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo basea autonomia-erkidego horretan kokatzen bada. Aurreko lerroaldean jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badago, pertsona horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi direla ulertuko da, baldin eta beren ekonomia-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo basea lurralde horretan kokatzen bada. 3. Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldeko egoiliarra dela uste bada, haren ezkontidearen -legez bereizita ez badago- eta haren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaian dagoelako, pertsona fisiko horren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Presuntzio horren aurka kontrako frogak aurkez daitezke. (...)».

Araudia aplikatzeko eta ordainarazteko eskumena Bizkaia badagokio, aurrekoaren arabera, hau da, dohaintza-hartzaileek ohiko bizilekua Bizkaian dutela kontuan hartuta (bi dohaintza-hartzaileak edo horietako bat), adierazi behar da, ODZFaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, dohaintzetan, dohaintza-hartzailea edo dohaintzen onuraduna behartuta dagoela ordaintzera, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zergaduna den aldetik. Planteatutako kasuan, kontsultagilearen seme-alabak.

Zerga-oinarria kalkulatzeko, ODZFaren 19. eta 20. artikuluetan ezarritako arauak bete beharko dira.

Hala, hau ezartzen du 19. artikulua:

«1. Zergaren zerga-oinarria honela osaturik dago: (...) b) Dohaintzetan eta haien pareko gaintontzeko «inter vivos» irabazizko eskualdatzeetan, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbia, horrelakotzat hartuz ondasun eta eskubideen balio erreala, kengarriak diren kargak eta zorrak kenduta. (...)».

Foru Arau beraren 20. artikulua honako hau gaineratzen du:

«1. Eskualdatutako ondasun eta eskubideei, orokorrean, haien balio erreala emango zaie, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk. Hala ere, kontuan hartuko dira artikuluko honetako gainerako zenbakietan nahiz eta foru-arau honetako 21. eta 22. artikuluetan ezarritako arau bereziak. (...)».

Dohaintza-hartzaileak eskualdatzailearen odol bidezko zuzeneko lerroko ondorengoak diren heinean, kuota osoa dohaintzaren zenbatekoari 100eko 1,5eko tasa finkoa aplikatzearen emaitza izango da, ODZFaren 47. artikuluan adierazten den bezala, zeinaren arabera:

«Zergaren kuota osoa lortzeko, ondoren ageri diren tasa edo tarifen artean dagokiona aplikatuko zaio foru arau honetako VI. tituluaren adierazitako moduan kalkulaturiko likidazio-oinarriari, foru arau honetako 43. artikuluko 1. zenbakian zehazten diren ahaidetasun-graduaren arabera taldeak kontuan hartuta: a) I. taldea. Ehuneko 1,5eko zerga-tasa aplikatu beharko da. (...)».

Azkenik, esan behar da zergaren aitorpena (651 eredua) aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa dela, egintza edo kontratua gertatu edo egin den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, ODZFaren 69. artikulua arabera.

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen Kontsultak

Akordio-zk.	Zerga-kontzeptua	Kontsultaren mamia	Testua
AKEB 2022.2-SZ	SZ	SZ. Lurralde erkidean egoitza duen eta anbulantzietan, lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean, osasun-garraioko zerbitzuak ematen dituen 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa duen erakunde baten araugintza- eta ordainarazpen-eskumena, sozietateen gaineko zergari dagokionez.	Testura sartzeko esteka
AKEB 2022.3-BEZ	BEZ	BEZ. Lurralde erkidean egoitza duen eta anbulantzietan, lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean, osasun-garraioko zerbitzuak ematen dituen 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa duen erakunde baten araugintza- eta ordainarazpen-eskumena, BEZari dagokionez, eta Berehalako Informazio Horniduraren (BIH) ondoriozko betebeharrak zein administrazioen aurrean bete behar dituen.	Testura sartzeko esteka
AKEB 2023.1-PFEZ-BEZ	PFEZ – BEZ	PFEZ – BEZ. Pertsona fisiko baten egoitza fiskala eta PFEZa eta BEZa edo beste zerga batzuk ordainarazteko eskumena zein administrazioek duen zehaztea. Pertsona fisiko horren eskemaren arabera, bi lurraldeetan (erkidean eta foru-lurraldean) jarduten, bidaiatzen eta igarotzen du gaua astero.	Testura sartzeko esteka
AKEB 2023.2-PFEZ	PFEZ	PFEZ. - PFEZa ordainarazteko eskumena zein administrazioek duen, lurralde erkidean erroladatutako pertsona fisiko bati dagokionez. Ekitaldian zehar lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean bizi izan da eta jarduera partzialki lurralde erkidean, foru-lurraldean eta atzerrian garatu du.	Testura sartzeko esteka
AKEB 2023.3-SZ-BEZ-EJZ- Informazio-betebeharrak	SZ – BEZ – JEZ – INFORMAZIO-BETEBEHARRAK	SZ – BEZ – JEZ – INFORMAZIO-BETEBEHARRAK Sozietateen gaineko zergari, BEZari eta gainerako zergeri dagozkien zerga-betebeharrak eta zein administrazio den eskudun, bai eta informazio-betebeharrei dagokienez ere, egoitza fiskala lurralde erkidean duen merkataritza-erakunde baten kasuan. Merkataritza-erakunde horrek eragiketen zenbatekoaren ehunekoan ordaintzen ditu zergak (lurralde erkidean eta Nafarroan), eta haren jarduera, nagusiki, hainbat produktu lurralde erkidean eta foru-lurraldean banatzea da, azken lurralde horretan lokalik eta jarduerari atxikitako azpiegiturarik izan gabe.	Testura sartzeko esteka
AKEB 2023.4-ODZ	ODZ	ODZ. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren zerga-araubidea eta zein administrazio den eskudun, foru-lurraldean bizi den pertsona bati dagokionez. Hainbat pertsonaren aldeko testamentua egin du (batzuk lurralde erkidean bizi dira eta beste bat atzerrian), eta haren ondarea hainbat motatako ondasun higiezinak eta aktibo finantzarioek osatzen dute.	Testura sartzeko esteka

AKEB 2023.5.- PFEZ	PFEZ	PFEZ. - PFEZa ordainarazteko eskumena zein administraziook duen, pertsona fisiko bati dagokionez. Lantokia aldatu duelako eta osasun-arrazoiengatik, ekitaldi berean, aldi batzuetan, lurralde erkidean bizi izan da eta, beste aldi batzuetan, foru-lurraldean.	Testura sartzeko esteka
AKEB 2023.6.- ODZ	ODZ	ODZ. - Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ordainarazteko eskumena zein administraziook duen, kausatzaileen heriotzaren ondorioz zerga sortzen denean. Kausatzailea foru-lurraldean bizi izan zen etengabe, baina hil aurreko azken hilabeteetan lurralde erkidean bizi izan zen.	Testura sartzeko esteka

Kontsulta: 2022.8.4.2 SZ. – Lurralde erkidean egoitza duen eta anbulantzietan, lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean, osasun-garraioko zerbitzuak ematen dituen 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa duen erakunde baten araugintza- eta ordainarazpen-eskumena, sozietateen gaineko zergari dagokionez.

Egitateak

Kontsulta egin duen erakundeak Badalonan (Bartzelona) du egoitza soziala, eta 2020ko abuztuaren 1etik anbulantzietan osasun-garraioko zerbitzuak ematen ditu Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoe-tan. 2020ko ekitaldian, eragiketen zenbatekoa 26.232.795,54 eurokoa izan zen; Kataluniari % 70 inguru zegokion, eta Euskal Autonomia Erkidegoari (Bizkaia eta Araba) gainerako % 30a. Bestalde, 2021ean EAEn % 50etik gorakoa izango dela kalkulatzeko da. Agertutakoak adierazi du gaur egun sozietateen gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpenak Zerga Agentziaren aurrean aurkezten dituela.

Egindako galdera

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, aplikagarri zaion araudia eta zergaren ordainarazpena jakin nahi ditu.

Erantzuna

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak (Itunak) onartutako Ekonomia Itunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lotuneen aplikazioari buruz kontsulta honetan egindako galderen erantzuna itun horren 64 b) artikuluan horretarako ezarritako prozedurari jarraiki egin da, halako moldez non, galdera horiei dagokienez, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordean ordezkartza duten administrazio guz-tiak lotzen dituen, honela:

Araudia

Lehenik eta behin, sozietateen gaineko zergari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekono-mia-ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 14. artikulua aplikatu behar da. Zehazki, Ekonomia Itunaren Legearen 14. artikulua honako hau jasotzen du:

«Bat. Sozietateen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa, egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan. Hala ere, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dituzten subjektu pasiboek lurralde erkideko araudia bete beharko dute. Araudi autonomoa aplikatuko da baldin eta subjektu pasiboek egoitza fiskala lurralde erkidean badute, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago Euskadin egin badute. Salbuespenez, subjektu pasiboak talde fiskal baten parte badira, talde fiskal horren egoitza fiskala lurralde erkidean badago eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, orduan, araudi autonomoa aplikatuko da eragiketa guzti-guztiak Euskadin egin badira bakarrik. Bi. Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago. Ondasun-ematetzat eta zerbitzu-prestaziotzat joko dira balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak. Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, artikulua honetako Bat apartatuan aipatu den eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, ekitaldian egindako eragiketak proportzio berean urteko bihurtuko dira. Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela uler daiteke baldin eta 16. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan egiten baditu ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak (...).».

Beraz, sozietateen gaineko zerga arautzeko eskumena lurralde historikoek dute, eta horregatik ezarri behar dira araudi bat edo bestea, hau da, erkidea edo forala aplikatzeko arauak.

Ondorioz, egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboei (kasu honetan, suposizio horretatik abiatu gara) sozietateen gaineko zergari buruzko foru-araudia aplikatu ahal izateko, honako hau eskatzen da: a) aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izatea, eta b) ekitaldi horretan, eragiketen % 75 edo gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan egin izana, edo % 100, talde fiskal bateko kide diren zergadunak badira.

Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago. Ondasun-ematetzat eta zerbitzu-prestaziotzat joko dira balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.

Eragiketak egiteko lekuari dagokionez, Ekonomia Itunaren 16. artikulua honako hau gaineratzen du:

«Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira: (...) B) Zerbitzu-prestazioak: 1. Zerbitzu-prestazioak Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, lurralde horretatik ematen badira. (...) C) Aurreko A) eta B) letretan xedatutakoa gorabehera, honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira, eragiketak egiten dituen subjektu pasiboak egoitza fiskala Euskadiko lurraldean badauka: (...) 2. Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere».

Manu hori irakurrita, adierazi behar da anbulantziarako osasun-garraioko zerbitzuak erakunde emaileak egoitza fiskala duen lekuan ematen direla ulertuko dela.

Beraz, agertutakoak egoitza fiskala lurralde erkidean duenetik abiatuta, osasun-garraioko zerbitzu-prestazioak lurralde horretan egindakotzat joko dira. Aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, eta jarduera bakarra osasun-garraioko bada, araudi erkidea aplikatuko da.

Ordainarazpena

Ekonomia Itunaren 15. artikulua, sozietateen gaineko zergaren ordainarazpenari buruzkoak, honako hau aurreikusten du:

«Bat. Foru-aldundiei dagokie, ez beste inori, egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboek sozietateen gaineko zerga ordainaraztea, baldin eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen zenbatekoa gehienez ere 10 milioi eurokoa bada. Bi. Aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi euro baino handiagoa denean, subjektu pasiboek, egoitza fiskala edonon dutela ere, foru-aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko diete tributua, ekitaldian lurralde horietariko batean edo bestean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko, hurrengo artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekoetan emango da, bi dezimalekin biribilduta».

Horrela, gaur egun, aurreko ekitaldian 10 milioi euro baino gehiagoko eragiketen zenbatekoa zuten erakundeek bakarrik ordaindu behar dituzte zergak, egiten dituzten eragiketen zenbatekoaren proportzian, betiere eragiketak bi lurraldeetan, hau da, erkidean eta foralean egiten badituzte.

Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-ema-teak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Erakunde kontsultagileak Katalunian du egoitza fiskala, eta aurreko ekitaldian 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa izan du. Agertutakoak egiten duen jarduera guztia anbulantziako osasun-garraioaren zerbitzua bada, eragiketa horiek bere egoitza fiskala dagoen lekuan, alegia, Katalunian, egingakotzat joko dira, eta, beraz, erakundeak ez du Bizkaiko Foru Ogasun honen aurrean ordainduko sozietateen gaineko zergan; aitzitik, Estatuko Administrazioan ordaindu beharko du zerga osoa, Ekonomia Itunaren arabera, jarduera osoa lurralde erkidean garatu duela ulertzen baita.

Hori guztia jakinarazten dizugu Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 86. artikuluan aurreikusitako irismenarekin eta ondoreekin.

Kontsulta: 2022.8.4.3 BEZ. – Lurralde erkidean egoitza duen eta anbulantzietan, lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean, osasun-garraioko zerbitzuak ematen dituen 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa duen erakunde baten araugintza- eta ordainarazpen-eskumena, BEZari dagokionez, eta Berehalako Informazio Horniduraren (BIH) ondoriozko betebeharrak zein administrazioen aurrean bete behar dituen.

Egitateak

Kontsulta egin duen erakundeak Badalonan (Bartzelona) du egoitza soziala, eta 2020ko abuztuaren 1etik anbulantzietan osasun-garraioko zerbitzuak ematen ditu Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoe-tan. 2020ko ekitaldian, eragiketen zenbatekoa 26.232.795,54 eurokoa izan zen; Kataluniari % 70 inguru zegokion, eta Euskal Autonomia Erkidegoari (Bizkaia eta Araba) gainerako % 30a. Bestalde, 2021ean EAEn % 50etik gorakoa izango dela kalkulatzeko da. Agertutakoak adierazi du gaur egun sozietateen gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpenak Zerga Agentziaren aurrean aurkeztu dituela, eta BIH agentzia horri igortzen diola.

Egindako galdera

Aplikagarri zaion araudia eta zergaren ordainarazpena jakin nahi ditu, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, bai eta Berehalako Informazio Sistemaren (BIS) betebeharra zein administrazioan bete behar duen ere.

Erantzuna

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak (Itunak) onartutako Ekonomia Itunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lotuneen aplikazioari buruz kontsulta honetan egindako galderen erantzuna itun horren 64 b) artikuluan horretarako ezarritako prozedurari jarraiki egin da, halako moldez non, galdera horiei dagokienez, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordean ordezkaritza duten administrazio guztiak lotzen dituen, honela:

Araugintza-eskumena

Balio erantsiaren gaineko zergari buruz kontsulta-idazkian egindako galderaren harira, Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak ezartzen duenaren arabera, tributu itundua da, baina araudi erkidekoa. Zehazki, Ekonomia Itunaren 26. artikuluen arabera:

«Balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko. Lurralde historikoe-tako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuako Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango».

Beraz, araugintza-eskumena lurralde erkideko organo eskudunei dagokie; hala ere, ordainarazpena foru-lurraldeei badagokie —zerga itundua baita—, adierazi den bezala, lurralde historikoe-tako erakunde eskudunek aitorpen- eta sarrera-ereduak onetsi ahal izango dituzte, eta eredu horietan, gutxienez, lurralde erkideko datuen datu berberak jasoko dira. Era berean, likidazio-aldi bakoitzerako sarrera-epeak

ezarri ahal izango dituzte, eta epe horiek ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Ordainarazpena

Balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpenari dagokionez, lehenik eta behin, Ekonomia Itunaren 27. artikulua aplikatu behar da. Honako hau arautzen du:

«Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira: Lehenengoa. Euskadiko lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga osoa dagokien foru-aldundian ordaindu behar dute; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dute. Bigarrena. Lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zerga bi administrazioetan ordaindu behar dute, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Proportzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jasotako lotuneak erabili beharko dira. Hirugarrena. Aurreko urtean 10 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zerga Estatuko Administrazioan ordainduko dute, egoitza fiskala lurralde erkidean baldin badaukate; eta egoitza fiskala Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru-aldundian. Bi. Eragiketen zenbatekotzat honako hau joko da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago. Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 10 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan. Jardueran emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketetatik abiatuko da jarduketak proportzio berean urteko bihurtzeko. Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibok batek lurralde jakin batean jarduten duela uler daiteke baldin eta 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan egiten baditu ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak. (...)».

Beraz, zerga ordainarazteko eskumena duen zerga-administrazioa mugatzeko funtsezko elementuak egoitza fiskala, eragiketen zenbatekoa eta eragiketen kokapena direla baieztatu daiteke.

Horrenbestez, laburbilduz, zergaren ordainarazpena egoitza fiskalari dagokion administrazioarena izango da eskusiboki, aurreko urtean 10 milioi euro baino gehiagoko eragiketen zenbatekoa izan ez duten subjektu pasiboen kasuan, eragiketak non egin diren kontuan hartu gabe. Ostera, aurreko ekitaldian 10 milioi euro baino gehiagoko eragiketen zenbatekoa izan duten subjektu pasiboen kasuan, subjektu horiek jarduten duten lurraldeari (erkidea edo foru-lurraldea) dagokion administrazioari egokituko zaio, horietako bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan.

Zergadunak egoitza fiskalaren arabera edo eragiketak egiteko lekuaren arabera tributatzeko duen zehazteko, eragiketen zenbatekotzat honako hau joko da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Planteatutako kasuan, kontsulta-idazkian bertan jakinarazten da 10 milioi euroko eragiketen zenbatekoa gainditzen dela. Orduan, zergadunaren egoera hori izanik, eragiketak egiten dituen lekuaren arabera tributatu beharko du, Ekonomia Itunaren Legearen 28. artikuluan araututakoari jarraikiz.

Kontsulta egin duen erakundeak egindako eta balio erantsiaren gaineko zergaren mende dauden eragiketen kokapena zehazteko, Itunaren Legearen 28. Bat artikulua aplikatuko da. Artikulu horren B eta C letratan zerbitzu-prestazioen kokapena arautzen da, honela:

«Bat. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, zergaren mendeko eragiketen artetik honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat: (...) B) Zerbitzu-prestazioak: 1. Zerbitzu-prestazioak Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, lurralde horretatik ematen badira. (...) C) Aurreko letretan xedatutakoa gorabehera, honako eragiketa hauetan zerga ordainarazteko eskumena Estatuko Administrazioak edo foru-aldundi eskudunak izango du, subjektu pasiboaren egoitza fiskala lurralde erkidean edo Euskadin dagoen kontuan hartuta: (...) 2.a Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere. (...)».

Horrenbestez, anbulantzien osasun-garraioko zerbitzuei dagokienez, Ekonomia Itunaren ondoreetarako, zerbitzua ematen duen erakundearen egoitza fiskala dagoen lekuan kokatzen dira.

Hala eta guztiz ere, kontsultagileak berak aurreratu duenez, egiten dituen garraioak zergaren menpean daude, baina salbuetsita, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen (BEZL) 20.bat.15 artikuluan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan (BEZFA) ezarritakoa kontuan hartuta. Beraz, araudi horietako 94. artikulua arabera, ez dute eskubiderik sortzen jasandako kuotak kentzeko, eta Ekonomia Itunaren 29. artikulua arabera, eragiketa horiek ez dira zenbatzen zergaren likidazioen emaitza administrazio eskudunei zein proportziotan egozten zaien zehazteko.

Zehazki, Ekonomia Itunaren 29. artikulua, zergaren kudeaketari eta ikuskapenari buruzkoak, honako hau aurreikusten du (azpimarratutakoa dagokio):

«Bat. Zergaren likidazioen emaitza administrazio eskudunei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Kontraprestazio horiek kargapeko ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioei dagozkie, baita salbuetsiei ere kenkarirako eskubidea badakarte. Bi. Egutegiko urte bakoitzean behin-behingo aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira. Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio-aldietan behin-behinean aplikatu behar den proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatu du, beraren ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta; hala ere, azkenean erregularizazioa egingo da. Aurreko paragrafoan agindutakoa eragotzi gabe, honako kasu hauetan beste proportzio bat aplika daiteke, betiere ekonomia-itun honetako III. kapituluko 2. atalean aipatutako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeari jakinarazi ondoren: a) Bat-egitea, zatitzea eta aktiboen ekarpena. b) Lurralde erkidean edo foru-lurraldean jardueraren bat hasi, amaitu, zabaldu edo murrizten denean, baldin eta apartatu honetako lehen paragrafoan zehaztutako irizpidearen arabera kalkulatuak proportzioa nabarmen aldarazten bada. Aldakuntza nabarmena dela ulertuko da lurraldeetako edozeini aplikatu beharreko proportzioak portzentajezko 15 puntu gora edo behera, gutxienez, egiten duenean. Hiru. Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzean zergaren azken aitorten-likidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatu ditu —epe horretan egindako eragiketen arabera—, eta aurreko likidazio-aldietan administrazio bakoitzarekin egindako aitorten-likidazioak erregularizatu egingo ditu, dagokion moduan. Lau. Subjektu pasiboek zergaren aitorten-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena duten administrazioei. Aitorten-likidazio horietan, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazioetako bakoitzari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti. Bost. Beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan».

Esan bezala, erakunde kontsultagileak egoitza fiskala Katalunian du. Anbulantzietako osasun-garraioko zerbitzuak ematen ditu Bizkaian eta Araban, bai eta lurralde erkidean ere, eta aurreko ekitaldian 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa izan du. Hala ere, administrazio eskudunei BEZaren likidazioen emaitza zein proportziotan egotziko zaien zehazte aldera, ez dira kontuan hartzen zergaren menpean ez dauden ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak, ez eta BEZaren araudi erregularizatzailearen arabera kenkarirako eskubidea dakarten salbuetsiak ere. Beraz, kontsultaren xede den kasuan, kontsultagileak egin ditzakeen gainerako eragiketak ere kontuan hartu beharko dira.

Hortaz, kontsulta egin duen erakundeak Bizkaian egindako eragiketa bakarrik anbulantzietako osasun-garraioko zerbitzuak badira, horiek ez baitira zenbatzen eragiketen zenbatekoaren proportzioa zehazteko, Foru Ogasun honek ez du eskumenik izango zerga ordainarazteko, eta, horrenbestez, kontsultagileak ez ditu lurralde historiko horretan aurkeztu beharko BEZaren autolikidazioak.

Kontsultagileak egindako gainerako eragiketei dagokienez, baldin eta BEZaren menpe badaude eta salbuetsi ez badira edo salbuetsita egonda kenkarirako eskubidea badute, eragiketa horiek ituneko 28. Bat artikuluan ezarritako arauen arabera kokatuko dira. Zehazki, garraio-eragiketak direnean, manu horren C) arauaren 2. apartatuan adierazten den bezala, subjektu pasiboaren egoitza fiskala dagoen lekuan egindakoak direla ulertuko da.

BISren betebeharra zein administrazioen aurrean bete behar duen

Informazio-betebeharraren harira, Ekonomia Itunaren Legearen 46. artikulua honako hau xedatzen du:

«(...) Bi. Tributu-informazioa emateko orokorrean legez eskatzen diren betebeharrak betetzea helburu duten aitortpenak Estatuko Administrazioari edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari aurkeztu behar zaizkio, zeinek bere araudia betez, irizpide hauek kontuan harturik: a) Tributu-betebeharpekoek jarduera ekonomikoak egiten badituzte, euren egiten dituzten enpresa- edo lanbide-jarduerak egiaztatu eta ikertzeko eskumena daukan administrazioari. (...)».

Beraz, informazioa emateko betebeharra duenak jarduera ekonomikoak garatzen dituenek, kontsultaren xede den kasuan bezala, egiaztapena eta ikerketa egitea dagokion administrazioan aurkeztu beharko ditu informazioa emateko betebeharrak orokorrak, zerga-araudian aurreikusitakoak.

Ondore horietarako, Ekonomia Itunaren 29. artikulua, zergaren ikuskapenari buruzkoak, honako hau aurreikusten du:

«Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da: a) Zerga foru-aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko tributu-ikuskaritzen lana izango da. b) Zerga lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira: Lehenengoa. Egoitza fiskala lurralde erkidean daukaten subjektu pasiboak: Estatuko Administrazioako organoek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa. Organo horiek, era berean, subjektu pasiboak administrazio eskudun guztietan duen tributu-egoera erregularizatzeko lana hartuko dute, administrazio batari eta besteari dagokion tributazio-proportzioa barne. Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago Euskadiko lurraldean eginga badu —edo % 100, erakunde-talderako araubide berezian sartzen diren erakundeen kasuan—, zehaztutako lotuneen arabera, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo ditu egiaztapena eta ikerketa, Estatuko Administrazioarekiko elkarlana eragotzi gabe. Bigarrena. Egoitza fiskala Euskadiko lurraldean daukaten subjektu pasiboak: egoitza fiskalari dagokion foru-administrazioako organo eskudunek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa, Estatuko Administrazioarekiko elkarlana eragotzi gabe. Ondorioak administrazio eskudun guztietan izango ditu, administrazio horiei dagokien tributazio-proportzioa barne. Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago lurralde erkidean eginga badu, zehaztutako lotuneen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, foru-aldundiekiko elkarlana eragotzi gabe. Jarraituta horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-jarduketara horiek egin dituen administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada. Administrazio eskudunaren organo ikuskatzaileek euren jarduketan emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei. Hirugarrena. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, foru-aldundiek —zeinek bere lurralde barruan— egiaztapenak eta ikerketak egiteko

dagozkien ahalmenak izango dituzte. Baina foru-aldundien jarduketek ezin dute zergadunen artean inongo ondorio ekonomikorik izan, administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondorioz egindako behin betiko likidazioen inguruan. Laugarrena. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboarentzat ere ondorioak ekarriko ditu, likidatutako betebeharren inguruan, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea. Bosgarrena. Ikuskapen-eskumena ez duten tributu-administrazioek egiaztatu ahalko dituzte eskumen hori duen administrazioak egotzitako eragiketa-zenbatekoaren kalkulari eragin diezaioketen eragiketa guztiak, eragiketok egin diren lekua edozein dela ere, egindako jarduketa guztiak tributu-administrazio eskudunari jakinarazteko ondorioetarako soilik, eta horrek ez dio ondorio ekonomikorik sortuko zergadunari».

Ondorioz, interesatzen zaigunari dagokionez, kontuan hartuta galdegai diren eragiketa horiek guztiak helbide fiskalaren arabera kokatuta daudela, garraio-zerbitzu gisa, eta kontsulta egin duen erakundearen egoitza fiskala benetan lurralde erkidean badago, Estatuko Administrazioak izango du enpresa- edo lanbide-jarduerak egiaztatzeke eta ikertzeke eskumena, eta, orduan, administrazio horren aurrean bete beharko du BISren betebeharra.

Hori guztia jakinarazten dizugu Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 86. artikuluan aurreikusitako irismenarekin eta ondoreekin..

Kontsulta: 2023.4.3.X PFEZ – BEZ. **Pertsona fisiko baten egoitza fiskala eta PFEZa eta BEZa edo beste zerga batzuk ordainarazteko eskumena zein administrazio duen zehaztea. Pertsona fisiko horren eskemaren arabera, bi lurraldeetan (erkidean eta foru-lurraldean) jarduten, bidaiaitzen eta igarotzen du gaua astero.**

Kontsulta hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) 64.b) artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu da. Horren arabera:

«Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak eginkizun hauek izango ditu: (...) b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da. Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Kontsultaren edukia

Zerga-kontsulta aurkeztu zuen pertsona fisikoak azaltzen duenez, gaur egun Bizkian bizi da, bertan du egoitza fiskala, bertan burutzen du jarduera ekonomikoa eta zergak ere Bizkaian ordaintzen ditu, baina etorkizun hurbilean Logroñon biziko da, eta bertan izango du egoitza fiskala.

Kontsultagileak dio jarduera ekonomikoa Logroño eta Bilbo artean egiten jarraituko duela, eta Logroñoeko etxebizitzan egongo dela astelehenetik asteazkenera. Era berean, ostegunetan eta ostiraletan Bilbon izango da, bere autokarabanatik telelana egiten edo bezeroak bisitatzen.

Asteburuetan Bilbon izango da familiarekin.

Egindako galderak

Kontsultagileak jakin nahi du non ordaindu beharko dituen zergak (BEZa, PFEZ, etab.), azaldutakoaren arabera.

Erantzuna

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Ekonomia Itunak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) dagokionez, honako hau ezartzen du 6. artikuluko Bat apartatuan:

«Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari dagokio tributu hori ordainaraztea, baldin eta zergadunaren ohiko bizilekua Euskadin badago».

Ondorioz, kontsulta hau ebazteko, zergadunaren ohiko bizilekua non dagoen argitu behar dugu lehenengo eta behin, Ekonomia Itunean jasotako xedapenen arabera.

Ohiko bizilekuari dagokionez, Ekonomia Itunaren 43. artikulua Bat apartatuak honako hau ezartzen du:

«Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, pertsona fisiko egoiliarrek ohiko bizilekua Euskadin dutela ulertzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko egun gehien egotea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapen-egunaren bezperan amaitzen den aurreko urtebeteko egun gehien egotea, datatik datara zenbatuta, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraibideren gaineko zerga bereziari dagokionez.

Gainerako tributuei dagokionez, pertsona fisikoen ohiko bizilekua izango da tributuen sortzapen-egunean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako den bizileku bera.

Lurralde jakin batean egon den denbora zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere interesen gune nagusia; leku hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena eskuratzen duen lekua da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko kapital higigarriak sortutako errentak eta ondare-irabaziak, ez eta gardentasun fiskalaren araubidean —profesionala alde batera utzita— egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

(...)

Zazpi. Lurralde erkideko edo foru-lurraldeko egoiliarrek diren pertsona fisikoak beren ohiko bizilekua lurralde horietako batetik bestera aldatzen baldin badute, tributuetan behar diren bizileku berriaren arabera beteko dituzte aurrerantzean, bizileku berri hori lotunea baldin bada.

Gainera, apartatu honen arabera bizilekua ez dela aldatu ulertzen bada, pertsona fisikoek kasuan kasuko aitortpen osagarriak aurkeztu beharko dituzte, berandutze-interesak eta guzti.

Bizilekua aldatzearen helburu nagusia tributuetan gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriozik edukiko.

Bizileku berrian jarraian emandako denbora gutxienez hiru urtez luzatzen den kasuetan izan ezik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako, aldaketarik ez dela izan ulertuko da inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Bizilekua aldatzen den urtean edo hurrengoan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarria aldaketaren aurreko urtean izandako zerga-oinarria baino % 50 handiagoa izatea, gutxienez. Baterako tributazioa egiten denean, indibidualizazio-arauak erabiliz zehaztuko da.

b) Egoera hori sortzen den urtean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoriozko tributazio efektiboa aldaketa izan aurreko lurraldean aplikatu beharreko araudiarekin gertatuko zatekeen tributazio efektiboa baino txikiagoa izatea.

c) Ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean edukitzea, a) letran azaldutako egoera sortzen den urtearen hurrengoan, edo horren hurrengoan».

Manu horretan ezarritakoaren arabera, kontsultagilea ohiko egoiliar gisa hartu beharko da zergaldiko egun gehien egon den lurraldean, kontuan izanik, egonaldiaren denbora zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko dela kontuan.

Egonaldiaren irizpidea aplikatuta, ezin bada bizilekua zehaztu, interesen gune nagusiaren kokapenaren irizpidera jo beharko da.

Azkenik, bigarren irizpide horren bidez ere ezin bada bizilekua finkatu, zergaren autolikidazioa aurkezteko, aitortutako azken bizilekua hartuko da kontuan, PFEZaren ondorioetarako.

Aintzat izan behar da ohiko bizilekua zehaztea egitatezko kontua dela, eta zergadunak frogatu beharko duela —zerga-administrazioaren kudeaketa— eta ikuskapen-organismoek eskatuta, haiei baitagokie balioestea— zuzenbidean baliozkoak diren frogabideen bidez.

Ondorioz, kontsultagileak zehaztu eta, hala badagokio, egiaztatu beharko du, azaldutako irizpideen arabera, non egon den luzaroen zergaldian zehar.

Planteatutako kasuan, kontsultagilearen arabera, 2022an zehar Bizkaian egon da gutxienez urtarillaren 1etik kontsulta aurkeztu zuen egunera arte (2022ko maiatzaren 3ra arte); beraz, 2022an, gutxienez, 123 egun egon da Bizkaian. Etorkizun hurbilean (ez du zehaztu noiztik aurrera) Errioxa eta Bizkaia artean hasiko da bizitzen.

Zergadunak berak dioenez, argi dago 2022ko ekitaldian egun gehiago egongo dela Bizkaiko Lurralde Historikoan lurralde erkidean (Errioxa) baino; izan ere, maiatzaren 3ra arte Bizkaian egoteaz gain (gutxienez), Errioxara egindako lekualdaketa partzialetik aurrera, astelehen, astearte eta asteazkenetan Logroñoko etxebizitza batean egongo da astero, eta ostegun eta ostiraletan, berriz, Bilbora joango da. Bizkaira joateko autokarabana bat erabiliko du, eta, gainera, haren etxebizitza izango da ostegun eta ostiraletan, astero. Asteburuak (larunbat eta igandeak) Bizkaiko familia-etxebizitzan igaroko ditu familiarekin batera. Igandetan Logroñoko etxebizitzara itzuliko da eta astero antzeko plangintza izango du.

Hortaz, kontsultagileak deskribatutako egitateen arabera, uler liteke kontsultagilea Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi izan dela 2022ko ekitaldian, zergaldian egun gehiago eman dituelako bertan, haren interesen gune nagusia non dagoen kontuan hartu gabe. Beraz, egoera horretan, 2022ko ekitaldi horretako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu beharko luke.

2023ko ekitaldiaren harira, egitateen eta egiten dituen asteko bidaien eskemaren arabera, dagokion zenbaketa egin beharko da zergaldiko egun gehien zein lurraldetan igarotzen duen zehazteko.

Urte osoa Errioxa eta Bizkaia artean lekualdaketak egiten eman ondoren, ez dirudi kontsultagileak bi-daia-eskema berari eutsiko dionik urteko aste guztietan, inolako aldaketarik egin gabe; beraz, azkenean gertatzen diren egitate eta inguruabarrei erreparatu beharko zaie, eta kontsultagileak lurralde bakoitzean igarotzen duen denboraren zenbaketa aztertu beharko da guztira, egindako joan-etorriak zehazki kontuan hartuta.

Konsultagileak ezin badu bere ohiko bizilekua zehaztu aurreko irizpidearen arabera (egonaldiaren irizpidea) —kontsultaren xede den kasuan, gerta daiteke—, azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, Errioxara (partzialki) lekualdatzen denetik aurrera, kontsultagilea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena lortzen duen lurraldean —erkidean (Errioxan) edo foru-lurraldean— bizi dela ulertuko litzateke. Zerga-oinarri horretatik kanpo geldituko dira kapital higigarriak sortutako errentak eta ondare-irabaziak eta gardentasun fiskalaren araubidean egotzitako zerga-oinarriak (profesionalak izan ezik).

Azkenik, interesen gune nagusiaren irizpide horren arabera, kontsultagileak ezin badu bere ohiko bizilekua zehaztu, aitortutako azken bizilekua dagoen lurraldean bizi dela ulertuko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

2. Balio erantsiaren gaineko zerga

Balio erantsiaren gaineko zergari (BEZ) dagokionez, Ekonomia Itunak honako hau ezartzen du 26. artikuluan:

«Balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko. Lurralde

historikoetako erakunde eskudunek, nolanahi ere, aitorten- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango».

Bestalde, Ekonomia Itunaren 27. Bat artikulua honako hau dio BEZaren ordainarazpenari dagokionez:

«Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

Lehenengoa. Euskadiko lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga osoa dagokien foru-aldundian ordaindu behar dute; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dute.

Bigarrena. Lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zerga bi administrazioetan ordaindu behar dute, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Proporzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jasotako lotuneak erabili behar dira.

Hirugarrena. Aurreko urtean 10 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zerga Estatuko Administrazioan ordainduko dute, egoitza fiskala lurralde erkidean baldin badaukate; eta egoitza fiskala Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru-aldundian».

Eragiketen zenbatekoa Ekonomia Itunaren 27. Bi artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da:

«Bi. Eragiketen zenbatekotzat honako hau joko da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago».

Manu horietan ezarritakoaren arabera, BEZa ordainarazteko eskumena Ekonomia Itunak esleitzen du, hiru parametrotan oinarrituta: subjektu pasiboaren egoitza fiskala, aurreko urteko eragiketen zenbatekoa eta eragiketa horiek non egiten diren.

Kontsulta-idazkian kontsultagileak egindako eragiketen zenbatekoari buruzko informaziorik ez badago ere, kontsultagileak azaldutako datuetatik ondoriozta daiteke 10 milioi euroko muga baino txikiagoa izango dela. Era berean, kontsulta-idazkian jasotako adierazpenetatik ondorioztatzen denez, kontsultagileak lurralde erkidean zein foru-lurraldean burutzen du jarduera ekonomikoa.

Hipotesi horiei dagokienez, ondoriozta genezake kontsultagileak bere egoitza fiskalari dagokion administrazioari ordaindu beharko dizkiola zergak; izan ere, transkribatutako manuaren arabera, aurreko urtean 10 milioi euro baino gehiagoko eragiketen zenbatekoa izan ez duten zergadunek haien egoitza fiskalaren administrazioaren aurrean ordaindu beharko dituzte zergak, eragiketak edozein lekutan egiten dituela ere.

Ekonomia Itunaren 43. artikulua lau apartatuak honako hau dio:

«Laugarrena. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek egoitza fiskala Euskadin dutela ulertuko da:

a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak.

(...)».

Manu horretan ezarritakoaren arabera, Ekonomia Itunaren ondorioetarako eta BEZaren lotunea aplikatzeko, kontsultagileak egoitza fiskala ohiko bizilekua duen lurraldean duela kontuan hartu beharko da.

Ondorioz, kontsultagilearen ohiko bizilekua zehaztu ondoren, kontsulta honi emandako erantzunaren aurreko apartatuan adierazitako irizpideen arabera, kontsultagileak bertan izan beharko du egoitza fiskala, Ekonomia Itunaren 27. Bat artikuluan ezarritako lotunea aplikatze aldera.

Kontsultagilearen egoitza fiskala foru-lurraldean badago, lurraldearen arabera eskumena duen aldundian egokituko zaio BEZagatik tributatzea. Aitzitik, egoitza fiskala lurralde erkidean badu, BEZaren autolikidazioak Zerga Administrazioako Estatu Agentziari aurkeztu beharko dizkio.

Kontsulta: 2023.4.3.X' PFEZ. - PFEZa ordainarazteko eskumena zein administrazioek duen, lurralde erkidean erroldatutako pertsona fisiko bati dagokionez. Ekitaldian zehar lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean bizi izan da eta jarduera partzialki lurralde erkidean, foru-lurraldean eta atzerrian garatu du.

Kontsultaren edukia

Kontsultagilea pertsona fisikoa da, eta 2021eko ekitaldira arte Bizkaian izan du egoitza fiskala. 2021ean Getxo eta Bartzelona artean bizi izan zen. Helbide fiskala Bizkaian izan zuen, baina Bartzelonan egon zen erroldatuta, egoitza Katalunian duen enpresa batek kontratatu baitzuen. Jarduera profesionala Katalunian garatu zuen, baina Italiara, Txekiar Errepublikara eta EAera maiz bidaiatu zuen.

Egindako galdera

Azaldutako egitateetan oinarrituta, kontsultagileak jakin nahi du non aurkeztu behar duen 2021eko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena.

Erantzuna

Kontsulta hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) 64.b) artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu da. Horren arabera:

«Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordeak eginkizun hauek izango ditu: (...) b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da. Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazioek ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Kontsulta-idazkian planteatutako galderari dagokionez, lehenik eta behin, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) 6. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da. Horren arabera:

«Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari dagokio tributu hori ordainaraztea, baldin eta zergadunaren ohiko bizilekua Euskadin badago. Bi. Familia-unitate bereko zergadunek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan baldin badaukate eta baterako tributazioa egitea erabakitzen badute, likidazio-oinarri handiena duen kidearen ohiko bizilekuko lurraldeko administrazioak izango du eskumena; likidazio-oinarria kasuan kasuko lurraldeko araudia betez kalkulatu da».

Hortik ondorioztatzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga araudi autonomoko zerga itundua dela, eta lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari dagokiola hura ordainaraztea, baldin eta zergadunaren ohiko bizilekua EAEn badago.

Bizilekua beste lurralde batzuetan duten zergadunek, baldin eta familia-unitate bat osatzen badute eta baterako tributazioa egitea erabakitzen badute, dagokion araudiaren arabera kalkulaturako likidazio-oinarri handiena duen kideak ohiko bizilekua duen tokiko administrazioaren aurrean tributatu beharko dute.

Arau horiek Ekonomia Itunaren 43. artikuluan adierazitakoarekin osatu behar dira, honako hau ezartzen baitu:

«Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, pertsona fisiko egoiliarrek ohiko bizilekua Euskadin dutela ulertzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren: Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko egun gehien egotea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez; (...) Lurralde jakin batean egon den denbora zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan. Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan badu. Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere. Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako. (...) Lau. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek egoitza fiskala Euskadin dutela ulertuko da: a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak. (...) Zazpi. Lurralde erkideko edo foru-lurraldeko egoiliarrek diren pertsona fisikoak beren ohiko bizilekua lurralde horietako batetik bestera aldatzen baldin badute, tributatu-betebeharrak bizileku berriaren arabera beteko dituzte aurrerantzean, bizileku berri hori lotunea baldin bada. Gainera, apartatu honen arabera bizilekua ez dela aldatu ulertzen bada, pertsona fisikoek kasuan kasuko aitortu osagarriak aurkeztu beharko dituzte, berandutze-interesak eta guzti. Bizilekua aldatzearen helburu nagusia tributatu gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriozik edukiko. Bizileku berrian jarraian emandako denbora gutxienez hiru urtez luzatzen den kasuetan izan ezik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako, aldaketarik ez dela izan ulertuko da inguruabar hauek gertatzen direnean: a) Bizilekua aldatzen den urtean edo hurrengoan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarria aldaketaren aurreko urtean izandako zerga-oinarria baino % 50 handiagoa izatea, gutxienez. Baterako tributazioa egiten denean, indibidualizazio-arauak erabiliz zehaztuko da. b) Egoera hori sortzen den urtean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoriozko tributazio efektiboa aldaketa izan aurreko lurraldean aplikatu beharreko araudiarekin gertatuko zatekeen tributazio efektiboa baino txikiagoa izatea. c) Ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean edukitzea, a) letran azaldutako egoera sortzen den urtearen hurrengoan, edo horren hurrengoan».

Aurreko guztiarekin bat etorritik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek non tributatu behar dituzten zehazteko, kasuan kasuko zergaldian ohiko bizilekua non duten hartu behar dugu aintzat, Ekonomia Itunaren 43. artikuluan aurreikusitako arauen arabera.

Zehazki, Ekonomia Itunaren 43. artikuluan adierazitakoaren arabera, Espainiako lurraldean bizi diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dutela ulertzeko, honako irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren:

- a) Egonaldiaren irizpidea. Euskal Autonomia Erkidegoan zergaldiko egun gehien egotea. Zenbaketa hori egiteko, ez da deskontatu behar aldi batez kanpoan izandako denbora. Horri dagokionez, pertsona bat Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan badu, kontrako frogarik ez dagoen artean.
- b) Interesen gune nagusiaren irizpidea. Aurreko irizpidearen arabera zergadun baten bizilekua zehazterik ez dagoen kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dela ulertuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena bertan lortzen duenean. Zerga-oinarri horretatik kanpo geldituko dira kapital higigarriak sortutako errentak eta ondare-irabaziak eta gardentasun fiskalaren araubidean egotzitako zerga-oinarriak (profesionalak izan ezik).

- c) Aitortutako azken bizilekuaren irizpidea. Azkenik, ezin bada subjektu pasiboaren ohiko bizilekua zehaztu aurreko irizpideen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dela ulertuko da aitortutako azken bizilekua bertan badu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Adierazi den bezala, arau horiek hurrenez hurren aplikatu behar dira, eta, beraz, lehenik eta behin egonaldiaren irizpidea aztertu behar da. Irizpide hori aplikatuta, bizilekua zehazterik ez badago, interesen gune nagusiaren kokapenera joko da. Azkenik, bigarren arau horren bidez ere ezin bada zergadunaren bizilekua finkatu, zergaren autolikidazioa aitortutako azken bizilekua kontuan hartuta aurkeztu behar du zergadunak. Gainera, bizilekua aldatzearen helburu nagusia tributu gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriozik edukiko, Ekonomia Itunaren 43.7 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Aurreko guztiarekin bat etorritik, zergaldi bakoitzean, kontsultagilea lurralde erkidean edo EAEko lurraldean bizi dela ulertuko da, lehenik eta behin, zergaldiko egun gehien lurralde batean edo bestean egon izanaren arabera; kontuan hartuko da aldi batez kanpoan izandako denbora. Ohiko etxebizitza bi lurraldeetako batean badago (erkidea edo foru-lurraldea), ohiko bizilekua toki horretan dagoela ulertuko da.

Ez da xehetasunez zehazten Getxo eta Bartzelona artean bizitzeak zer esan nahi duen (kontsulta-idazkiaren arabera); izan liteke bi etxebizitza dituela, eta txandaka bizi dela horietan, edo 2021ean Bartzelonara lekualdatu zela. Hortaz, egitatezko inguruabarrei erreparatu beharko litzaieke egonaldiaren zenbaketa egiteko. Gainera, kontuan izan behar da lan-arrazoiengatik egindako joan-etorriak, hau da, aldi batez kanpoan egotea eragin dutenak, zenbatu egingo direla kontsultagilea kokatu den lekuko egonaldiaren irizpiderako (hau da, kanpoan egon den denbora horretan beste lurraldera joan ez balitz bezala).

Aurreko irizpidearen arabera (egonaldiaren irizpidea) ohiko bizilekua zehaztu ezin badu, kontsultagilea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena lortzen duen lurraldean —erkidean edo foru-lurraldean— bizi dela ulertuko da. Zerga-oinarri horretatik kanpo geldituko dira kapital higigarriak sortutako errentak eta ondare-irabaziak eta gardentasun fiskalaren araubidean egotzitako zerga-oinarriak (profesionalak izan ezik).

Azkenik, interesen gune nagusiaren irizpide horren arabera, kontsultagileak ezin izango balu bere ohiko bizilekua zehaztu, aitortutako azken bizilekua dagoen lurraldean bizi dela ulertuko litzateke (kasu honetan, dirudienez, Bizkaian), pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Ohiko bizilekua, eta zehazkiago, zergadun batek lurralde batean edo bestean egiten duen egonaldia, egitatezko kontua da, eta zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez egiazta daiteke.

Ondorio horietarako, aipatu behar da bizileku bat ohikotzat hartzeko, ez dela erroldatzea hartzen kontuan, ezta kontsultagileak foru-aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean halakotzat aitortu ahal izan duen egoitza ere; aitzitik, bertan benetan eta etengabe bizi izana soilik.

Udal-erroldaren ziurtagiria elementu garrantzitsua da ohiko bizilekua zein den baloratzeko orduan, baina ez da irizpide bakarra, ezta eztaba daezina ere.

Beraz, uler daiteke erroldatzea eta aitortutako egoitza higiezin desberdinetan egoteak ez duela eragozten, berez, egoitza hori ohiko bizilekutzat hartzea agertutakoarentzat, betiere bertan bizi bada kontsulta honetan adierazitako moduan, eta hala egiaztatzen badu zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez. Kudeaketa- eta ikuskapen-organoei dagokie egitateak eta, hala badagokio, aurkezten diren ebidentziak baloratzeko eskumena.

Kontsulta: 2023.5.3.X SZ – BEZ – JEZ – INFORMAZIO-BETEBEHARRAK. **Sozietateen gaineko zergari, BEZari eta gainerako zergei dagozkien zerga-betebeharrak eta zein administrazio den eskudun, bai eta informazio-betebeharrei dagokienez ere, egoitza fiskala lurralde erkidean duen merkataritza-erakunde baten kasuan. Merkataritza-erakunde horrek eragiketen zenbatekoaren ehunekoan ordaintzen ditu zergak (lurralde erkidean eta Nafarroan), eta haren jarduera, nagusiki, hainbat produktu lurralde erkidean eta foru-lurraldean banatzea da, azken lurralde horretan lokalik eta jarduerari atxikitako azpiegiturarik izan gabe.**

Kontsultaren edukia

Kontsulta egin duen erakundea egoitza soziala eta fiskala Bartzelonan duen enpresa bat da, eta haren objektu sozial da, besteak beste, zuzenean edo zeharka haurrentzako jantziak modu guztietan banatzea eta saltzea, bai eta haurren munduko hainbat artikulua ere, hala nola oinetakoak, kiroleko artikulua, haurtzaintzakoak, jostailuak, paper-gauzak eta abar. Zergei dagokionez, kontsultagilea enpresa handizat hartzen da haren fakturazio-bolumenagatik. Sozietateen gaineko zerga lurralde erkidean aurkeztu du, zenbait ehuneko jakin fakturatzen ditu Nafarroako Foru Komunitatean (% 0,55), eta hilero balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpenak aurkeztu ditu BISren bidez. Agertutakoak, bere jarduera gauzatzean, handizka saltzen ditu aipatutako produktuak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan ez du jarduerari atxikitako lokalik, hala nola zuzendaritza-zentroak, administrazio-bulegoak, kalkuluzentroak, biltegiak edo gordailuak. Azken batean, kontsultagileak adierazi du lurralde horretan dauden merkataritza-lokalak baino ez dituela salgaiz hornitzen.

Egindako galdera

Bizkaiko Lurralde Historikoan zer zerga-betebehar dituen jakin nahi du. Bereziki, zentsu-aitorpenak, sozietateen gaineko zergaren aitorpena, balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpena edo deskribatutako jardueratik eratorritako beste edozein aitorpen edo zerga aurkeztu behar duen.

Erantzuna

Kontsulta hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) 64.b) artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu da. Horren arabera:

«Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak eginkizun hauek izango ditu: (...) b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsitza joko da. Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Planteatutako kasuan araugintza- eta ordainarazpen-eskumena aztertzen hasi aurretik, azpimarratu behar dugu, kontsulta egin duen erakundeak dioenez, egoitza fiskala Bartzelonan duela, eta, beraz, erantzuna ematean, horretan oinarritzen gara.

Edonola ere, besterik gabe, Ekonomia Itunaren Legearen 43. artikulua arabera:

«(...) Lau. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek egoitza fiskala Euskadin dutela ulertuko da: (...) b) Sozietateen gaineko zergaren mende dauden pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute egoitza soziala eta, betiere, egoitza sozial horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabiltzaile egoitza non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan. (...)».

Halaber, aurkeztutako idazkian adierazten denez, erakundeak sozietateen gaineko zerga (200 eredu) lurralde erkidean aurkeztu du, zenbait ehuneko Nafarroako Foru Komunitatean fakturatzen ditu (% 0,55), eta hilero balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpenak aurkeztu ditu BISren bidez.

Illo horretan, eta aipatzen den Nafarroako Foru Komunitateko tributazio-ehunekoari dagokionez, Auzitegi Gorenak 2014ko azaroaren 13ko epaian (348/2013 errekurtsoa), 2014ko azaroaren 14ko epaian (257/2013 eta 347/2013 errekurtsoak) eta 2014ko azaroaren 17ko epaian (273/2013 errekurtsoa) adierazitakoarekin bat etorritik, Ekonomia Itunaren 14. Bat artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta sozietateen gaineko zerga ordaintzen duten zergadunek Nafarroako Foru Komunitatean egindako eragiketak lurralde erkidean egindakotzat hartu behar dira (eta ez foru-lurraldean). Beraz, uler daiteke Nafarroako Foru Komunitatean egindako eragiketak lurralde erkidean egindako eragiketatzat hartzen direla Ekonomia Itunaren ondorioetarako.

Balio erantsiaren gaineko zerga

Balio erantsiaren gaineko zergaren inguruan kontsulta-idazkian egindako galderaren harira, Ekonomia Itunaren tributu itundu gisa arautzen da, baina araudi erkidekoa.

Zehazki, Ekonomia Itunaren 26. artikulua arabera:

«Balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko. Lurralde historikoe-tako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango».

Beraz, araugintza-eskumena lurralde erkideko organo eskudunei dagokie; hala ere, ordainarazpena foru-lurraldeei badagokie —zerga itundua baita—, adierazi den bezala, lurralde historikoe-tako erakunde eskudunek aitorpen- eta sarrera-ereduak onetsi ahal izango dituzte, eta eredu horietan, gutxienez, lurralde erkideko datuen datu berberak jasoko dira. Era berean, likidazio-aldi bakoitzerako sarrera-epeak ezarri ahal izango dituzte, eta epe horiek ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpenari dagokionez, lehenik eta behin, Ekonomia Itunaren 27. artikulua aplikatu behar da, balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpenari buruzkoa. Honako hau arautzen du:

«Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira: Lehenengoa. Euskadiko lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga osoa dagokien foru-aldundian ordaindu behar dute; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten duten Estatuko Administrazioan ordaindu behar dute. Bigarrena. Lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zerga bi administrazioetan ordaindu behar dute, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Proportzio hori zehazteko,

hurrengo artikuluan jasotako lotuneak erabili beharko dira. Hirugarrena. Aurreko urtean 10 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zerga Estatuko Administrazioan ordainduko dute, egoitza fiskala lurralde erkidean baldin badaukate; eta egoitza fiskala Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru-aldundian. Bi. Eragiketen zenbatekotzat honako hau joko da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago. Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 10 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan. Jardueran emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketetatik abiatuko da jarduketak proportzio berean urteko bihurtzeko. Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibok batek lurralde jakin batean jarduten duela uler daiteke baldin eta 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan egiten baditu ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak. (...)».

Beraz, zerga ordainarazteko eskumena duen zerga-administrazioa mugatzeko funtsezko elementuak egoitza fiskala, eragiketen zenbatekoa eta eragiketen kokapena direla baieztatu daiteke.

Horrenbestez, laburbilduz, zergaren ordainarazpena egoitza fiskalari dagokion administrazioarena izango da eksklusiboki, aurreko urtean 10 milioi euro baino gehiagoko eragiketen zenbatekoa izan ez duten subjektu pasiboen kasuan —zenbateko hori Ekonomia Itunaren arabera kalkulatu da—, eragiketak non egin diren kontuan hartu gabe. Ostera, aurreko ekitaldian 10 milioi euro baino gehiagoko eragiketen zenbatekoa izan duten subjektu pasiboen kasuan, subjektu horiek jarduten duten lurraldeari (erkidea edo foru-lurraldea) dagokion administrazioari egokituko zaio, horietako bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan.

Zergadunak egoitza fiskalaren arabera edo egiten dituen eragiketen lotuneen arabera tributatzen duen zehazteko, eragiketen zenbatekotzat honako hau joko da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Planteatutako kasuan, kontsulta-idazkian bertan azaltzen denez, kontsulta egin duen erakundea enpresa handitzat hartzen da haren fakturazio-bolumenagatik. Sozietateen gaineko zerga (200 eredu) lurralde erkidean aurkeztu du, zenbait ehuneko Nafarroako Foru Komunitatean fakturatzen ditu (% 0,55), eta hilero balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpenak aurkeztu ditu BISren bidez.

Erakunde bat enpresa handitzat jotzeko ezartzen den kontzeptua eta magnitudea eta Nafarroarekiko Hitzarmen Ekonomikoan eragiketen zenbatekoaren tributazioaren ondorioetarako aurreikusten den atalasea Ekonomia Itunean ondorio horietarako aurreikusitakoarekin bat ez datozen heinean, esan behar dugu emandako datu horiekin ezin dela zehaztu eragiketen zenbatekoak 10 milioi euroak gainditzen dituen ala ez. Datu hori funtsezkoa izan daiteke enpresaren tributazioa ezartzeko, Ekonomia Itunak araututakoaren arabera.

Aurreko ekitaldian eragiketen zenbatekoak 10 milioi euroak gainditu bazituen, eragiketak non kokatu ziren zehaztu beharko da.

Kontsulta egin duen erakundeak egindako eta balio erantsiaren gaineko zergaren mende dauden eragiketen kokapena zehazteko, Ekonomia Itunaren 28. artikulua aplikatu da. Honako hau agintzen du:

«Bat. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, zergaren mendeko eragiketen artetik honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat: A) Ondasun-emateak: 1. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailaren esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu egin behar badira, bidalketa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, ematea

hantxe egin dela ulertuko da. Arau horrek salbuespen hauek izango ditu: a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta entregatzea egin behar duenak berak eraldatu baditu, emate horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada. b) Emateak direla-eta industriako elementuren batzuk Euskaditik kanpora instalatu behar direnean, emate horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira baldin eta gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin behar badira eta instalatu edo muntatzeko kostua ez bada kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa izan. Aldiz, elementu industrialen emateak direla-eta Euskadiko lurraldean instalazioen bat egin behar denean, gertatu eta fabrikatzeko lanak lurralde erkidean egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa ez bada, emate horiek ez dira Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko. (...)».

Ondorioz, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, zergadunek:

1. Aurreko ekitaldian 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa badute, dagokien urte naturalean jarduten duten lurraldeetako (erkideak edo foru-lurraldeak) administrazioetan ordaindu beharko dituzte zergak, urte natural horretan lurralde bakoitzean egiten dituzten kargapeko ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioei edo kenkarirako eskubidea dakarten salbuetsiei dagozkien kontraprestazioen zenbatekoaren proportzioan (balio erantsiaren gaineko zerga kenduta), Ekonomia Itunaren 28. artikuluko kokapen-arauen arabera.
Hala ere, logikoa denez, EAEko lurraldean bakarrik jarduten badute, dagokien foru-aldundiei ordainduko diete zerga osoa, eta, oster, lurralde erkidean bakarrik jarduten badute, Estatuko Administrazioari.
2. Aurreko ekitaldian 10 milioi euroko edo gutxiagoko eragiketen zenbatekoa badute, egoitza fiskala duten lurraldeko administrazioaren aurrean ordainduko dituzte zergak.

Goian transkribatutako Ekonomia Itunaren 28. Bat artikulua A) letraren 1. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, ondasun higigarri gorpuzdunen emateak –salbuetsita daude eragiketa egiten duenak berak eraldatutakoak eta instalatu egin behar diren elementu industrialak– zergadunak eskuratzailaren esku jartzen dituen lurraldean egindakotzat joko dira. Kasuan kasuko ondasunak eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu behar direnean, bidalketa edo garraioaren hasieran ondasunak aurkitzen diren lekuan burututzat ulertuko dira emateak.

Hemen interesatzen zaigunerako, Ekonomia Itunaren 28. Bat artikulua A) letraren 1. apartatuan jasotako kokapen-arau hori Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarritako irizpideen arabera interpretatu behar da.

Aipatutako lotuneen arabera, eta Auzitegi Gorenak gaiari buruz emandako jurisprudentziari jarraiki horiei eman behar zaien interpretazioaren arabera, ondasun higigarrien emateak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatu behar diren heinean, horiek, aldi berean, Bizkaia esleituko zaizkio (eta ez gainerako foru-lurraldeei) eskuratzailaren esku lurralde historiko horretatik jartzen direnean, eta, eskuratzailaren esku jartzeko garraiatzen diren ondasunen kasuan, bidalketa edo garraioaren hasieran lurralde historiko horretan daudenean.

Planteatutako kasuan, kontsulta egin duen erakundeak handizka saltzen ditu jantziak, oinetakoak, larrukiak, modako osagarriak, lurringintzako eta edertasuneko produktuak, kiroleko artikulak, haurtzaintzakoak, jostailuak, opariak, apaintetarako artikulak, paper-gauzak eta imitaziozko bitxiak. Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoan (ezta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde batzuetan ere, ulertzen denez) ez du jarduerari zuzenean edo zeharka atxikitako lokalik, hala nola zuzendaritza-zentroak, administrazio-bulegoak, kalkulu-zentroak, biltegiak edo gordailuak. Hau da, merkataritza-sozietateak ez du merkataritza-lokal propiorik artikulak horiek jendeari saltzeko, eta Bizkaian duen jarduera bakarrik lurralde horretan dauden merkataritza-lokalak salgaiz hornitzea da. Kontsultaren zehaztapenak ikusita, badirudi, eta asumitzen da, eragiketak egiteko, kontsultagileak ez duela Bizkaian kokatutako kanpoko instalaziorik erabiltzen, nondik, adibidez, salgaiak bana ditzakeen. Lurralde horretan (Bizkaia) dauden merkataritza-lokalei salgaiak hornitzera mugatzen da.

Horrenbestez, baldintza horietan, ez da ulertzen ondasun horiek Bizkaitik jartzen direnik eskuratzaillearen esku, ez eta, bereziki, eskuratzaillearen esku jartzeko garraiatu behar diren ondasunak izanik, bidalketaren edo garraioaren hasieran ondasun horiek Bizkaian aurkitzen direnik ere (Auzitegi Gorenak adierazi duen moduan); aitzitik, badirudi ondasun horiek lurralde erkideetik jarriko direla esku, adierazitako baldintzetan. Beraz, eragiketa horiek ez dira Bizkaian kokatukotzat hartuko.

Aurrekoaren ondorioz, agertutakoaren egoitza soziala eta fiskala lurralde erkidean dagoela eta, aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera, ondasun-emateak lurralde erkidean egin direla kontuan hartuta, agertutakoak ez ditu Bizkaiko Lurralde Historikoan aurkeztu beharko balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpenak, eragiketen zenbatekoa edozein duela ere.

Eta guzti horren harira, Ekonomia Itunaren 29. artikulua aplikatzen da. Hau dio:

«Bat. Zergaren likidazioen emaitza administrazio eskudunei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Kontraprestazio horiek kargapeko ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioei dagozkie, baita salbuetsiei ere kenkarirako eskubidea badakarte. (...) Lau. Subjektu pasiboek zergaren aitorpen-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena duten administrazioei. Aitorpen-likidazio horietan, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazioetako bakoitzari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti. (...)»

Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko zergari dagokionez ere, Ekonomia Ituna aplikatu behar da; 14. artikulua honako hau jasotzen du:

«Bat. Sozietateen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa, egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan. Hala ere, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dituzten subjektu pasiboek lurralde erkideko araudia bete beharko dute. Araudi autonomoa aplikatuko da baldin eta subjektu pasiboek egoitza fiskala lurralde erkidean badute, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago Euskadin egin badute. Salbuespenez, subjektu pasiboak talde fiskal baten parte badira, talde fiskal horren egoitza fiskala lurralde erkidean badago eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, orduan, araudi autonomoa aplikatuko da eragiketa guzti-guztiak Euskadin egin badira bakarrik. Bi. Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago. Ondasun-ematetzat eta zerbitzu-prestaziotzat joko dira balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak. Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, artikulua honetako Bat apartatua aipatu den eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, ekitaldian egindako eragiketak proportzio berean urteko bihurtuko dira. Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela uler daiteke baldin eta 16. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan egiten baditu ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak. (...)»

Beraz, sozietateen gaineko zerga arautzeko eskumena lurralde historikoek dute —balio erantsiaren gaineko zergaren kasuan ez bezala—, eta horregatik ezarri behar dira araudi bat edo bestea, hau da, erki-dea edo forala aplikatzeko arauak.

Ondorioz, egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboak (kasu honetan, suposizio horretatik abiatu gara) sozietateen gaineko zergari buruzko foru-araudia aplikatu ahal izateko, honako hau eskatzen da: a) aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izatea, eta b) ekitaldi horretan, eragiketen % 75 edo gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan egin izana, edo % 100, talde fiskal

bateko kide diren zergadunak badira. Eragiketak kokatzeko, itunaren 16. artikulua hartu behar da kontuan.

Egoitza fiskala lurralde erkidean eta 10 milioi euroko edo gutxiagoko eragiketen zenbatekoa duten subjektu pasiboek Estatuko lurraldeko araudia aplikatuko dute.

Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago. Ondasun-ematetzat eta zerbitzu-prestaziotzat joko dira balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.

Sozietateen gaineko zergaren ordainarazpenari dagokionez, Ekonomia Itunaren 15. artikulua honako hau xedatzen du:

«Bat. Foru-aldundiei dagokie, ez beste inori, egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboek sozietateen gaineko zerga ordainaraztea, baldin eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen zenbatekoa gehienez ere 10 milioi eurokoa bada. Bi. Aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi euro baino handiagoa denean, subjektu pasiboek, egoitza fiskala edonon dutela ere, foru-aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko diete tributua, ekitaldian lurralde horietariko batean edo bestean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko, hurrengo artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekoetan emango da, bi dezimalekin biribilduta».

Sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako, eragiketak egiteko tokiari dagokionez, Ekonomia Itunaren 16. artikulua honako hau arautzen du:

«Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira: A) Ondasun-emateak: 1. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailaren esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu egin behar badira, bidalketa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da. Arau horrek salbuespen hauek izango ditu: a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta entregatzea egin behar duenak berak eraldatu baditu, emate horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada. b) Emateak direla-eta industriako elementuren batzuk Euskaditik kanpora instalatu behar direnean, emate horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira baldin eta gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin behar badira eta instalatu edo muntatzeko kostua ez bada kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa izan. Aldiz, elementu industrialen emateak direla-eta Euskadiko lurraldean instalazioen bat egin behar denean, gertatu eta fabrikatzeko lanak lurralde erkidean egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa ez bada, emate horiek ez dira Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko. (...) D) Artikulu honetan zehaztutako irizpideen arabera atzerrian egindakotzat hartzen diren eragiketak administrazio batari edo besteari eratzikiko zaizkio, gainerako eragiketetan erabiltzen den proportzio berberarekin».

Hori guztia dela eta, tributatzeko zer aukera dauden aztertu behar dugu planteatutako kasurako (egoitza fiskala lurralde erkidean du):

1. Lurralde erkidean bakarrik ordaindu beharko dituzte zergak egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko ekitaldian 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa izan ez badute, eragiketak egiten dituzten lekua edozein dela ere. Irizpide bera aplika daiteke araugintza-eskumenari dagokionez.
2. Lurralde erkidean bakarrik ordaindu beharko dituzte zergak egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko ekitaldian 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa izan badute, baina eragiketa guztiak lurralde horretan kokatuta badituzte. Irizpide bera aplika daiteke ar-

augintza-eskumenari dagokionez, baina kasu horretan aurreko ekitaldiko eragiketen kokapena aztertu behar da.

3. Aurreko urtean 10 milioi eurotik gorako eragiketen zenbatekoa izan badu eta bi lurraldeetan (lurralde erkidean eta EAEn) jarduten badu, bi administrazioen aurrean tributatu du, aribideko urteko eragiketen zenbatekoaren proportzioan. Kasu horretan, aplikatu behar den araudia aurreko ekitaldian lurralde erkidean eta EAEn egindakotzat jotzen den eragiketen zenbatekoaren arabera izango da, EAEn egindako eragiketak % 75era iristen diren edo ez kontuan hartuta.

Goian transkribatutako Ekonomia Itunaren 16. artikularen A) letraren 1. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, ondasun higigarri gorpuzdunen emateak –salbuetsita daude eragiketa egiten duenak berak eraldatutakoak eta instalatu egin behar diren elementu industrialak– zergadunak eskuratzaileraren esku jartzen dituen lurraldean egindakotzat joko dira, bai sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako, bai balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako. Kasuan kasuko ondasunak eskuratzaileraren esku jartzeko garraiatu behar direnean, bidalketa edo garraioaren hasieran ondasunak aurkitzen diren lekuan burututzat ulertuko dira emateak.

Aipatutako lotuneen arabera, eta Auzitegi Gorenak gaiari buruz emandako jurisprudentziari jarraikiz horiei eman behar zaien interpretazioaren arabera, ondasun higigarrien emateak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatu behar diren heinean, horiek, aldi berean, Bizkaia esleituko zaizkio (eta ez gainerako foru-lurraldeei) eskuratzaileraren esku lurralde historiko horietatik jartzen direnean, eta, eskuratzaileraren esku jartzeko garraiatzen diren ondasunen kasuan, bidalketa edo garraioaren hasieran lurralde historiko horretan daudenean.

Ondorio horietarako, sozietateen gaineko zergaren eremura eraman daiteke aurreko puntuan adierazitakoa, kontsultagileak egindako eragiketen kokapenari dagokionez, Ekonomia Itunaren ondorioetarako, BEZaren eremuan.

Aurrekoaren ondorioz, hasiera batean (eta BEZaren ondorioetarako ondorioztatutakoaren arabera) eragiketa guztiak lurralde erkidean kokatuta daudela eta, aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera, egoitza fiskala ere lurralde erkidean duela ulertzen denez, agertutakoak ez du Bizkaiko Lurralde Historikoan aurkeztu beharko sozietateen gaineko zergaren aitorpena, eragiketen zenbatekoa edozein duela ere.

Eta guzti horren harira, Ekonomia Itunaren Legearen 18. artikulua aplikatzen da. Hau arautzen du:

«Zerga bi administrazioei ordaintzen zaien kasuan, honako arau hauek bete beharko dira: Lehenengoa. Zerga likidatuta lortutako emaitza Estatuko eta Euskadiko administrazioei egotziko zaie, zergaldi bakoitzean lurralde batean eta bestean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Bigarrena. Zerga bi administrazioetan ordaindu behar duten subjektu pasiboek behar diren aitorpen-likidazioak aurkeztu behar dizkiete administrazio biei, arauetan agindutako epeak eta formalitateak errespetatuta. Aitorpen-likidazio horietan, administrazio bakoitzari aplikatu beharreko proportzioa eta dagozkion kuotak eta itzulketak zein diren zehaztu beharko da beti. (...)».

Bestalde, deskribatutako jardueratik eratorritako beste edozein aitorpen edo zerga aurkeztu behar duen ala ez galdetu du kontsultagileak. Horren haritik, kontsulta ez da behar bezain zehatza, kontsultagileek aurkeztzen dituzten zerga-kontsulta lotesleek bete beharreko betekizunen araudi erregulatzaileran aurreikusita dagoenaren arabera. Hala ere, informazioa ematearren, jarraian aztertu egingo dugu kontsulta egin duen erakundeak zer inguruabarretan ordaindu beharko lukeen ekonomia-jardueren gaineko zerga Bizkaian edo zer inguruabarretan aurkeztu beharko lukeen zentsu-aitorpena lurralde horretan bertan.

Ekonomia-jardueren gaineko zerga

Ekonomia-jardueren gaineko zergaren eremuko tributazioari dagokionez, Ekonomia Itunaren Legearen 40. artikulua honako hau xedatzen du:

«Bat. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da. Bi. Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordainaraziko dute euren lurraldean aurrera eramandako jarduerengatik, arau hauek beteta: a) Gutxieneko udal-kuotak direnean, edo aldatutakoak, kuota horiek lurralde historikoko udalen alde sortzen direnean. b) Probintzia-kuotak direnean, jarduera lurralde historikoan burutzen baldin bada. c) Probintzia batean baino gehiagotan jarduteko aukera eskaintzen duten kuotak baldin badira, subjektu pasiboak ohiko bizilekua edo egoitza fiskala Euskadin baldin badu, egoki denaren arabera. Kuota hori lurralde erkideko edo foru-lurraldeko tokian tokiko administrazioari ordainduz gero, jarduera bi lurraldeetan eraman ahal izango da aurrera».

Beraz, manu horri jarraikiz, ekonomia-jardueren gaineko zerga araudi autonomoko zerga itundua da, eta administrazio bakoitzari dagokio hura ordainaraztea, bere lurraldean egindako jardueren arabera. Kontsultagileak EAEn jarduerarik egiten ez duen heinean (aurreko paragrafoetan ondorioztatu den bezala), ez du alta eman beharko zerga horretan.

Informazio-betebeharra zein administrazioen aurrean bete behar duen

Informazio-betebeharraren harira, Ekonomia Itunaren Legearen 46. artikulua honako hau xedatzen du:

«(...) Bi. Tributu-informazioa emateko orokorrean legez eskatzen diren betebeharrak betetzea helburu duten aitorpenak Estatuko Administrazioari edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari aurkeztu behar zaizkio, zeinek bere araudia betez, irizpide hauek kontuan harturik: a) Tributu-betebeharpekoek jarduera ekonomikoak egiten badituzte, eurek egiten dituzten enpresa- edo lanbide-jarduerak egiaztatu eta ikertzeko eskumena daukan administrazioari. (...) Hiru. Errolda-aitorpenak, bestalde, egin behar dituen pertsonak edo erakundeak bere egoitza fiskala non duen, hango administrazioari aurkeztu behar dizkio, zeinek bere araudia betez; baita pertsona edo erakunde horrek ekonomia-itun honetan ezarritako arauen indarrez aitorpen hauetakoren bat aurkeztu behar dion administrazioari ere: Atxikipenen eta konturako sarreraren aitorpena. Sozietateen gaineko zergaren aitorpen-likidazioa. Balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpen-likidazioa. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitorpena. Zerbitzu digital jakin batzuen gaineko zergaren aitorpena».

Beraz, informazioa emateko betebeharra (BIS) duenak jarduera ekonomikoak garatzen dituenen, kontsultaren xede den kasuan bezala, egiaztapena eta ikerketa egitea dagokion administrazioan aurkeztu beharko ditu informazioa emateko betebehar orokorrak, zerga-araudian aurreikusitakoak.

Ondorio horietarako, Ekonomia Itunaren 29.Sei artikulua honako hau ezartzen du:

«Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da: a) Zerga foru-aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko tributu-ikuskaritzen lana izango da. (...)».

Ondorioz, interesatzen zaigunari dagokionez, eta galdegai diren eragiketak kontuan hartuta, Estatuko Administrazioak izango du enpresa- edo lanbide-jarduerak egiaztatze eta ikertzeko eskumena, eta, orduan, administrazio horren aurrean bete beharko du BISren betebeharra.

Bestalde, zentsu-izaerako aitorpenak, dagokien araudiaren arabera, alde batetik, horiek egitera behartuta dagoen pertsonaren edo erakundearen egoitza fiskala dagoen administrazioaren aurrean aurkeztu

behar dira, eta, bestetik, pertsona edo erakunde horrek, Ekonomia Itunean aurreikusitako arauen arabera, honako hauek aurkeztu behar dituen administrazioaren aurrean: atxikipenen eta konturako sarreraren aitortpena; sozietateen gaineko zergaren aitortpen-likidazioa; balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpen-likidazioa; ekonomia-jardueren gaineko zergaren aitortpena, eta zerbitzu digital jakin batzuen gaineko zergaren aitortpena. Horrela, kontsulta egin duen erakundeak aitortpen horietako bat ere aurkeztu beharrik ez duen neurrian, zentsu-aitortpenak Estatuko Administrazioaren aurrean baino ez lituzke aurkeztu beharko.

Kontsulta: 2023.5.3.X' ODZ. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren zerga-araubidea eta zein administrazio den eskudun, foru-lurraldean bizi den pertsona bati dagokionez. Hainbat pertsonaren aldeko testamentua egin du (batzuk lurralde erkidean bizi dira eta beste bat atzerrian), eta haren ondarea hainbat motatako ondasun higiezinak eta aktibo finantzarioek osatzen dute.

Kontsultaren edukia

Kontsultagilea Bizkaian bizi da, eta alabaren eta bilobaren aldeko testamentua egiteko asmoa du (biak Madrilen bizi dira), baita beste biloba baten aldekoa ere (egoitza fiskala Estatu Batuetan du). Adierazten duenez, haren ondarea higiezinak eta balore hauek osatzen dute: i) Bizkaiko banku-bulego batean gordailututako akzioak; ii) Bizkaiko beste banku-sukurtsal batean gordailututako inbertsio-funtsetako partaidetzak; iii) Madrilen kokatutako finantza-erakunde baten bulegoan gordailututako inbertsio-funtsetako partaidetzak, eta iv) egoitza Madrilen duen sozietate mugatu baten kapitaleko partaidetza izendunak.

Egindako galdera

Oinordekoei jarauntsiagatik zer zerga-araubide (forala, autonomikoa edo erkidea) aplikatuko zaien jakin nahi du, zehazki:

1. Ea alabak eta bilobak Bizkaiko araudiaren arabera ordainduko dituzten zergak, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren 2.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Ea beste bilobak, hots, egoitza fiskala atzerrian duenak, foru arau bereko 2.2 artikuluan araututakoaren arabera ordainduko dituen zergak, hau da, kausatzailearen ondasunen kokapenaren arabera. Erantzuna baiezkoa bada, eta ondorio horietarako:
 - 2.1. Ea hark jarauntsiko dituen ondasunak dauden lekuari erreparatuko zaion, bereziki, edo, aitzitik, jarauntsia osatzen duten ondasun eta eskubide guztiak non dauden kontuan hartu beharko den.
 - 2.2. Ea zein lurraldetan —erkidean edo foru-lurraldean— kokatutzat hartuko diren haren egungo ondarea osatzen duten balioak.

Erantzuna

Kontsulta hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) 64.b) artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu da. Horren arabera:

«Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordeak eginkizun hauek izango ditu: (...) b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsitza joko da. Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeiko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Kontsulta-idazkian planteatutako galderei dagokienez, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onarritako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) aplikatu behar da. Itun horren 25. artikulua honako hau arautzen du:

«Bat. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du zerga hori honako kasu hauetan: a) «Mortis causa» eskurapenetan, eta bizi-aseguruen onuradunek aseguratuen heriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, baldin eta sortzapen-egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago. Kausatzailearen bizilekua atzerrian badago, zergadunek bizilekua Euskadin badute. b) Ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasun horiek Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude. Ondasun higiezinak atzerrian badaude, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badu sortzapenaren egunean. Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondasun higiezinak dohaintzat hartuko dira Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onetsi duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 314. artikuluan aipatutako baloreen doako eskualdatzeak. c) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badu sortzapenaren egunean. d) Zergadunak bizilekua atzerrian duenean, baldin eta ondasunen eta eskubideen baliorik handiena Euskadiko lurraldean baldin badago, eta bizi-aseguruetako kontratuetatik lortutako kopuruaren kasuan ere bai, hitzarmen hori egoitza Euskadin duten aseguru-erakundeekin egin bada, edo kontratua Euskadin egin bada bertan jarduten duten atzerriko erakundeekin. Letra honen ondorioetarako, Euskadiko lurraldean kokatuta daudela ulertuko da lurralde horretan dauden, erabil litezkeen edo bete beharko liratekeen ondasun eta eskubideak. Bi. Aurreko apartatuko a) eta c) letretan jasotako kasuetan, foru-aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, kausatzailea edo dohaintza-hartzailea egunik gehien egon bada lurralde erkidean aurre-aurreko bost urteetako denboraldian, zergaren sortzapenaren egunetik kontatuta. Autonomia Estatutuaren 7.2 artikularen arabera izaera politikoz euskal herritar izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori ezarriko. (...)».

Manu hori Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren (ODZFA) 2. artikuluan garatzen da, eta honako hau jasotzen du:

«1. Foru-arau honetan ezarritakoa betebeharrak pertsonalaren zioz aplikatuko zaie ohiko egoitza Espainian duten zergadunei, honako kasu hauetan: a) «Mortis causa» eskuraketetan, baldin eta sortzapenaren egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Bizkaian badago. (...) Goiko a) eta b) letretan ezarritako kasuetan, kausatzaileak egoitza atzerrian badu, foru arau honetan xedatutakoa aplikatzeko izango da baldin eta zergadunak Bizkaian badu ohiko egoitza. Aurreko a), b) eta d) letretan ezarritakoa gorabehera, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren lurralde erkideko araudia aplikatuko da, baldin eta kausatzaileak, aseguratuen edo dohaintza-hartzaileak egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean aurreko bost urteetako denboraldian, zergaren sortzapenaren egunetik kontatuta. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 7.2 artikularen arabera euskal herritar izaera politikoa izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori aplikatuko. 2. Foru-arau honetan ezarritakoa betebeharrak errealaren zioz aplikatuko zaie ohiko egoitza Espainian duten zergadunei, honako kasu hauetan: a) Ondasun eta eskubideen eskuraketetan, haien izaera edozein dela ere, baldin eta ondasun-eskubideon balio handiena Euskadin badago eta baldin eta ondasun eta eskubide horietatik Bizkaian kokatuta daudenen, bertan erabil daitezkeen edo bete beharrekoak direnen balioa handiagoa bada ondasun-eskubideok beste bi lurralde historiko bakoitzean duten balioa baino. (...) Aurreko bi letretan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek joko dira euskal lurraldean kokatutako: 1. Han finkatuta dauden ondasun higiezinak. 2. Euskal lurraldean kokatuta dauden etxebizitzak, finkei, ustiatzei edo industria-establezimenduei etengabe afektatutako ondasun higigarriak eta, orokorrean, lurralde horretan egon ohi direnak, nahiz eta zergaren sortzapen-egunean handik kanpo egon, egoeraren arabera zirkunstantziengatik edo zirkunstantzia iragankorregatik. 3. Aurreko zenbakietan ezarritako kasuetan Bizkaiko Foru Aldundiak ordainaraziko du Zerga. (...) 6. Artikulu honetan ezartzen denak ez du eragozten Espainiako estatuak sinatu eta berresten dituen edo atxikitzen zaizen nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoa. (...)».

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga araudi autonomoko zerga itundua da, eta Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokio hura ordainaraztea eta arautzea, Ekonomia Itunaren 25. artikuluan eta ODZFaren 2. artikuluan ezarritako kasuetan —zati batean transkribatu ditugu—.

Artikulu horietan araugintza- eta ordainarazpen-eskumena lurralde erkideen eta foru-lurraldeen artean banatzeko arauak aurreikusten dira, eta arau horiek desberdinak dira zergadunak betebeharrak pertsonalagatik edo betebeharrak errealagatik tributatu behar duen kontuan hartuta.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak izaera pertsonal eta subjektiboa du, eta pertsona fisiko bakoitzak irabazi-asmoz eta banaka lortutako ondare-gehikuntzak zergapetzen ditu. Dohaintzen eta gainerako irabazizko «*inter vivos*» eskualdatzeen kasuan, zergadun izaera dohaintza-hartzaileari edo onuradunari esleitzen zaio, zerga arautzen duen araudian.

Bestalde, zergaren mende betebeharrak pertsonalagatik edo betebeharrak errealagatik egotearen harira, adierazi behar da lehenengoa (betebeharrak pertsonala) ohiko bizilekua Espainian duten zergadunei dagokiela, eta horiek zergapeko ondarearen gehikuntza osatzen duten ondasun edo eskubide guztienagatik tributatu behar dutela, non dauden kontuan hartu gabe. Bigarrenak (betebeharrak errealak), berriz, ohiko bizilekua atzerrian duten zergadunei eragiten die (Espainiako lurraldean bizi ez direnei), eta Espainiako lurraldean kokatuta dauden, egikaritu daitezkeen edo bete behar diren ondasun eta eskubideengatik bakarrik tributatu dute, bai eta bizi-aseguruen kontratuetatik eratorritako zenbatekoak jasotzeagatik ere, kontratua Espainiako aseguru-erakundeekin egin denean, edo Espainian egin denean Espainiako lurraldean jarduten duten atzerriko erakundeekin.

Zergadun bat Espainiako lurraldeko egoiliar gisa hartu behar den ala ez zehazteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen araudian xedatutakoari jarraitu behar zaio. Hala ere, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren ondorioetarako, Espainiako lurraldean egondako egunak ez dira urte naturalaren arabera zenbatzen, baizik eta zerga sortu aurreko hirurehun eta hirurogeita bost egunen arabera.

Aurreko guztiarekin bat etorritik, kontsultagilearen alabak eta bilobak (biak Madrilen bizi dira) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean ordaindu beharko dituzte zergak, Bizkaiko araudiarekin bat etorritik (ODZFA), kontsultagilearen oinordetzaren bidez eskuratzen dituzten ondasun eta eskubideengatik, baldin eta kontsultagilearen ohiko bizilekua Bizkaian badago heriotza-egunean, eta data horren aurreko bost urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan eman badu egun gehien. Beraz, betebeharrak pertsonalagatik ordainduko dituzte zergak, kausatzailearengandik eskuratutako ondasun eta eskubideen kokapena kontuan hartu gabe.

Bestalde, bizilekua Estatu Batuetan duen biloba ere oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren zergadun izango da, bere aitonaren oinordetzan eskuratzen dituen ondasun eta eskubideengatik, baina betebeharrak errealagatik soilik egongo da zergaren mende Espainian, eta ez betebeharrak pertsonalagatik, egoitza fiskala ez duelako Espainiako lurraldean (kausatzailea non bizi den alde batera utzita). Ondorioz, bizitza-asegururik alde batera utzita (horiei buruz ez da galdetzen), Espainiako lurraldean kokatuta dauden, egikaritu daitezkeen edo bete behar diren ondasun eta eskubideengatik bakarrik tributatu beharko du Espainian, ondasun eta eskubide horien izaera edozein izanda ere.

Horrelako kasu batean oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren zer araudi aplikatu daitezkeen zehazteko (lurralde erkidean indarrean dagoena edo forala), bai eta zerga hori ordainarazteko eskumena zein administrazioak duen zehazteko ere, Ekonomia Itunaren 25. Bat artikuluen d) puntuan eta ODZFaren 2. artikuluen 2. apartatuan adierazitakoa hartu behar da aintzat —arestian transkribatu ditugu—.

Horrela, agertutakoaren bilobak irabazizko eskurapen horrengatik foru ogasun honetan tributatu beharko du, Bizkaiko Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudia aplikatuz, baldin eta bere aitonaren jaraunspenaren bidez eskuratutako ondasun eta eskubideen balio handiena, Espainian kokatuta daudela uler daitezkeenak bakarrik zenbatuz, Euskal Autonomia Erkidegoan badago, eta, gainera, Bizkaiko

Lurralde Historikoan kokatuta daudenen, egikaritu daitezkeen edo bete beharko liratekeen balioa beste bi lurralde historikoetako baino handiagoa bada. Aitzitik, kontsultagilearen bilobak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurrean ordaindu beharko ditu zergak, baldin eta kontsultagilearen oinordetzaren bidez eskuratzen dituen ondasun eta eskubideen baliorik handiena EAetik kanpo badago.

Puntu horretan, kontsultagileak galdetu du ea, jaraunseak eskuratutako ondasun eta eskubideen baliorik handiena zein lurraldetan dagoen zehazte aldera, testamentuan beren-beregi utzi dizkionak hartu behar diren kontuan, edo, bestela, kausatzailearen ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztiak zenbatu behar diren.

Gai horri buruzko iritzia eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak maiatzaren 4ko 6/2015 Ebazpenean, Bizkaiko Foru Ogasunak 2015eko maiatzaren 14ko 6453/2013 kontsultari erantzuteko planteatutako interpretazioa babestuz. Ebazpen horretan, honako hau zioen:

«(...)

4. Itunaren 25.Bat artikularen d) hizkian, irizpide zehatz bat jasotzen da, zergadunak egoitza atzerrian izateaz gain, «ondasun eta eskubide guztiak euskal lurraldean kokatuta, gauzatu ahal edo bete behar diren kasuetarako».

Adierazitakoaren arabera, kontsultatzailea lurralde erkidean zein euskal lurraldean kokatutako ondasunen eta eskubideen titularra da, baina kontua da Estatu Batuetan bizi den semeari Bizkaian helbidea duen erakundearen kapital sozialean dituen partizipazioak baino ez dizkiola «mortis causa» eskualdatu nahi.

Itunak ez du argitzen, 25.Bat artikularen d) letra aplikagarritzat jotzeko, euskal lurraldean kokatuta egon behar diren ondasun edo eskubide guztiak kausatzailearenak diren, edo nahikoa den kausadunak jasotzen dituen ondasun edo eskubide zehatzak euskal lurraldean kokatuta egotea. Bigarren aukera horren alde, batetik, oinordetzen gainera zergak jaraunspeneko ondasunak batera kargatu baino, lortutako ondare-gehikuntzak banaka, zergadun bakoitzeko kargatzen dituela dago, irabazi gisa. Eta bestetik, Itunaren 25. artikularen d) hizkiak irizpide zehatza duela, «*inter vivos*» eta «*mortis causa*» doako eskurapenen artean ezberdintasunik ezarri gabe. (...)

5. Nolanahi ere, oinordetzen gainera zergarako zein dohaintzen gainera zergarako garrantzitsuen zergadun bakoitzak irabazi-asmoetarako eskuratutakoa da, eskurapena «*inter vivos*» edo «*mortis causa*» den alde batera utzita. Eta jakina, arauak bereizten ez duenean, ez dagokio interpretari bereiztea, aforismo juridiko ezagunak esan bezala».

Abenduaren 28ko 10/2017 Legeak eragindako arau-aldaketa arte, egoitza fiskala atzerrian zuten zergadunen kasuan (betebehar errealagatik), oinordetzen eta dohaintzen gainera zerga ordainarazteko eskumena lurralde erkideko administrazioari zegokion, salbu eta eskuratutako ondasun eta eskubide guztiak EAEn kokatuta bazeuden, egikaritu ahal baziren edo bete behar baziren. Hala eta guztiz, maiatzaren 4ko 6/2015 Ebazpen hori baliagarria da, halaber, Ekonomia Itunaren 25.Bat.d) artikularen indarreko idazketa interpretatzeko; izan ere, bertatik ondorioztatzen da, azken batean, «eskuratutako ondasunak edo eskubideak» Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden, egikaritu daitezkeen edo bete behar diren ezartzeko, kontuan hartu behar direla betebehar errealagatik zergaren mende dagoen zergapekoari transmititutako ondasunak eta eskubideak, eta ez nahitaez jaraunspen-masa osoa, baldin eta ondasun eta eskubide zehatzen izendapen indibiduala badago.

Aurreko guztiarekin bat etorritik, planteatutako kasuan, kontsultagileak bere iloba ez-egoiliarren alde egin asmo duen oinordetza-izendapena partikular gisa egiten bada, ondasun edo eskubide zehatz batzuen jabetzari dagokionez haren oinordekoa izan dadin, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio oinordetzen eta dohaintzen gainera zerga ordainaraztea, eta Bizkaiko foru-araudia (ODZFA) aplikatuko du soilik hark banaka eskuratutako ondasun edo eskubide zehatz horien balio handiena Euskal Autonomia Erkidegoan badago kokatuta, eta, era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatuta daudenen, egikaritu dai-

tezkeenen edo bete beharko liratekeen balioa beste bi lurralde historikoetako bakoitzean duten balioa baino handiagoa bada. Aitzitik, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari dagokio ordainarazpena, eta estatuko araudia aplikatuko da, baldin eta banaka eskuratutako ondasun edo eskubide zehatz horien baliorik handiena lurralde erkidean badago.

Aldiz, bilobaren aldeko testamentu-xedapena jaraunspen-masa osoaren partaidetza zatiezin gisa erazten bada (zati berdinetan beste jaraunsle batzuekin), ordainarazpenerako administrazio eskuduna eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari aplikatu behar zaion araudia zehazte aldera, kontsultagilearen ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztien balio handiena zein lurraldetan —erkidean edo foru-lurraldean— dagoen hartu beharko da kontuan (eta ez bakarrik jaraunspena esleitu ondoren oinordeko ez-egoiliarren esku amaitzen duten lurraldean).

Planteatutakoa bezalako kasu batean, kausatzailearen ondasun eta eskubideen balio handiena non kokatuko den zehazte aldera (lurralde erkidean edo foru-lurraldean), kontsulta-idazkian aipatzen diren ondare-elementuak non kokatuta dauden zehaztu behar da.

Emandako informazioaren arabera, kontsultagileak ondasun higiezinak ditu, eta horiek kokatuta dauden lurraldean daudela ulertu beharko da.

Era berean, hainbat balore-motaren titularra da, zehazki: banku-bulego batean gordailututa dauden akzioak, hainbat banku-sukurtsaletan gordailututako inbertsio-funtsetako partaidetzak eta egoitza Madrilen duen sozietate mugatu baten kapitaleko partaidetza izendunak.

Aipatutako akzioei eta inbertsio-funtsetako partaidetzei buruzko informazio gehiago ez dagoenez, eta kontsulta-idazkian berariaz adierazten denez bi balore mota horiek banku-sukurtsaletan gordailututa daudela, ulertu behar da kontsultagileak dagokion aktibo finantzarioa gordailututa duen banku-sukurtsala dagoen lurraldeari esleitu zaiola balore horien kopurua (normalean sukurtsal horretan balore-kontu bat kontratatuz gordailutzen dira). Kasu honetan, orduan, Bizkaiko sukurtsaletan gordailututako akzioak eta inbertsio-funtsetako partaidetzak Euskal Autonomia Erkidegoan (eta, aldi berean, Bizkaian) daudela ulertuko da, eta lurralde erkidean kokatuta daudela, berriz, Madrilgo banku-sukurtsalean gordailututako inbertsio-funtsetako partaidetzak.

Aurrekoa gorabehera, inbertsio-funtzen partaidetzen haritik, zehaztu behar da ezen, Espainiako inbertsio-funtsak izanik (Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen ditu funts horiek), eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Legearen 40.3 artikuluaen erreforma 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri ondoren, bi sistema posible daudela aldi berean inbertsio-funts batean partaideen erregistroa eramateko. Funtsa kudeatzen duen erakundeak (edo partaideen erregistroa eramateko ardura duen erakundeak) bakarrik har dezake bere gain, baina baita, erreforma horretatik aurrera, erakunde merkaturatzaileek ere. Horiek partaideen erregistro propioa eraman dezakete, eta horien partaidetzak kudeatzailearen erregistroan jasota agertuko dira, kontu global edo «omnibus» batean, erakunde merkaturatzailearen izenean, bezeroen kontura. Azken kasu horretan, partaidetzak sukurtsal bateko balore-kontu batean «gordailututa» daudela esan daiteke.

Aurreko guztiarekin bat etorritik, kontsultagilea partaide den funtseko bazkideen erregistro-sistemaren arabera (erakunde kudeatzailearen egoitzako erregistro-sistema bakarra, edo sistema mailakatua, erakunde merkaturatzailearen erregistroarekin), eta betiere Espainiako inbertsio-funtzen kasuan, galdegai diren partaidetzak erakunde kudeatzailearen erregistroa edo partaidetzen sukurtsala finkatuta dagoen lurralde erkidean edo foru-lurraldean kokatuta daudela ulertuko da.

Ondorioz, kontsultagilea funtsaren erakunde kudeatzailearen erregistroan zuzenean bere izenean erregistratuta dauden Espainiako inbertsio-funtsetako partaidetzen titularra bada, partaidetza horiek erregistro horri dagoen lurraldeari (erkidea edo foru-lurraldea) esleitu zaizkio, eta ezin izango da ulertu, berez, Madrilgo edo Bizkaiko banku-sukurtsaletan irekitako balore-kontuan «gordailututa» daudenik.

Hala ere, kontsultagilea inbertsio-sozietateetako akzioen edo atzerriko inbertsio-funtsetako partaidetzen titularra bada (horien akzioak edo partaidetzak, oro har, finantza-erakunde batean irekitako balore-kontu batean gordailututa badaude), horiek gordailututa dauden banku-sukurtsala dagoen lurraldeari esleituko zaizkio (Madril edo Bizkaia, kasu honetan).

Azkenik, sozietate mugatu baten kapitaleko partaidetzei dagokionez, erakundearen egoitza soziala dagoen lurraldea hartuko da kontuan, non kontsultagileak bazkide gisa bere eskubideak egikaritu ahal izango dituen, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietatei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoari jarraikiz. Kasu honetan, adierazten denez, sozietate horrek Madrilen du egoitza, eta, beraz, lurralde erkideari esleitu beharko zaizkio galdegai diren partaidetzak.

Kontsulta: 2023.5.3.X" PFEZ. - PFEZa ordainarazteko eskumena zein administrazioek duen, pertsona fisiko bati dagokionez. Lantokia aldatu duelako eta osasun-arrazoiengatik, ekitaldi berean, aldi batzuetan, lurralde erkidean bizi izan da eta, beste aldi batzuetan, foru-lurraldean.

Kontsulta hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren (aurrerantz, Ekonomia Ituna) 64.b) artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu da. Horren arabera:

«Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak eginkizun hauek izango ditu: (...) b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsitzat joko da. Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazioek ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Kontsultaren edukia

Kontsultagileak zerga-kontsulta bat aurkeztu zuen, eta bertan azaldu zuen 2022ko apirilaren 18ra arte (egun hori barne) Santanderren bizi eta lan egiten zuela.

Une horretatik aurrera, mugimendu hauek egin zituen:

- 2022ko apirilaren 19an, ohiko bizilekua Bizkaian izaten hasi zen, bertan baitzegoen haren lantoki berria, baina ez zuen aurreko errolda aldatu.
- 2022ko ekainaren 7an, kontsultagilea Santanderrera itzuli zen ebakuntza kirurgiko bat egiteko eta atsedeen hartzeko; medikuaren baja zuen 2022ko irailaren 11ra arte.
- 2022ko irailaren 12an Bizkaira itzuli zen; zehazki, 2022ko abuztuaren 31n Bilbon erosi zuen etxebizitza batera, eta, Bizkaira itzuli zenetik, horixe da haren ohiko etxebizitza.

Egindako galdera

Kontsultagileak jakin nahi du zein administrazioan (estatukoa edo forala) aurkeztu behar duen 2022ko zergaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) aitortpena, baldin eta urtea amaitu arte Bilbon bizitzen jarraitzen badu.

Erantzuna

Ekonomia Itunak, PFEZari dagokionez, honako hau ezartzen du 6. artikuluko Bat apartatuan:

«Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari dagokio tributu hori ordainaraztea, baldin eta zergadunaren ohiko bizilekua Euskadin badago».

Ondorioz, kontsulta hau ebazteko, zergadunaren ohiko bizilekua non dagoen argitu behar dugu lehenengo eta behin, Ekonomia Itunean jasotako xedapenen arabera.

Ohiko bizilekuari dagokionez, Ekonomia Itunaren 43. artikulua Bat apartatuak honako hau ezartzen du:

«Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, pertsona fisiko egoiliarrek ohiko bizilekua Euskadin dutela ulertzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko egun gehien ematen dutenean, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzape egunaren bezperan amaitzen den urtebeteko egun gehien ematen dutenean, urtearen edozein egunetatik hasita zenbaita, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokionez.

Gainerako tributuei dagokionez, pertsona fisikoek ohiko bizilekua izango da tributuen sortzape-egunetan pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren ondorioetarako den bizileku bera.

Lurralde jakin batean egon den denbora zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean —profesionala alde batera utzita— egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

(...)

Zazpi. Lurralde erkideko edo foru-lurraldeko egoiliarrek diren pertsona fisikoak beren ohiko bizilekua lurralde horietako batetik bestera aldatzen baldin badute, tributuetan beharrik ez den bizileku berriaren arabera beteko dituzte aurrerantzean, bizileku berri hori lotunea baldin bada.

Gainera, apartatu honen arabera bizilekua ez dela aldatu ulertzen bada, pertsona fisikoek kasu kasuko aitortpen osagarriak aurkeztu beharko dituzte, berandutze-interesak eta guzti.

Bizilekua aldatzearen helburu nagusia tributuetan gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriozik edukiko.

Bizileku berria jarraian emandako denbora gutxienez hiru urtez luzatzen den kasuetan izan ezik, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako, aldaketarik ez dela izan ulertuko da inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Bizilekua aldatzen den urtean edo hurrengoan, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren zerga-oinarria aldaketaren aurreko urtean izandako zerga-oinarria baino % 50 handiagoa izatea, gutxienez. Baterako tributazioa egiten denean, indibidualizazio-arauak erabiliz zehaztuko da.

b) Egoera hori sortzen den urtean, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren ondoriozko tributazio efektiboa aldaketa izan aurreko lurraldean aplikatu beharreko araudiarekin gertatuko zatekeen tributazio efektiboa baino txikiagoa izatea.

c) Ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean edukitzea, a) letran azaldutako egoera sortzen den urtearen hurrengoan, edo horren hurrengoan».

Manu horretan ezarritakoaren arabera, kontsultagilea ohiko egoiliar gisa hartu beharko da zergaldiko egun gehien egon den lurraldean, kontuan izanik, egonaldia den denbora zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko dela kontuan.

Egonaldiaren irizpidea aplikatuta, ezin bada bizilekua zehaztu, interesen gune nagusiaren kokapenaren irizpidera jo beharko da.

Azkenik, bigarren irizpide horren bidez ere ezin bada bizilekua finkatu, zergaren autolikidazioa aurkezteko, aitortutako azken bizilekua hartuko da kontuan, PFEZaren ondorioetarako.

Kontsultagileak egindako egitateen azalpenaren arabera, kontsultagilea 2022an honako leku hauetan egon da:

- Urtarrilaren 1etik apirilaren 18ra (108 egun), lurralde erkidean.
- Apirilaren 19tik ekainaren 6ra (49 egun), foru-lurraldean.
- Ekainaren 7tik irailaren 11ra (97 egun), lurralde erkidean.
- Irailaren 12tik abenduaren 31ra (111 egun), foru-lurraldean.

Beraz, aztertu behar da ea Santanderren ebakuntza kirurgiko bat egiteko 97 eguneko egonaldiak (irau-pen hori bat dator medikuaren bajarekin) betetzen dituen aldi batez kanpoan izandako denboratzat ka-lifikatua izateko beharrezko baldintzak; hala balitz, aldi horretan Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi izan dela ulertuko litzateke.

Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak 2018ko irailaren 14ko 14/2018 ebazpenean garatu zuen Ekono-mia Itunaren 43. artikuluan jasotako aldi batez kanpoan izandako denboraren kontzeptua. Bertan adie-razten denez, ohiko bizilekutik kanpo izandako denbora bat aldi baterakoa dela kontsideratu ahal iza-teko, noizbehinkakoa eta puntuala izan behar da, inoiz ez luzea edo mugagabea

Ebazpen horretan, era berean, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak nabarmendu zuenez, «Ekono-mia Itunaren 43.Bat artikuluan aurreikusitakora eraman daiteke inolako arazorik gabe» Auzitegi Gore-nak «noizik behingo absentsiei» buruz adierazitakoa (martxoaren 6ko 357/2018 epaia, 931/2017 errekur-tsoa), nahiz eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 9.1.a) artikuluari buruzkoa izan. Ebazpen horren arabera, «noizik behingo absentsien kontzeptuak Espai-niako lurraldetik kanpo emandako denboraren iraupen edo intentsitateari buruzko datu objektiboari erreparatu behar diola eksklusiboki, hori gerta dadin Espainiako lurraldetik kanpo noizean behin finkat-zeko zergadunaren borondateari, jatorrizko lekura itzultzeko asmo argiz, lehentasuna emateko nahimen edo asmoko elementu baten presentziarekin lotzeko aukera gabe».

Arestian azaldutakoaren arabera, eta kontsultagileak egindako egitateen azalpenarekin bat etorritik, baita Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak 2018ko irailaren 14ko 14/2018 Ebazpenean defendatutako aldi batez kanpoan izandako denboraren kontzeptuaren interpretazioa kontuan hartuta ere, ondoriozta daiteke ezen kontsultagileak Bizkaiko bizilekutik kanpo emandako denbora, hots, guztira 97 egunekoa eta Santanderren ebakuntza kirurgiko bat egiteko helburuarekin emandakoa, noizik behingo absentsia puntualaren baldintzak betetzen dituela, eta, hortaz, aldi batez kanpoan izandako denboratzat jo behar dela, Ekonomia Itunaren 43.Bat artikuluan ezarritakoaren arabera.

Irizpide hori aplikatuta, 2022. urtean 108 egun bizi izan zen lurralde erkidean eta 257 egun foru-lurral-dean.

Aurrekotik ondorioztatzen da kontsultagileak zergaldiko egun gehien foru-lurraldean eman zuela; beraz, Ekonomia Itunaren 43.Bat artikulua aplikatuz, ohiko egoiliartzat hartu beharko da Euskal Autonomia Er-kidegoan. Kasu horretan, lurraldea dela-eta eskumena duen foru-aldundiari dagokio ekitaldi horretako PFEZa ordainaraztea, eta kontsultagileak zerga horretatik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu foru-ogasunean, horretarako dagokion foru-araudia aplikatuz.

Nolanahi ere, gogoan izan behar da ohiko bizilekua zehaztea egitatezko kontua dela, eta zergadunak frogatu beharko duela —zerga-administrazioaren kudeaketa— eta ikuskapen-organismoek eskatuta, haiei baitagokie balioestea —zuzenbidean baliozkoak diren frogabideen bidez—.

Kontsulta: 2023.5.3.X^{III} ODZ. - Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ordainarazteko eskumena zein administrazioak duen, kausatzailearen heriotzaren ondorioz zerga sortzen denean. Kausatzailea foru-lurraldean bizi izan zen etengabe, baina hil aurreko azken hilabeteetan lurralde erkidean bizi izan zen.

Kontsulta hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) 64.b) artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetu da. Horren arabera:

«Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak eginkizun hauek izango ditu: (...) b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabete epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabeteetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da. Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharra egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Kontsultaren edukia

Kontsulta egin zuen pertsonak zerga-kontsulta aurkeztu zuen oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruz (ODZ). Zerga hori 2021eko irailaren 23an sortu zen senitarteko baten heriotzagatik. 2020ko azaroaren 13ra arte Basaurin (Bizkaia) bizi zen, eta egun horretan egoitza Valladolidera aldatu zuen.

Egindako galderak

Kontsultagileak jakin nahi du non aurkeztu beharko duen ODZren likidazioa, bai eta zer araudi aplikatu behar den ere.

Erantzuna

Ekonomia Itunaren 25. artikulua honako hau dio ODZri dagokionez:

«25. artikulua. Aplikatu beharreko arauak eta zergaren ordainarazpena.

Bat. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa.

Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du zerga hori honako kasu hauetan:

a) «Mortis causa» eskurapenetan, eta bizi-aseguruen onuradunek aseguratuaren heriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, baldin eta sortzapen-egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago. Kausatzailearen bizilekua atzerrian badago, zergadunek bizilekua Euskadin badute.

(...)

Bi. Aurreko apartatuko a) eta c) letretan jasotako kasuetan, foru-aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, kausatzailea edo dohaintza-hartzailea egunik gehien egon bada lurralde erkidean aurre-aurreko bost urteetako denboraldian, zergaren sortzapenaren egunetik

kontatuta. Autonomia Estatutuaren 7.2 artikulua arabera izaera politikoz euskal herritar izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori ezarriko.)

(...).

Manu horretan ezarritakoaren arabera, kontsultagilearen senidearen heriotzaren ondorioz sortutako ODZren ordainarazpena foru-ogasunari egokituko zaio, baldin eta kausatzaileak ohiko bizilekua EAEn bazuen sortzapen-egunean; oster, lurralde erkideko ogasunari egokituko zaio, kausatzaileak ohiko bizilekua lurralde erkidean bazuen. Ohiko bizilekua zehazteari dagokionez, Ekonomia Itunaren 43. artikulua-ren Bat apartatuak honako hau ezartzen du:

«43. artikulua. Ohiko bizilekua eta egoitza fiskala.

Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, pertsona fisiko egoiliarrek ohiko bizilekua Euskadin dutela ulertzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko egun gehien egotea, pertsona fisikoen

errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapen-egunaren bezperan amaitzen den aurreko urtebeteko egun gehien egotea, datatik datara zenbatuta, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraibideren gaineko zerga bereziari dagokienez.

Gainerako tributuei dagokienez, pertsona fisikoen ohiko bizilekua izango da tributuen sortzapen-egunean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako den bizilekua bera.

Lurralde jakin batean egon den denbora zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

(...).

Ondorioz, ODZren eremuan, Ekonomia Itunaren 43. artikulua honako hau ezartzen du:

Euskal Autonomia Erkidegoko ohiko egoiliartzat hartuko dira sortzapen-egunaren bezperan amaitzen den aurreko urtebetean, datatik datara zenbatuta, lurralde horretan egun gehien egon diren kausatzaileak.

Ondorio horietarako, erroldatze hutsa, berez, ez da nahikoa herri jakin batean ohiko bizilekua izan dela zehazteko, ezta aitortutako egoitza fiskala aldatzea ere. Bi inguruabar horiek, ordea, kontuan hartu beharreko frog-elementutzat hartzen dira, kasu jakin horretako gainerakoekin batera.

Egonaldiaren irizpidea aplikatuta ezin bada bizilekua zehaztu, interesen gune nagusia kokatzeko irizpideari jarraitu beharko zaio.

Azkenik, bigarren irizpide horren bidez ere ezin bada bizilekua finkatu, zergaren autolikidazioa aurkezteko, aitortutako azken bizilekua hartuko da kontuan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Aintzat izan behar da ohiko bizilekua zehaztea egitatezko kontua dela, eta zergadunak frogatu beharko duela —zerga-administrazioaren kudeaketa— eta ikuskapen-organoek eskatuta, haiei baitagokie balioestea —zuzenbidean baliozkoak diren frogabideen bidez—.

Beraz, ODZren aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko, aldeztu beharko da, eta, hala badagokio, egiaztatu, azaldutako irizpideen arabera, kausatzailea non egon zen luzaroen hil aurreko urtean. Kausatzailea Bizkaian egon balitz luzaroen, foru-lurraldean bizi zela ulertuko litzateke, eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundian ordaindu beharko lituzke zergak. Aitzitik, lurralde erkideko egoiliartzat hartuko da hil aurreko urtean Valladoliden eman bazuen egun gehien; kasu horretan, lurralde erkideko zerga-administrazioan ordaindu beharko ditu zergak.

Kontsultagileak azaldutako egitateetatik ondoriozta daitekeenez, kausatzaileak hil aurreko urte naturalean Valladoliden eman zuen egun gehien, eta, beraz, lurralde erkideko zerga-administrazioak izango du ordainarazpen-eskumena. Hala, lurralde erkidean aurkeztu beharko da zergaren aitorpena edo autolikidazioa, Estatuko araudian ezarritakoaren arabera, eta araubide erkideko komunitateei lagatako tributua denez, baita dagokion autonomia-erkidegoko araudian ezarritakoaren arabera ere.

Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpenak



Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpenak

Erabilitako laburduren zerrenda

AFA	Arabako Foru Aldundia
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
NLO	Nafarroako Lurralde Ogasuna
ZAEA	Zerga Administrazioko Estatu Agentzia
EI	Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna
EIAB	Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordea.
E	Ebazpena
AKEB	Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea
AG	Auzitegi Gorena
AGE	Auzitegi Gorenaren epaia
EEEZ	Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga
SZ	Sozietateen gaineko Zerga
ERAK. AUT.	Erakunde autonomoak
EAOAFL	Estatuko Administrazio Orokorraren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Legea

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
67/2022	47/2019	3. ebazpen 67/2022 E-tik 69/2022 E-ra. Ekonomia Itunaren 20.Bi.3 artikulua. Taldeko eragiketa-bolumenaren ehunekoak aplikatzea atxikipenen ordainarazpena zehazteko. EIABren aburuz, atxikitzailearen eragiketa-bolumena hutsala da; izan ere, taldea osatzen duten sozietateen eragiketa-bolumenaren batura edozein dela ere, subjektu pasiboak proportzioan ordainduko ditu zergak sozietateren batek eragiketak bi lurraldeetan egiten dituen bakoitzean, eta, era berean, ez du garrantzirik atxikitzailearen eragiketen kokapenak (banaka hartuta).	67/2022 E
68/2022	48/2019		68/2022 E
69/2022	56/2019		69/2022 E
70/2022	23/2014	2. ebazpen 70/2022 eta 71/2022. Amore ematea. Arbitraje Batzordeak erabakitako prozeduraren xedea gerora galtzeagatik gatazka artxibatzea, gatazkan zegoen zerga-administrazioetako batek, beste administrazioak hala eskatuta, zergapekoaren (pertsona juridikoa) helbidea aldatzea onartu ondoren.	70/2022 E
71/2022	25/2014		71/2022 E
72/2022	24/2013	2. ebazpen 72/2022 eta 73/2022. 7 milioi euro baino txikiagoko eragiketa-bolumena duen zerga-baterakuntzako talde baten sozietateen gaineko zerga ordainarazteko eskumena. EIABk zehazten duenez, taldeek eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen dituzte zergak, edozein izanda ere eragiketa-bolumena eta zerga-egoitza.	72/2022 E
73/2022	15/2017 eta 34/2016		73/2022 E
74/2022	45/2017 eta 18/2017	Gatazka administrazio eskudunaren inguruan haize-parkeen sozietate ustiatzaileen egoitza fiskala aldatzeko prozeduretatik eratorritako BEZaren itzulketei dagozkien berandutze-interesak jasateko; haiek izan ziren EIABk aurretik ebatzitako gatazka-planteamenduen xede. Ez da onartzen administrazio demandatuaren erantzukizuna eta, horri buruzko berariazko erabakirik eman gabe, zalantzan jartzen da zergapeko erakundearen eskubidea berandutze-interesak jasotzeko.	74/2022 E
75/2022	37/2020	Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak egindako PFEZ atxikipenak ordainarazteko eskumena, foru-lurraldean egoitza duten pertsonen dagokienez. Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea galtzeagatik, administrazio demandatuak demandatzailearen uziari erantzun diolako.	75/2022 E
76/2022	38/2020	2 ebazpen, 76/2022 E eta 77/2022 E. PFEZ atxikipenak ordainarazteko eskumena, foru-lurraldean egoitza duten eta Estatuko Administrazio instituzionaleko erakundeetan zerbitzuak eman dituzten pertsonen dagokienez eginda. Arazo hori EIABk berak ebatzi zuen 15/2016 E eta 4/2017 E-etan, eta Auzitegi Gorenaren 2018-04-17ko Epaia berretsi. EIABren ustez, Itunaren 7.2 artikulua erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak aipatzen dituenean, Estatuko Administrazio instituzionala osatzen dituzten erakunde guztiak biltzen ditu; hortaz, gatazka egonez gero, Ekonomia Itunaren 7.Bat artikulua arau orokorra aplikatuko da (lanpostuaren kokalekua edo pentsiodunaren bizilekua), eta foru-administrazioari dagokio atxikipen horiek ordainaraztea. Horrez gain, 76/2022 E-k ebatzitako gatazkak planteatutako beste gai bati buruz hitz egin du, zehazki, administrazio-kredituen preskripzioaz. Administrazioen arteko zuzenbidearen preskripzio-epaia dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da etengo zergapekoaren eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik. Horren ondorioz, EIABk preskribatutaz jotzen du eskatutako bidalketaren zati bati dagokion kreditua.	76/2022 E
77/2022	15/2021		77/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
78/2022	9/2021, 16/2021, 6/2021, 10/2021, eta 24/2022	46 ebazpen (horietako batzuek hainbat espediente metatzen dituzte). 78/2022 E-tik 123/2022 E-ra. Kenkariaren monetizazioa itzultzeko eskumena ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko (I+G+b) gastuengatik, Estatuko Administrazioaren sozietateen gaineko zergaren (SZ) araudian arautua, zergak eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaintzen dituen zergapeko baten kasuan.	78/2022 E
79/2022	22/2021, 39/2021 eta 27/2022		79/2022 E
80/2022	38/2021, 36/2022 eta 28/2021		80/2022 E
81/2022	32/2021		81/2022 E
82/2022	33/2021 eta 30/2022		82/2022 E
83/2022	34/2021 eta 29/2022		83/2022 E
84/2022	36/2021		84/2022 E
85/2022	33/2022 eta 37/2021		85/2022 E
86/2022	40/2021		86/2022 E
87/2022	41/2021		87/2022 E
88/2022	42/2021		88/2022 E
89/2022	44/2021		89/2022 E
90/2022	45/2021		90/2022 E
91/2022	40/2022 eta 46/2021		91/2022 E
92/2022	47/2021		92/2022 E
93/2022	48/2021		93/2022 E
94/2022	49/2021 eta 35/2022		94/2022 E
95/2022	50/2021		95/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
96/2022	37/2022 eta 51/2021	ElABek, besteak beste, monetizazioa dirulaguntzat hartzea gaitzesten du, eta sozietateen gaineko zergari dagokion ordainarazteko eskumena duen foru-administrazioari dagokiola deklaratu du, araudi erkidea aplikatzen den kasuetan, dagokion zergapekoaren tributazio-proportzioan itzultzeko kenkariaren monetizazioaren zenbatekoa I+G+B jarduerengatik.	96/2022 E
97/2022	55/2021 eta 34/2022		97/2022 E
98/2022	57/2021		98/2022 E
99/2022	58/2021		99/2022 E
100/2022	59/2021		100/2022 E
101/2022	60/2021		101/2022 E
102/2022	18/2022		102/2022 E
103/2022	21/2022		103/2022 E
104/2022	22/2022		104/2022 E
105/2022	23/2022		105/2022 E
106/2022	28/2022		106/2022 E
107/2022	31/2022		107/2022 E
108/2022	32/2022		108/2022 E
109/2022	38/2022		109/2022 E
110/2022	7/2021, 8/2021, 52/2019 eta 11/2021		110/2022 E
111/2022	27/2020 eta 12/2020		111/2022 E
112/2022	18/2020		112/2022 E
113/2022	22/2020		113/2022 E
114/2022	54/2021, 23/2020		114/2022 E
115/2022	28/2020		115/2022 E
116/2022	29/2020, 89/2021		116/2022 E
117/2022	31/2020		117/2022 E
118/2022	33/2020		118/2022 E
119/2022	35/2020		119/2022 E
120/2022	79/2021		120/2022 E
121/2022	36/2020 eta 20/2020		121/2022 E
122/2022	53/2019		122/2022 E
123/2022	90/2021		123/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
124/2022	24/2017	Administrazioen arteko kreditu publikoak preskribatzea, zeinak, egoitza aldatzeko prozedura baten ondorioz, eskuduna ez den administrazioan sartutako BEZaren diru-sarreretatik baitatuz. AGren doktrina eta jurisprudentzia ugaritan oinarritzen da EIAB ondorioztatzeko administrazioen arteko preskripzio-epea hasten dela gerora sortutako eskumenik gabeko administrazioa zergapekoaren diru-sarrera jasotzen duen unetik eta, tributu-erregularizazioko prozeduran egindako preskripzioa eteteko jarduketek eragina izango dutela soilik zerga-harreman juridikoan, eta, hala badagokio, gerora sortutako eskumena izan duen administrazioaren onurarako izan daiteke, baina ez administrazioen arteko harreman juridikoan. Horrenbestez, preskribatutzat jotzen du eskudun bihurtutako administrazioak eskatutako kreditua.	124/2022 E
125/2022	87/2021	2 ebazpen, 125/2022 E eta 126/2022 E. Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko (I+G+b) gastuengatikoen kenkariaren monetizazioa itzultzeko eskumena, Estatuko Administrazioaren sozietateen gaineko zergaren (SZ) araudian arautua, zergak eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaintzen dituen zergapeko baten kasuan. EIABek, besteak beste, monetizazioa dirulaguntzat hartzea gaitzesten du, eta sozietateen gaineko zergari dagokion ordainarazteko eskumena duen foru-administrazioari dagokiola deklaratu du, araudi erkidea aplikatzen den kasuetan, dagokion zergapekoaren tributazio-proportzioan itzultzeko kenkariaren monetizazioaren zenbatekoa I+G+B jarduerengatik.	125/2022 E
126/2022	39/2022 eta 56/2021		126/2022 E
127/2022	26/2019	10 ebazpen, 127/2022 E-tik 136/2022 E-ra. Ekonomia Itunaren 20.Bi.3 artikulua. Taldeko eragiketa-bolumenaren ehunekoak aplikatzea atxikipenen ordainarazpena zehazteko. EIABren aburuz, atxikitzailearen eragiketa-bolumena hutsala da; izan ere, taldea osatzen duten sozietateen eragiketa-bolumenaren batura edozein dela ere, subjektu pasiboak proportzioan ordainduko ditu zergak sozietateren batek eragiketak bi lurraldeetan egiten dituen bakoitzean, eta, era berean, ez du garrantzirik atxikitzailearen eragiketen kokapenak (banaka hartuta).	127/2022 E
128/2022	31/2019		128/2022 E
129/2022	50/2019		129/2022 E
130/2022	57/2019		130/2022 E
131/2022	81/2021		131/2022 E
132/2022	83/2021		132/2022 E
133/2022	7/2022		133/2022 E
134/2022	49/2022		134/2022 E
135/2022	51/2022		135/2022 E
136/2022	52/2022		136/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
137/2022	36/2018	PFEZ atxikipenak ordainarazteko eskumena, zeinak hauekin lotuta egin diren: foru-lurraldean emandako lanak edo foru-lurraldean bizi diren eta Estatuko Administrazio instituzionaleko erakundeei, zehazki ZAEARI, atxikitako jasotzaileak (errenta pasiboetarako). Arazo hori EIABk berak ebatzi zuen 15/2016 E eta 4/2017 E-etan, eta Auzitegi Gorena-ren 2018-04-17ko Epaia berretsi. EIABren ustez, Itunaren 7.2 artiku-luak erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak aipa-tzen dituenean, Estatuko Administrazio instituzionala osatzen dituzten erakunde guztiak biltzen dituela (baita ZAEA ere; izan ere ezohiko erakundea izan arren, eta sortu zuen 31/1990 Legeak kudeaketa-au-tonomiarekin jarduten zuela adierazi arren, ez da administrazio-agin-taritza independentea eta, hala badagokio, LOFAGE erakundeen ze-rrendaren barruan, ZAEA erakunde autonomoen sailkapenean sartuko zen era baketsuan, dituen berezitasunak gorabehera). Hortaz, gatazka egonez gero, Ekonomia Itunaren 7.Bat artikulua arau orokorra apli-katuko da (lanpostuen kokalekua edo pentsiodunaren zerbitzuak edo bizilekua), eta foru-administrazioari dagokio atxikipen horiek ordaina-raztea.	137/2022 E
138/2022	5/2022	13 ebazpen (horietako batzuetan hainbat espediente pilatu dira), 138/2022 E-tik 150/2022 E-ra. Ikerketa, garapen eta berrikuntza tek-nologikoko (I+G+b) gastuengatiko kenkariaren monetizazioa itzult-zeko eskumena, Estatuko Administrazioaren sozietateen gaineko zergaren (SZ) araudian arautua, zergak eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaintzen dituen zergapeko baten kasuan. EIABek, besteak beste, monetizazioa dirulaguntzat hartzea gaitzesten du, eta sozietateen gaineko zergari dagokion ordainarazteko es-kumena duen foru-administrazioari dagokiola deklaratu du, araudi erkidea aplikatzen den kasuetan, dagokion zergapekoaren tributa-zio-proportzioan itzultzeko kenkariaren monetizazioaren zenbate-koa I+G+B jarduerengatik.	138/2022 E
139/2022	43/2021		139/2022 E
140/2022	19/2020		140/2022 E
141/2022	17/2020, 88/2021		141/2022 E
142/2022	25/2020		142/2022 E
143/2022	58/2019, 34/2020		143/2022 E
144/2022	32/2020, 80/2021		144/2022 E
145/2022	24/2020		145/2022 E
146/2022	26/2020		146/2022 E
147/2022	91/2021		147/2022 E
148/2022	12/2019, 21/2020, 40/2020, 51/2019 eta 47/2022		148/2022 E
149/2022	04/2020		149/2022 E
150/2022	48/2022 eta 14/2021		150/2022 E
151/2022	6/2015	3. ebazpen 151/2022 E, 152/2022 E eta 153/202270/2022 E. Amore ematea. Arbitraje Batzordeak erabakitako prozeduraren xedea ge-rora galtzeagatik gatazka artxibatzea, gatazkan zegoen zerga-admi-nistrazioetako batek, beste administrazioak hala eskatuta, zergape-koaren (pertsona juridikoa) helbidea aldatzea onartu ondoren.	151/2022 E
152/2022	8/2015		152/2022 E
153/2022	9/2015		153/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
154/2022	19/2022	Zergapeko entitateak eragindako gatazka honi buruz: ea BEZaren itzulketak kobratzean jasandako atzerapenak, bi administrazioen artean zerga-egoitza ezartzeko jarraitutako prozedura luzatzearen ondoriozkoak, haren aldeko berandutze-interesen sortzapena justifikatzen duen eta zer administrazioek jasan behar duen interes horien ordainketa. EIABaren 15.2 artikulua eta Elren 66.Hiru artikulua: arau orokor gisa, zergapeko bat zergapetzen ari den administrazioak bere eskumenaren menpe edukitzen jarraitu behar du hura, eskumenaren inguruko auzia ebatzi arte; beraz, bere gain hartu behar ditu EIABaren 15.2 artikuluko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko berandutze-interesak.	154/2022 E
155/2022	37/2015	Amore ematea. Arbitraje Batzordeak erabakitako prozeduraren xedea gerora galtzeagatik gatazka artxibatzea, gatazkan zegoen zerga-administrazioetako batek, beste administrazioak hala eskatuta, zergapekoaren (pertsona juridikoa) helbidea aldatzea onartu ondoren.	155/2022 E
156/2022	38/2015	Administrazioen arteko desadostasuna Sozietateen gaineko Zergari buruzko ikuskapen-jarduketa orokorrak egiteko eskumenari buruz, zeina, era berean, entitatearen egoitza fiskalari buruzko desadostasun batetik eratorria den. Gatazkan dagoen tributu-administrazioetako batek beste administrazioak eskatutako zergapekoaren (pertsona juridikoa) egoitza-alaketa onartu duenez, bertan behera geratu da gatazka, eta EIABk hura artxibatu du, prozeduraren xedea gerora galtzearen ondorioz.	156/2022 E
157/2022	3/2017	Ordainarazpen-eskumenari buruzkoa, lurralde erkidean helbidertutako pertsona juridiko batek ZAEARI dagokion ikuskapen-eskumeneko orube bat eskuratzeari dagokionez, baita beste administrazioak parte hartu gabe bere kabuz erregularizatzeko eskumenari dagokionez ere. EIABk adierazten du desegokia dela BEZean aplikatzea subjektu pasiboaren inbertsio-erregela eta, horren ondorioz, foru-eskumena, transmisioan eragina izandako BEZa ordainarazteko.	157/2022 E
158/2022	41/2012	Administrazioen arteko BEZaren kuoten transferentzia, zergapeko entitatearen eragiketen bolumena erregulatu ondoren. Administrazioen arteko kredituak preskribatzea. EIABk adierazten du administrazio eskatzailearen eskubidea BEZaren tributazio-proportzioa transferitzeko.	158/2022 E
159/2022	32/2012	Zerga-betebeharrak duenaren, pertsona fisikoaren, zerga-egoitza zehaztea. EIABk adierazten du ez dela nahikoa tributu-administrazioak egindako egiaztapen-lana, aitortutako ohiko bizilekua indargabetzen saiatzeko, EKren 43. artikulua lehen erregelaren oinarriturik eta, horrela, EKren 43. art.-aren bigarren irizpidea aplikatu ahal izateko (interes-gunea).	159/2022 E
160/2022	31/2012	Erakunde zergapekoaren BEZaren tributazio-proportzioa zehaztea. EIABk adierazten du desegokia dela garraioaren hasierari buruzko araua aplikatzea, AGren 2323/2011 Epaia kontuan hartuta (ROVER epaia).	160/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
161/2022	42/2022	Zergapekoak planteatutako betearazpen-intzidentea, EIABren 1/2022 E ebazpenari dagokionez, zeinak zerga-egoitza lurralde erkidean deklaritzen zuen, eta, ondorioz, zeharka zehazten zuen BEZa itzultzeko eskumena. EIABek, halaber, administrazio eskudunari buruzko ebazpena eman du, BEZa itzultzeko atzerapenetik eta EIABaren 15.2 artikulua ez betetzetik eratorritako interesak ordaintzeko.	161/2022 E
162/2022	18/2015	Gatazka horren jatorria Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen (CCEN) esparruan izapidetutako zerga-kontsultarekin lotutako alde zuzeneko desadostasuna da, Ekonomia Itunaren 64 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. 7 milioi euro baino txikiagoko eragiketa-bolumena duen zerga-baterakuntzako talde baten sozietateen gaineko zerga ordainarazteko eskumena. EIABk zehazten duenez, taldeek eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen dituzte zergak, edozein izanda ere eragiketa-bolumenaren zifra eta zerga-egoitza.	162/2022 E
163/2022	11/2013	Nafarroako Zerga Ogasunean azaldutako gatazka. Erakunde zergapekoaren BEZaren tributazio-proportzioa zehaztea. EIABk adierazten du desegokia dela garraioaren hasierari buruzko araua aplikatzea, AGren 2323/2011 Epaia kontuan hartuta (ROVER epaia) eta zehazten du merkaturatzeko lana gatazkaren erakunde sustatzailearen lurraldean gertatzen dela.	163/2022 E
164/2022	29/2014	Ikuskapen-eskumenari eta ikuskapen-eskumenik gabeko administrazioak egindako egiaztapen-jarduketari buruzko gatazka. EIABk ebazten du adieraziz ikuskapen-eskumenik gabeko administrazioaren eskumengabetasun materiala, tributu-kudeaketaren prozeduraren bidez, zergapekoaren tributu-proportzioa aldatzeko.	164/2022 E
165/2022	20/2014	Lanaren atxikipenak PFEZn foru-lurraldeko lantoki bati atxikita, baina zerbitzuak lurralde erkidean ematen dituzten langileei dagozkienak. EIABk dioenez, ezin zaio indarrak kendu eskumena emateko arau orokorrari (zerbitzuak emateko lekua) arau osagarriaren alde (atxikipen-lantokia) prestazio osagarriari lotutako zerbitzu-ematean babestuta, zerbitzu-emate horiek beste lurraldean hondar-prestazioak direnean. Kredituak erreklamatzeko administrazioen arteko preskripzioa. EIABren aburuz, horri dagokionez, jurisprudentzia baketsua eta errepikatua da: administrazioen arteko zuzenbidea aurrekontuko izaera publikoko eskubidea da, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubidea ez bezalakoa. Dioenez, administrazioen arteko zuzenbidearen preskripzio-epea dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da etengo bere burua zergapekoaren eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik (hirugarren bat da administrazioen arteko harreman juridikoan).	165/2022 E
166/2022	13/2013	Lanaren atxikipenak PFEZn. Gatazka artxibatzea, prozeduraren xedea bat-batean galdu delako. Gatazkaren administrazio sustatzaileak atzera egitearen ondorioz, lekualdatutako langile ez-egoiliarren lan-atxikipenen zerga, telelanaren kasuan, bildu eta kobratzeko eskumenari dagokionez.	166/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
167/2022	52/2015	Gatazka artxibatzea Arbitraje Batzordeak erabakitako prozeduraren xedea bat-batean galtzeagatik, gatazkan zegoen zerga-administrazioetako batek, beste administrazioak hala eskatuta, zergapekoaren (pertsona juridikoa) helbidea aldatzea onartu ondoren.	167/2022 E
168/2022	53/2021	PFEZ atxikipenak ordainarazteko eskumena, foru-lurraldean egoitza duten eta Estatuko Administrazio instituzionaleko erakundeetan zerbitzuak eman dituzten pertsonen dagokienez eginda (emakumeak edo haien ezkontideak). Arazo hori EIABk berak ebatzi zuen 15/2016 E eta 4/2017 E-etan, eta Auzitegi Gorenaren 2018-04-17ko Epaia berretsi. EIABren ustez, Itunaren 7.2 artikulua erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak aipatzen dituenean, Estatuko Administrazio instituzionala osatzen dituzten erakunde guztiak biltzen ditu; hortaz, gatazka egonez gero, Ekonomia Itunaren 7.Bat artikulua arau orokorra aplikatuko da (lanpostuaren kokalekua edo pentsiodunaren bizilekua), eta foru-administrazioari dagokio atxikipen horiek ordainaraztea. Horrez gain, EIABk iritzia eman zuen administrazio-kredituen preskripzioaz, kontu horri buruzko doktrina eta jurisprudenzia errepikatuz (11/2014 E ebazpena eta Auzitegi Gorenaren 2015eko abenduaren 15eko, otsailaren 10eko, 2020ko abenduaren 3ko, 2021eko urtarrilaren 28ko eta 2020ko maiatzaren 18ko epaiak).	168/2022 E
169/2022	24/2015	Lan-atxikipenak PFEZean, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikulua aldatu aurretik atzerrian egindako lanei dagozkienak. EIABren gaiari buruzko doktrina errepikatuari egiten dio erreferentzia (24/2022 E) eta adierazten du langileak adskribatuta dauden lantokia dagoen lekuko administrazioari dagokiola atzerrian lan egiten duten langileen lan pertsonalagatik atxikipenak ordainarazteko eskumena.	169/2022 E
170/2022	40/2015	Lanaren atxikipenak PFEZn foru-lurraldeko lantoki bati atxikita, baina zerga-egoitza lurralde erkidean duten langileei dagozkienak. EIABen ustez, betebeharrak ez-nagusi horiek beste lurralde batean guztiz hondarrekoa den prestazioa ematea dakartenean, ez dira kontuan hartu behar, atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko, arau osagarriaren aplikazio behartua edo ez naturala izango liratekeelako (atxikipen-lantokia), irizpide nagusi edo orokorraren kaltetan (zerbitzuak emateko lekua).	170/2022 E
171/2022	35/2015	Lanaren atxikipenak PFEZn foru-lurraldeko lantoki bati atxikita, baina zerbitzuak lurralde erkidean ematen dituzten langileei dagozkienak. EIABk dioenez (20/2022 E-ren irizpidea), ezin zaio indarririk kendu eskumena emateko arau orokorrari (zerbitzuak emateko lekua) arau osagarriaren alde (atxikipen-lantokia) prestazio osagarriari lotutako zerbitzu-ematean babestuta, zerbitzu-emate horiek beste lurraldean hondar-prestazioak direnean.	171/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
172/2022	50/2015	Kredituak erreklamatzeko administrazioen arteko preskripzioa. ElA-Bren aburuz, horri dagokionez, jurisprudentzia baketsua eta errepikatua da: administrazioen arteko zuzenbidea aurrekontuko izaera publikoko eskubidea da, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubidea ez bezalakoa. Dioenez, administrazioen arteko zuzenbidearen preskripzio-epea dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da etengo bere burua zergapekoaren eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik (hirugarren bat da administrazioen arteko harreman juridikoan).	172/2022 E
173/2022	45/2012	Honi buruzko gatazka: ea BEZaren itzulketak kobratzean jasandako atzerapenak, bi administrazioen artean zerga-egoitza ezartzeko jarraitutako prozedura luzatzearen ondoriozkoak, haren aldeko berandutze-interesen sortzapena justifikatzen duen eta zer administrazioak jasan behar duen interes horien ordainketa. ElABaren 15.2 artikulua eta Elren 66.Hiru artikulua: arau orokor gisa, zergapeko bat zergapetzen ari den administrazioak bere eskumenaren menpe edukitzen jarraitu behar du hura, eskumenaren inguruko auzia ebatzi arte; beraz, bere gain hartu behar ditu ElABaren 15.2 artikuluko betebeharrak ez betetzearen ondoriozko berandutze-interesak.	173/2022 E
174/2022	10/2016 eta 51/2015	Lanaren atxikpenak PFEZn, foru-lurraldeko lantoki bati atxikita, baina zerbitzuak bai lurralde erkidean soilik ematen dituzten langileei dagozkienak, bai atzerrian soilik, baita lurralde erkidean eta atzerrian ere. Kredituak erreklamatzeko administrazioen arteko preskripzioa. ElABren aburuz, Jurisprudentzia baketsua eta errepikatua da: administrazioen arteko zuzenbidea aurrekontuko izaera publikoko eskubidea dela, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubidea ez bezalakoa. Dioenez, administrazioen arteko zuzenbidearen preskripzio-epea dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da etengo bere burua zergapekoaren eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik (hirugarren bat da administrazioen arteko harreman juridikoan). ElABk deklaritzen du gatazka sustatu dituen administrazioaren kreditu-eskubidea preskribatu dela demandatutako administrazioaren aurrean, Gizarte Segurantzaren organo kudeatzaileak hari bidegabeki sartutako lan-atxikipenei dagokienez.	174/2022 E
175/2022	39/2015	Lanaren atxikpenak PFEZn foru-lurraldeko lantoki bati atxikita, baina zerbitzuak foru-lurralde eta lurralde erkidean ematen dituzten langileei dagozkienak. ElABk adierazten du desegokia dela lan pertsonalari dagozkien atxikpenak ordainaraztea, lurralde erkidean edo foru-lurraldean zerbitzuak eman dituzten egunen kopuruaren proportzioan.	175/2022 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
176/2022	25/2017	Administrazioen arteko BEZaren kuoten transferentzia, zerga-egoitza aldatzearen ondorioz erregulatu ondoren. Administrazioen arteko kredituak preskribatzea. EIABen ustez, zuzenbide publikoko bi kreditu independente daude: administrazioaren eta zergapekoaren arteko harreman juridiko tributariotik eratorritakoa, eta administrazioen artekoa, egoitza-aldaketaren atzeraeraginaren ondorioz administrazio batetik bestera transferitu behar diren finantza-fluxuetatik eratorritakoa. Gerora eskumenik gabekoa suertatu den administrazioak zergapekoaren diru-sarrera jasotzen den unean hasten da kontatzen administrazioen arteko preskripzio-epea. Tributu-erregularizazioko prozeduran egindako preskripzioa eteteko jarduketek harreman juridiko tributarioan soilik izango dute eragina, eta, hala badagokio, gerora sortutako eskumena izan duen administrazioaren onurarako izan daitezke, baina ez administrazioen arteko harreman juridikoan.	176/2022 E
1/2023	14/2013	Atzeraeraginezko ondorioak dituen gatazka, pertsona juridiko baten zerga-egoitza zehazteari buruz. Zerga-egoitza kontu faktiko hutsa da; hortaz, EIABk aurkeztutako frogen balorazio globala egiten du eta, gainera, sozietatearen ezaugarriak eta jarduera kontuan hartzen ditu (telekomunikazio-zerbitzuak merkaturatzea), egoitza fiskala lurralde erkidean edo foru-lurraldean dagoen zehazteko.	1/2023 E
2/2023	28/2014	Atzeraeraginezko ondorioak dituen gatazka, pertsona juridiko baten zerga-egoitza zehazteari buruz (telekomunikazio-operadorea). Zerga-egoitza kontu faktiko hutsa da. Aurkeztutako frogak baloratu ondoren, EIABk baliozkotzat jotzen du administrazioetako batek aurkeztutako dokumentazioa; izan ere, erabakigarria ez bada ere, beste administrazioak ez du inolako frogarik garatu eta ez du bere argudioetan sakondu.	2/2023 E
3/2023	32/2015, 36/2016 eta 36/2017	Zerga-egoitza foru-lurraldean duen erakundea, zeinak Espainian eta Portugalen merkaturatzen baitu EBn erosten duen produktu bat. Desadostasuna eragiketak lurralde erkidean edo foru-lurraldean kokatzeari buruz, SZren eta BEZaren ondorioetarako (Rover epaiari aplikatutako kasua), eta eragiketak ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio gisa kalifikatzeari buruz. Desadostasuna, halaber, ikuskapen-eskumenari buruz eta, erakundearen zerga-erregularizazioaren ondorioetarako, tributu-administrazioek gauzatutako jarduketak zuzenbidearen arabekoak izateari buruz.	3/2023 E
4/2023	29/2015	Gatazka, galdaketa-piezak fabrikatzen eta saltzen dituen merkataritza-talde baten eragiketen kokapenari buruz (ROVER epaia), BEZaren ondorioetarako. EIABren aburuz, merkataritza-taldeak bere jardueretan balio erantsia sortzeko erabiltzen diren elementu material eta giza elementu guztiak dituen lurraldean egiten da fabrikazioaren eta merkaturatzearen balio erantsia. Eztabaida berari buruzkoa den 11/2013 E ebazpena aipatzen du eta, gatazka honetara eraman daitekeen eragiketen kokapenari buruzko irizpideari dagokionez, 7/2021 E eta 16/2022 E ebazpenak aipatzen ditu era berean.	4/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
5/2023	42/2015	Lanaren atxikipenak PFEZn, foru-lurraldeko lantoki bati atxikita, baina, EIABren aburuz, zerbitzuak lurralde erkidean ematen dituzten merkataritzako langileei dagozkienak. EIABren ustez, foru-lurraldean garatzen diren langile horien jarduerak osagarriak edo gehigarriak dira eta, gainera, hondar-denbora bat ekarri dute urteko lanaldia kontuan hartuta; beraz, ezin da horretan babestu arau gehigarriaren aplikazioa (adskripzio-lantokia), arau nagusiaren kaltean (zerbitzua ematen den lekua).	5/2023 E
6/2023	4/2015	Kudeaketa-jarduketa jakin batzuk egiteko ikuskapen-eskumenik ez duen administrazioaren eskumenari buruzko gatazka (BEZaren autolikidazioak aurkezteko errekerimenduak zergapekoari). Administrazioak ikuskapen-eskumenik gabe amore eman ondoren, EIABk balio gabetzat jo ditu egindako eskakizunak.	6/2023 E
7/2023	19/2023, 40/2017 eta 1/2013	Ikuskapen-eskumenari eta ikuskapen-eskumenik gabeko administrazioak egindako egiaztapen-jarduketei buruzko gatazka (BEZaren kuotak zuzentzeko errekerimenduak). Ekonomia Itunean kudeaketa- eta ikuskapen-eskumenak banatzeari dagokionez, EIABk 19/2022 Ebazpena aipatzen du. Zergapekoak emandako azalpenen ondorioz, gatazka sustatu duen administrazioak (ikuskapen-eskumena duen administrazioak) atzera egin du, egiaztatu baita ez dagoela desadostasunik ikuskapen-eskumenik ez duen administrazioak egindako likidazioei dagokienez. EIABk gatazkak artxibatzea deklaratu du, prozeduraren xedea gerora galtzearen ondorioz sustatzaileak atzera egin delako.	7/2023 E
8/2023	16/2013 eta 37/2017	BEZa eta Sozietateen gaineko Zerga ordainarazteko eskumena. Makila-kontratu baten babesean produktu siderurgikoak fabrikatzeko eta merkaturatzeko jarduerari dagokionez, eragiketen kokapenari buruzko desadostasuna. Eskura jartzeko tokiaren irizpidea edo garraioa hasteko irizpidea aplikatzea. ROVER epaia. EIABk deklaritzen du makila-kontratua duen taldeko sozietateak (egoitza fiskala foru-lurraldean duenak) fabrikatzen dituen produktuen salmentak, egoitza fiskala foru-lurraldean duen zergapekoak egiten dituenak, sozietate horren lan-tegian kokatzen direla. Adierazi du bertan sortzen dela produktuaren balio erantsiaren zatirik handiena eta, beraz, produktua bezeroen eskura jartzeko lekua dela.	8/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
9/2023	17/2013	BEZaren kuotak erregularizatzearen ondoriozko gatazka, eskumen-aldaketa baten ondorioz, eraikinak sustatzen dituen entitate bati buruzko egiaztapen-prozedura batean agerian geratu dena. EIABk adierazpena eman du honako hauen inguruan: i) jasandako BEZaren kuoten konpentsazioa eta itzulketa eskatzeko eskubidearen galera; ii) administrazioen arteko saldoen lekualdaketa; iii) aurreko aldi batean sortutako eta konpentsatu beharreko saldo baten egiaztapena; eta iv) eskudun ez den administrazioan autolikidazioa aurkeztea eta horrek BEZaren neutraltasunarekin duen lotura. EIABk ondorioztatzen duenez, Administrazioetako baten aurrean egindako itzulketa-eskaerak, aipatutako itzulketa eskuratzeko eskubidea preskribatu ez den neurrian, kuota nahikoa ez izateagatik konpentsazioa lortu ezin izan denetik 4 urte baino gehiago igaro ez direlako, ondorioak ditu eta beste administrazioaren aurrean planteatuta dagoela ulertu behar da (azkenean eskudun gisa berretsitakoa). Izan ere, bestela, esan nahi du zergapekoak administrazio eskuduna definitzean egindako okerrak, nahiz eta preskripzio-epearen barruan zuzendu, administrazioen artean konpentsatu beharreko saldoak ez eskualdatzeari buruzko jurisprudentzia urratzea zehaztuko lukeela.	9/2023 E
10/2023	9/2014	Atzeraeraginezko ondorioak dituen gatazka, pertsona juridiko baten egoitza fiskala zehazteari buruz. Demandatutako administrazioak egoitza aldatzeko proposamena onartzen du (foru-lurraldetik lurralde erkidera), baina ondorio-data zehatz bat ezartzen du, eta gatazka sustatu duen administrazioak onartu egiten du. Eztabaida desagertuta, EIABk egoitza fiskala lurralde erkidean dagoela berretsi du.	10/2023 E
11/2023	26/2014	Desadostasuna gatazka sustatu duen administrazioak egoitza aldatzeko egindako proposamenaren ondorio-datari buruz. Administrazioek egoitza-aldaketen kasuetan jarraitu beharreko faseak azaldu ondoren, EIABk dio gatazka sustatu duen administrazioaren jarrera –ez du demandatutako administrazioaren jarrera gezurtatzen duen azken alegazioen idazkirik aurkeztu, norberaren egintzen teoriarekin koherente izanik– kontrako administrazioak emandako argudioak onartzetzat baizik ezin dela interpretatu.	11/2023 E
12/2023	35/2014	Pertsona juridiko baten egoitza fiskala zehaztea. EIABk inguruabar zehatzak baloratzen ditu eta uste du ZAEAk zergapekoak aitortutako egoitzaren aurka adierazi nahi dituen frogak ez direla nahikoa. Hortaz, EIABk adierazten du ez dagokiola ZAEAk proposatutako egoitza-aldaketa.	12/2023 E
13/2023	1/2015	Pertsona juridiko baten egoitza fiskala zehaztea. EIABk, inguruabar zehatzak aztertu ondoren, hala nola sozietatearen kudeatzaile-administratzailearen bizilekua, ahaldunaren bizilekua, hornitzaileen kokapena, kontabilitatea egiten den bulegoaren kokapena eta jardueraren zati handiena egiten den lekua, ondorioztatzen du zergapekoaren egoitza fiskala lurralde erkidean zegoela 2011/03/08az geroztik.	13/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
14/2023	31/2015, 41/2017, 74/2021 eta 30/2015	Egoitza fiskala Araban duen zergapekoaren BEZarengatiko (2008-2016) eta SZarengatiko (2008-2010 eta 2014-2016) tributazioaren proportzioa zehaztea. Ez daude ados, ordea, zergapekoak merkataritza-talde bereko beste sozietate batek lurralde erkidean fabrikatutako produktuen salmentarekin. Aipatu produktuak ekoizlearen instalazioetatik bidaltzen zaizkio bezeroari, Arabatik igaro gabe. EIABk ondorioztatzen du kasu honetan aplika daitezkeela 2/2018 Errege Dekretua ematea eragin zuen gatazkan gertatu ziren inguruabar berberak, baina alderantziz, eta horrek bide ematen du ondorioztatzeko salmentak lurralde erkidean daudela, ulertzen delako bertan dituela bere esku talde ekonomikoaren instalazioak eta merkaturatze langileak dituela; gainera, funtsezkoa da salgaiak kokatzea, garraioaren kostua kontuan hartuta.	14/2023 E
15/2023	5/2015	Helburua pertsona fisiko baten 2013/05/14tik 2014/01/01era bitarteko zerga-egoitza zehaztea da. EIABk adierazten du zantzu-frogen bidez zehaztu daitekeela zergapekoaren benetako bizilekua. Frogak aztertu ondoren, EIABk ondorioztatzen du Elko 43.1.3. artikuluko presuntzioak gailendu behar duela (PFEZaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza), gatazka planteatu duen administrazioak ez baitu behar bezala egiaztatu egoitza fiskala Bizkaira aldatzea benetakoa eta eraginkorra ez denik.	15/2023 E
16/2023	41/2015	Helburua lan pertsonalaren atxikipen jakin batzuk ordainarazteko eskumena zehaztea da, lurralde erkidean eta atzerrian egindako lanek dagokienez, PFEZaren ondorioetarako. EIABk adierazten du ZAEari dagokiola 2009-2011 urteetan eztaba-dagai diren langileen ordainarazpen-eskumena, lanen zati bat lurralde erkidean egiten delako eta bertan kokatzen delako, batez ere, langileen atxikipen-lantokia, eta, aldi berean, ohiko egoitza lurralde erkidean dutelako.	16/2023 E
17/2023	19/2015	Zergapekoaren eragiketen kokapena zehaztea.	17/2023 E
18/2023	27/2015 eta 28/2015	EIABk dio garraioaren abiapuntua jada baztertu zuela Auzitegi Gorenaren 2323/2011 Epaiak (ROVER Epaiak gisa ezagunagoa), zergaren aplikazio-lurraldearen barruan igarotzen diren garraioen kokapenaren irizpide gisa. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren eta EIABren 7/2021, 16/2022, 160/2022 eta 163/2022 ebazpenen arabera, merkaturatze-lanaren balio erantsia enpresak lan hori egiteko baliabide materialen eta giza baliabideen egitura nahikoa duen merkataritza-ordezkaritzak dituen tokian gertatzen da.	18/2023 E
19/2023	46/2015	GFAk gatazka planteatzen du NLOren aurrean, zeinaren xedea pertsona juridikoaren zerga-egoitza zehaztea baita, 2012/10/23an eratu zenetik. EIABk ondorioztatzen du zergapeko erakundearen negozioen kudeaketa eta administrazioa beste entitate batek egiten duela (lehenengoaren bazkide bakarra), bere langileen bitartez, Nafarroatik, eta zergapekoa, berezko nortasun juridikoa izan arren, jarduera Gipuzkoan garatzeko tresna hutsa dela.	19/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
20/2023	48/2015	Pertsona juridikoaren egoitza fiskala zehaztea 2014/19/29an eratu zenetik. BFAk gatazka planteatzen du, uste duelako egoitza lurralde erkidean dagoela. Hori ebazteko, EIABk zehazten du alderdiek egiaztatutako inguruabarren balorazio orokorrak aukera ematen duela pentsatzeko Bizkaian bulego bat dagoela eta bulego horretan negozioen zuzendaritza egin daitekeela. EIABk adierazten du ez dela bidezkoa zergapekoaren egoitza fiskala aldatzea.	20/2023 E
21/2023	23/2015	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza zehaztea, bere merkatariztaldean enpresak berregituratzeko eragiketa batzuk egin ondoren. EIABk Auzitegi Gorenaren 2015/06/18ko Epaia jasotzen du, zeinak berretsi egiten baitu 14/2013 Ebazpena, zeinaren bidez lehentasuna ematen baitzaio erabaki estrategikoak hartzeari, aurrekoak be-tearatzeko hartutako erabaki aplikagarrien aurretik. EIABk uste du ez dela bidezkoa egoitza aldatzea; izan ere, eztabaidagai den al-dian egiaztatuta geratu da zergapeko erakundea zenbait azpiegitura ku-deatzeko eta, ondoren, taldeko erakunde nagusiari alokatzeko tres-na gisa erabiltzeko erabaki estrategikoak haren barruan hartu zirela (lurralde erkidean helbideratua).	21/2023 E
22/2023	66/2022 eta 62/2022	Zergapeko entitateak sustatutako gatazka negatiboak, BEZa or-dainarazteko eskumena zehazteari buruzkoak, establezimendu iraunkorrik gabeko entitate ez-egoiliar horren eta haren foru-esku-meneko filialaren arteko eragiketei dagokienez. Espedientea artxibatzea administrazioetako batek amore eman duelako, erakundeari jasanarazitako BEZa itzultzeko eskumena bere gain hartu ondoren.	22/2023 E
23/2023	44/2019	Taldeko eragiketa-bolumenaren ehunekoak aplikatzea atxikipenen ordainarazpena zehazteko. 127/2022 Ebazpenetik 136/2022 Eba-zpenera doazen 10 ebazpenetan EIABk dagoeneko ebatzitako gaia da. Ekonomia Itunaren 20.2.3 artikulua. EIABren aburuz, atxikitzailearen eragiketa-bolumenak ez du garran-tzirik; izan ere, taldea osatzen duten sozietateen eragiketa-bolumenaren batura edozein dela ere, subjektu pasiboak proportzioan or-dainduko ditu zergak sozietateren batek eragiketak bi lurraldeetan egiten dituen bakoitzean eta, era berean, ez du garrantzirik atxikit-zailaren eragiketen kokapenak (banaka hartuta).	23/2023 E
24/2023	55/2019	Zergapekoak gatazka negatiboa planteatzen du BFaren eta ZAEA-ren aurrean, 2014. urtea baino lehen jasandako BEZaren kuotak eta dagozkien interesak ordainarazteko (itzultzeko) eskumena zehaz-teari dagokionez. EIABk adierazten du BFari dagokiola zergapekoaren 2013ko BEZa ordainarazteko eskumena eta, hala badagokio, dagozkion beran-dutze-interesak ordaintzeko betebeharra. Adosten da ZAEAk BFA-ri igorri behar diola 2013ko otsailaren 9tik 2014ko martxoaren 7ra bitartean jasandako BEZaren saldoetatik sortutako konpentsatzeko BEZaren autolikidazioen saldoa.	24/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
25/2023	6/2016	Egoitza fiskala atzerrian duen eta foru-lurraldean Estatuko funtzionario gisa zerbitzuak ematen dituen pertsona fisiko batek lortutako lan-etekinei dagozkien EEZren atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea. EIABk gatazka artxibatzea erabakitzen du, ZAEAk amore eman iza-nak prozeduraren xedea gerora desagertzea ekarri duelako, eta onartzea GFaren atxikipenak ordainarazteko duen eskumena.	25/2023 E
26/2023	53/2022	Gatazka negatiboa, pertsona batek PFEZ 2016-2019 ordainarazteko eskumenari buruz sustatua, bi administrazioak, forala eta estatukoak, eskuduntzat jotzen zirela interpretatzean. EIABk zehazten du ez dagoela gatazka negatibo bat aurkeztea babesten duen inguruabarrik eta, beraz, zergapekoak planteatutako gatazka negatiboa izapidetzeko ez onartzea erabaki du.	26/2023 E
27/2023	9/2016	Zergapekoaren egoitza fiskala aldatzeko proposamena, 2007/01/10 era arteko atzeraeraginekin. EIABk gatazka artxibatzea erabakitzen du, prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitio egoitza GFatik lurralde erkidera aldatzeko proposamenari.	27/2023 E
28/2023	1/2017	Zergapekoaren eragiketen bolumena zehazteko eskumenari buruzko gatazka. EIABk adierazten du nahitaez egin beharreko eragiketen bolumenaren proportzioa egiaztatzeko ZAEAk egiten dituen jarduerak 19/2022 Ebazpenean aipatzen den datu-hartze soila gainditzeko duela. Horrek esan nahi du deuseza dela ZAEAk jarraitutako egiaztapen-prozedura eta horren edozein egintza, zergapekoak aitortutako proportzioa erregularizatuz. Egiaztapen-jarduketak hori eta zergapekoaren ondorengo jarduketak baliogabetzea erabaki du, proportzio erregularizatua eta ZAEaren likidazio-egintza zuzenduz.	28/2023 E
29/2023	11/2016	PFEZeko lan-atxikipenak, nagusiki atzerrian zerbitzuak ematen dituzten (baina baita foru-lurraldean eta lurralde erkidean ere) eta foru-lurraldeko lantoki bati atxikita dauden pertsonen dagozkienak, Ituneko 7.1.a) artikulua aldatu aurreko aldiei dagokienez. EIABk argudiatu du, aurreko aldiekiko interpretazio-parametro gisa, Ekonomia Itunean 2017an ezarritako arau berria aplikatzea, atzerrian emandako zerbitzuei dagozkien lan-atxikipenei buruzkoa (adskripzio-lantokia). Halaber, adierazten du lan-prestazioak egiteko lekua- ren irizpidea prestazio horiek lurralde bakar batean –foru-lurraldean edo estatukoan– egiten direnean baino ezin dela aplikatu. EIABk adierazten du demandatutako administrazioak ez duela lan per-sonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumenik, lurralde erkidean eta atzerrian lan egindako egun kopuruari dagokion proportzioan.	29/2023 E
30/2023	9/2017	Pertsona fisikoaren egoitza fiskala aldatzeko proposamena, data jakin batetik aurrerako ondorioekin.	30/2023 E
31/2023	13/2017	EIABk gatazkak artxibatzea erabaki du, prozeduren xedea gerora desagertu delako, demandatutako administrazioak amore eman baitio zergapekoak egoitza lurralde erkidera aldatzeko proposame-nari.	31/2023 E
32/2023	46/2017		32/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
33/2023	30/2016	2003tik egoitza fiskala lurralde erkidean duen pertsona bat 2012/02/28an hil izanaren ondoriozko Oinordetzen gaineko Zerga ordainarazteko eskumena zehaztea da xedea. EIABek gogorarazten du administrazioek ezin dituztela egiaztapen-jarduketak hasi zerga bati dagokionez eta likidazioan amaitzeko helburuarekin, ez badute eskumenik zergapekoaren gainean. Era berean, BFAk ezin du oinordetzen gaineko zerga ordainarazteko eskumena bere gain hartu aldez aurretik egoitza fiskalaren aldaketa lortu gabe, gutxienez 2011. urtekoa. EIABk ebazten du zerga ordainarazteko eskumena ZAEAr dagokiola.	33/2023 E
34/2023	14/2017	Enpresa berregituratzeko eragiketa batzuen ondoren pertsona juridiko batek egoitza fiskala aldatzeari buruzko gatazka. EIABk gatazkak artxibatzea erabaki du, prozeduren xedea gerora desagertu delako, demandatutako administrazioak amore eman baitio gatazka sustatu duen administrazioak egoitza lurralde erkidera aldatzeko egindako proposamenari –ondorioen atzeraeragineko data erakundea eratu zen eguna da, eta xurgatu zen egunera arte–.	34/2023 E
35/2023	20/2017	PFEZeko lan-atxikipenak, foru-lurraldeko lantoki bati atxikita egonik zerbitzuak atzerrian ematen dituzten pertsonen dagozkienak, Ituneko 7.1.a) artikulua aldatu aurreko aldiei dagokienez. Demandatutako administrazioak amore emateak eta gatazka sustatu duen administrazioak lan-etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko duen gaitasuna onartzeak bi administrazioen arteko gatazka bertan behera uzten du eta, ondorioz, prozeduraren xedea gerora desagertu eta artxibatu egiten da.	35/2023 E
36/2023	25/2015	Egoitza fiskalaren aldaketa, 2013ko urriaren 18rako preskribatu gabeko ekitaldi guztietarako ondorioekin. EIABk administrazioek aurkeztutako frogak baloratu ditu eta adierazi du zergapekoaren egoitza fiskala Gipuzkoan dagoela, eta zergapekoaren jardura nagusia probintzia horretan kokatutako merkataritza-zentro batean dauden merkataritza-lokalen alokairua dela. Ondorioz, EIABk ondoriozta dezake zergapekoaren egoitza fiskala helbide horretan dagoela.	36/2023 E
37/2023	5/2017	Zergapekoak lan pertsonalagatik 2013an eta 2014an egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea da helburua. EIABk errepikatzen du atzerrian egindako lanei dagozkien atxikipenak ez dagozkiola Estatuari, baizik eta langilea zer lantokiri atxikita dagoen, bada toki horri dagokion Administrazioari. EIABk gogorarazten du 39/2015 eta 11/2016 gatazketan adierazi duela Ekonomia Itunaren espirituaren aurkakoa dela lan pertsonalaren atxikipenak hainbat administrazioen artean banatzea –alegia, foru-lurraldean eta lurralde erkidean lan egindako egunen kopuruaren proportzioan banatzea–. Ondorioz, deklaritzen du ZAEAk ezin dituela erregularizatu lan pertsonalaren atxikipenak langileek foru-lurraldean eta lurralde erkidean lan egin duten egunen proportzioan; beraz, ikuskapen-prozeduraren helburua ez zenez Estatuari dagozkion atxikipenengatiko ordainarazpenak erregularizatzea, beharrezko diren gaikuntza-eskumenik gabe gauzatu da.	37/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
38/2023	8/2016	Zergapekoak eratu zenetik izan duen egoitza fiskala zehaztea da helburua. EIABek jotzen du alderdiek ez dutela aurkeztu behar adina zantzu benetako zuzendaritzaren irizpidearen arabera kokatzeko. Beraz, ibilgetuaren balio handienaren hondar-irizpidea aplikatuta eta, beraz, BFaren eskaerarekin bat etorritik, ulertzen da zergapekoaren egoitza fiskala Kantabriar dagoela.	38/2023 E
39/2023	29/2016 eta 12/2016	Zergapekoaren 2008-2011 ekitaldietako SZ alde bakarretik erregularizatzeko eskumena zehaztea. EIABek deklaritzen du ZAEAk 2008-2011 sozietateen gaineko zergari lotutako eragiketak egiaztatze prozeduran BFari parte hartzeko aukera eman behar ziola, datuak eta informazioa, irizpideak eta balorazioak trukatu, eta, hartara, bi administrazioek aldebikotasunez aplikatzen ez dituzten erregularizazioak onartzearen ondorioz lotura-perimetroko erakunde guztietan gainezarpenera fedeez ekidin ahal izateko.	39/2023 E
40/2023	1/2018	2012tik 2014ra bitarteko lan pertsonalaren atxikpenak ordainarazteko eskumena zehaztea, ZAEaren arabera lurralde erkidean bakarrik egin baitzizuten lan. Administrazio arteko kreditu publikoko zuzenbidearen preskripzio-epea dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da eteten zergapekoaren eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik. Hori dela eta, EIABek jotzen du preskribatuta dagoela ZAEak kreditu publikorako duen eskubidea, alegia, zergapekoak 2012ko eta 2013ko lehen hiruhilekoko epean sartutako atxikpenak GFari erreklamatzeko. Azkenik, ondorioztatzen du ZAEak egiaztatu duenez, langileek lurralde erkidean bakarrik eman zituztela zerbitzuak eta, beraz, atxikpenak Estatuari dagozkiola, Ekonomia Itunaren 7.1.a) artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Ondorioz, GFAk ZAEari bidali beharko dizkio langile horien preskribatu gabeko lan pertsonalaren atxikpenak.	40/2023 E
41/2023	33/2016	Zergapekoak 2011. urtean lurralde erkidean bakarrik lan egin zezaketen zenbait langileri egindako lan pertsonalaren atxikpenak ordainarazteko eskumena zehaztea. EIABk administrazio arteko zuzenbidearen preskripzio-epea dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da eteten zergapekoaren eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik. Preskribatutaz jotzen du ZAEaren administrazio arteko eskubide publikoa, zergapekoak 2011n egindako lan pertsonalaren atxikpenak GFari erreklamatzeko.	R 41/2023

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
42/2023	7/2014	SZk eta BEZak 2009-2012 aldian ikuskapen-eskumenik ez duen Administrazioaren eragiketa-bolumena egiaztatzeko ahalmenen irismena zehaztea. EIABk ondorioztatzen du ZAEAk gehiegikeriaz jokatu duela zergapekoaren eragiketen bolumena egiaztatzeko eskaera justifikatzen duen txosten bat egiteko eskumenak baliatzean. Ondorioz, adierazten du ZAEAk 2009-2012 urteetako Sozietateen gaineko Zergari eta BEZari buruz egindako informazio-errekerimenduek gainditu egiten dutela Ekonomia Itunak ordainarazteko eta kudeatzeko (baina ez ikuskatzeko) eskumena duen administrazioari esleitzen dizkion eskumenen eremua.	42/2023 E
43/2023	4/2018	Egoitza fiskala Gipuzkoan duen zergapekoak egindako 2013-2015eko lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea, zerbitzuak lurralde erkidean soilik eman zituzten langile batzuei dagokienez. Administrazio arteko kreditu publikoko zuzenbidearen preskripzio-epea dirua bidegabe sartzen den unean hasten da, eta ez da eteten zergapekoaren eskuduntzat jotzen duen administrazioak jarraitzen duen zerga-prozeduran egiten diren egintzengatik. Hori dela eta, EIABk preskribatutzat deklaratzeko du ZAEAk kreditu publikorako duen eskubidea, alegia, zergapekoak 2013ko lehen hiruhilekoko epean sartutako atxikipenak GFari erreklamatzekoa. Horrez gain, deklaratzeko du Estatuari dagokiola ZAEAk egiaztatu duen lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumena, 2013ko gainerako hiruhilekoei eta 2014ko eta 2015eko gainerako hiruhilekoei dagokienez (2013ko lehen hiruhilekoa preskribatuta dago).	43/2023 E
44/2023	14/2020	Zergapekoak zerga-konsulta bat aurkeztu zion BFari, jakiteko zein administrazioan aurkeztu behar dituen BEZaren eta SZaren likidazioak, eta non dauden bere eragiketak. Zergapekoak atzera egiteak, interes orokorreko kontua ez bada, prozedura amaitzea dakar, salbu eta alderdietako batek prozedura jarraitzeko eskatzen badu, 39/2015 Legearen 94. artikularekin bat etorritik. Nolanahi ere, EIABk uste du, kontsulta egin zenetik igarotako denbora kontuan hartuta, erantzunak ez lukeela berez dago-kion eragina izango –hau da, kontsultagileari segurtasun juridikoa ematea–, eta, beraz, prozeduraren xedea gerora galdu egin dela, 39/2015 Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako ondorioekin.	44/2023 E
45/2023	11/2017	Egoitza fiskala Araban duen zergapekoak egindako 2011ko lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea, zerbitzuak lurralde erkidean soilik eman zituzten langile batzuei dagokienez. EIABk preskribatutzat deklaratu du ZAEAk AFaren aurrean administrazio arteko kreditu publikorako duen eskubidea, zergapekoak 2011. urteari dagokionez egindako atxikipenak erreklamatzeari dagokionez, lurralde erkidean bakarrik lan egin zuten eta 2012ko irailearen 21a baino lehen Foru Ogasunean sartu ziren langileei.	45/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
46/2023	10/2017	Egoitza fiskala Araban duten zergapekoek 2007. eta 2008. urteetako lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea, zerbitzuak lurralde erkidean soilik eman zituzten langile batzuei dagokienez. Hori dela eta, EIABk bi kasuetan preskribatutzat jotzen du ZAEAk AFARI epe barruan sartutako atxikipenak erreklamatzeko duen kreditu publikoko eskubidea, 2007. urteari eta 2008. urteari dagokienez, zerbitzuak lurralde erkidean soilik eman eta sarrerak AFAn egin zituzten langileei dagokienez; izan ere, administrazio arteko kredituaren lehen erreklamazioa kasu batean 2012/11/29an egin zen eta bestean 2013/04/30ean, eta, ondorioz, sartutako atxikipenak 4 urte baino gehiago egongo lirateke preskribatuta errekerimendu hori egin aurretik.	46/2023 E
47/2023	12/2017		47/2023 E
48/2023	32/2017 eta 13/2016	Zergapekoak 2009tik 2011ra bitartean zuzendaritza-eginkizunak dituzten Administrazio Kontseiluko bi kideri egindako atxikipenak ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumena zehaztea. Ordainsari gehigarri horiek lehendakari eta kontseilari delegatu gisa funtzio betearazleak betetzen dituzten bi kontseilari bakarrik dagozkien, EIABk zalantzarik gabe uste du arduraldi-plusa barne hartzen duela, banakakoa eta ez kide anitzekoa, haien jarduera gainerako kontseilarienetik bereizten duena. Hori dela eta, adierazten du ez dela bidezkoa pentsatzea zergapekoaren bi kontseilari 2009-2011 urteetan presidente eta kontseilari delegatu gisa dituzten funtzio exekutiboak betetzeagatik egindako atxikipenak ordainarazpen-eskumena duten administrazioei eragiketen bolumenaren proportzioan ordaindu behar zaizkiela ordaintzailearekin alderatuta.	48/2023 E
49/2023	28/2016, 26/2016	2012ko BEZa eta SZa ordainarazteko eskumena zehaztea zergapekoari dagokionez; zergapekoa egoitza fiskala Bizkaian duen entitatea da. Gatazkaren oinarrian bi auzi desberdin daude: alde batetik, ZAEAk egindako egiaztapen-prozeduren legezkotasuna eta, bestetik, 2012ko BEZ eta SZ ordainarazteko eskumena. EIABek zehazten du ikuskapen-eskumena duen Administrazioak egiaztatu behar duela eragiketa-bolumena, zerga-ikuskaritzako prozedura baten bidez (kudeaketako prozedura bat bazterretsiz).	49/2023 E
50/2023	17/2017	Egoitza fiskala Araban duten zergapekoek 2012. urtean lurralde erkidean soilik lan egin zuten zenbait langileri egindako lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea. EIABk preskribatutzat jotzen du ZAEAk AFARI epe barruan ordaindutako atxikipenak erreklamatzeko duen kreditu publikoko eskubidea, 2012. urteari dagokionez, zerbitzuak lurralde erkidean soilik eman zituzten eta sarrerak Foru Ogasunean egin zituzten enplegatuei dagokienez; izan ere, administrazio arteko kredituaren lehen erreklamazioa kasu batean 2017/03/03an egin zen eta bestean 2017/02/20an, eta, ondorioz, errekerimendu hori baino 4 urte lehenago sartutako atxikipenak preskribatuta egongo lirateke.	50/2023 E
51/2023	23/2017		51/2023 E
52/2023	15/2020	Kontsulta egin duenak jakin nahi du Oinordetzen gaineko Zerga Espainian eta, zehazkiago, Bizkaian aurkeztu behar ote duen. EIABk prozedura artxibatutzat jotzen du, bestelako izapiderik egin gabe, bere xedea gerora galdu duelako (arrazoizko epean erantzun bat eman ahal izatea, aseguru-etxeari zerga-betebeharrak betetzeko segurtasun juridikoa emateko).	52/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
53/2023	29/2017	Egoitza fiskala Bizkaian duen zergapekoak 2011tik 2014ra egindako lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea, zerbitzuak lurralde erkidean soilik eman zituzten langile batzuei dagokienez. Auzitegi Gorenaren 2015/12/15eko, 2022/02/10eko, 2020/12/03ko, 2021/01/28ko eta 2020/05/18ko epaiak aipatuz, deklaratzeko du preskribatu egin dela administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidea, 2015/09/29a baino 4 urte lehenago BFARI sartutako atxikipei dagokienez, eta gainerakoak, 2011ko lan-etekinei dagokienez, lurralde erkidean soilik zerbitzuak eman zituzten langileetako 204ri eman behar zaizkiela.	53/2023 E
54/2023	5/2018	Lan-atxikipenak PFEZe, lurralde erkidean bizi diren langileek egoitza-portua foru-lurraldean duen itsasontzi batean egindako lanei dagozkienak, Ekonomia Itunaren 7.1.a) artikulua aldatu aurretik. EIABk gogorarazi du Auzitegi Gorenak dagoeneko ebatzita duen gaia dela: itsasontzia adskribatuta dagoen egoitza-portuari dagokion administrazioa da itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten langileen lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena duena, lantokizat hartzen baita ondorio horietarako.	54/2023 E
55/2023	39/2020	AKEBen eremuan izapidetutako zerga-konsultaren inguruko aurretiazko desadostasun batean du jatorria gatazka horrek. Kontsultagileak galdetu du ea bat egiteko, zatitzeko, diruzkoa ez den ekarpena egiteko eta balore-trukea egiteko eragiketen araubide berezia aplikatu dakiekeen balore-trukeei, baita enpresa berregituratzeko eragiketan baliozko arrazoi ekonomikorik dagoen ere. EIABk prozedura artxibatutzat jotzen du, bestelako izapiderik egin gabe, bere xedea gerora galdu duelako; hau da, arrazoizko epean erantzun bat eman ahal izatea, kontsultagileari segurtasun juridikoa emateko, enpresa berregituratzeko eragiketa baten ondoriozko zerga-betebeharrak betetzeko orduan.	55/2023 E
56/2023	37/2018	AKEBen eremuan izapidetutako zerga-konsultaren inguruko aurretiazko desadostasun batean du jatorria gatazka horrek. Bi administrazioari (BFA eta OFPM) kontsulta bera aurkeztu zaie, 2018ko Sozietateen gaineko Zergari eta BEZari buruzko araudiaren eta ikuskapen- eta kudeaketa-eskumenen inguruan. EIABk prozedura artxibatutzat jotzen du, bestelako izapiderik egin gabe, bere xedea gerora galdu duelako (arrazoizko epean erantzun bat eman ahal izatea, aseguru-etxeari zerga-betebeharrak betetzeko segurtasun juridikoa emateko).	56/2023 E
57/2023	06/2017	AKEBen eremuan izapidetutako zerga-konsultaren inguruko aurretiazko desadostasun batean du jatorria gatazka horrek. Kontsulta, Europar Batasunaren barruko ibilgailu berrien entregean BEZaren ordainarazpenari buruzkoa. Kontuan hartu behar da merkataritza-kudeaketa osoa lurralde erkidean egiten dela, hortxe baitu egoitza nagusia, eta ibilgailuak Arabako zelai batean egoten dira gordeta, garraiatzen diren arte; hau da, Arabako zelaia ibilgailuen izakinen biltegia baino ez da.	57/2023 E
58/2023	07/2017	EIABk deklaratu du prozedura beste izapiderik gabe artxibatu dela, haren xedea gerora galdu delako, EIAB honek 4/2017 gatazka dela eta egindako kontsultari jada erantzun baitio.	58/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
59/2023	03/2019	AKEBen eremuan izapidetutako zerga-konsultaren inguruko aurre-tiazko desadostasun batean du jatorria gatazka horrek. Kontsultagi-leak eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen dizkio zergak BFARI, eta 2016tik aurrera egindako eragiketen kokapenagatik kontsultatzen du, Bizkaian biltegia alde batera utzi ondoren. EIABk artxibatutzat jotzen du prozedura, beste izapiderik gabe, xedea gerora galdu delako (xedea, hain zuzen ere, zergapekoari segurtasun juridikoa ematea da, 2016an zerga-betebeharrak betetzeko orduan).	59/2023 E
60/2023	14/2016	Zergapeko den pertsona juridikoaren egoitza fiskala zehaztea. EIABk adierazten du zergapekoaren egoitza fiskala lurralde erki-dean dagoela, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin; izan ere, egoitza horretan ditu negozioa administratzeko giza baliabi-deak eta baliabide materialak, bertan egiten ditu bere zuzendaritza eta kudeaketa, eta, azken batean, bertan egiten du bere jarduera nagusia.	60/2023 E
61/2023	22/2019 eta 23/2019	AKEBen eremuan izapidetutako zerga-konsultaren inguruko aurre-tiazko desadostasun batean du jatorria gatazka horrek. Bere mer-katuratze-eragiketen kokapenari buruzko zerga-konsulta, 2018an eragiketa-bolumenean zergapetu behar dituen erregaien handi-zkako salmentari dagokionez. EIABk prozedura artxibatutzat jotzen du, bestelako izapiderik egin gabe, xedea gerora galdu delako: kontsultak ezin du berezko xe-dea bete.	61/2023 E
62/2023	25/2018, 28/2018 eta 34/2019	Zergapekoaren 2013-17ko BEZa eta Sozietateen gaineko Zerga or-dainarazteko eskumena zehaztea. EIABk adierazi du ez dela egokia zergapekoak garaiz kanpoko auto-likidazioetan egotzitako zenbatekoak bidaltzea; hala, GFak zerga-pekoaren eragiketa-bolumenaren proportzioa egiaztatu beharko du, ikuskapen-prozedura erabilia, 2013-2017 aldiko BEZari eta Sozietateen gaineko Zergari dagokienez.	62/2023 E
63/2023	92/2021	Zergapekoak 2019an eta 2020an ordaindu zituen dibidenduen gainean egindako EEEZren konturako atxikipenen soberakinak itzultzeko eskumena zehaztea, baloreen gordailuzainak establezi-mendu iraunkorrik ez duten zergadun ez-egoiliar jakin batzuen or-dezkari gisa eskatuta. EIABk gatazkak artxibatzea erabaki du, ZAEAk amore eman izanak prozeduraren xedea gerora desagertzea ekarri duelako, eta onar-tzea eskatutako itzulketak egiteko gaitasuna.	63/2023 E

Ebazpen zk.	Esp. zk.	Gatazkaren oinarria eta EIABen ebazpenaren azalpena	Ebazpen-testurako sarbidea
64/2023	03/2020	Zergapekoaren ikuskapen-eskumena zehaztea eta ZAEAk alde bakarretik baliatzea, BFari prozeduran parte-hartzerik eman gabe, 2007ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari dagokionez. EIABk adierazten du ZAEaren ikuskapen-prozeduraren hasieraren jakinarazpena baliogabea dela, ez zeukalako eskumen materialik (BFaren eskumenak inbaditu zituen) eta ezarritako prozeduraren arauak nabarmen urratu zituelako. Halaber, EIABk adierazten du ZAEAk ikuskapen-prozeduraren hasieraren jakinarazpena baliogabea dela, ez zelako BFarekin lankidetzan aritu, fede onez saiatzeko eragiketa lotuak erregularizatzeko erabaki bat hartzen, lotura-perimetroaren barruko entitateen multzoan gainezarpina sortzea saiheste aldera.	64/2023 E
65/2023	17/2023	Pertsona fisiko baten oinordekoek jarritako betearazpen-intzidentea, Asturiasko Printzerriak 73/2021 gatazkan emandako 36/2022 Ebazpenaren betearazpenaren aurka. EIABk adierazten du 36/2022 Ebazpena bera bakarrik agortzen dela, 73/2021 gatazka artxibatzea erabakitzen duelako; hortaz, ezin da inolako erabakirik hartu ebazpena betetzeari dagokionez.	65/2023 E
66/2023	23/2018	Lurralde erkidean edo atzerrian lan egin zuten langile jakin batzuei ordaindutako lan-etekinen gainean egindako PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea. EIABk gatazkak artxibatzea erabaki du, ZAEAk amore eman izanak prozeduraren xedea gerora desagertzea ekarri duelako, eta onartzea BFAk eskumena duela SSAk 2013ko maiatzetik urtarrilera bitartean egindako atxikipen guztiak ordainarazteko. ZAEAk amore ematea justifikatzeko EIABren 6/2018, 21/2022 eta 24/2022 Ebazpenak aipatzen ditu.	66/2023 E

Foru Aldundien diru-bilketa



EAE-ko tributu itunduen bidezko 2022ko diru-bilketa

I. 2022ko diru-bilketaren datu orokorrak

2022ko ekitaldia ixtean, foru-aldundien tributu itunduen bidezko diru-bilketa kontsolidatua 17.130,7 milioi eurokoa izan da; hau da, urtetik urterako % 7,3ko igoera egon da, eta % 100,1eko gauzatze-maila Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak (HDEK) urrian egindako azken aurreikuspenaren gainean (aurrekontuaren gaineko % 105,2).

2022ko urtea (milaka euro)

	Aurrekontua	Itxierako aurre-ikuspena	Diru-bilketa	Aurre-kontuaren gauzatzea	Urriko aurre-kontuaren gauzatzea
Itundutako zergengatikoko diru-bilketa	16.290.440	17.109.283	17.130.717	105,2	100,1

Gainera, diru-bilketaren hazkundera are handiagoa litzateke (% 11,4) –eta EAEko ekonomiaren bilakaerarekin lerrokatuagoa– aparteko diru-sarrera/itzulketa batzuen bilketaren eragina urtetik urterako konparazio-tik kanpo utzita: 2021ean (AU-19 eta MOSS/OSS BEZaren aurreko urteetako erregularizazioak) eta 2022an (zerga itundu berrien diru-bilketa: finantza-transakzioen gaineko zerga eta zerbitzu digital jakin batzuen gaineko zerga, batez ere, eta BEZaren itzulketa atipiko batzuk).

2022/2021 diru-bilketaren konparaketa (milaka euro)

	2022ko diru-bilketa	2021eko diru-bilketa	22/21 Diferentzia	22/21 Aldakuntza %
PFEZ	6.497.698	6.114.393	383.304	6,3
Sozietateen gaineko zerga	1.351.267	1.155.151	196.115	17,0
BEZ	6.921.389	6.256.924	664.466	10,6
Fabrik. ZZ.BB. Eta Elektriz. Zerga	1.367.123	1.521.390	(154.267)	(10,1)
Gainerako zergak	993.240	915.351	77.889	8,5
Zerga-bilketa guztira	17.130.717	15.963.209	1.167.507	7,3
Zuzeneko zergak	8.309.391	7.735.340	574.051	7,4
Zeharkako zergak	8.785.378	8.136.336	649.042	8,0
Tasak eta bestelako sarrerak	35.948	91.533	(55.586)	(60,7)

Azterketa xeheagoa eginez gero, ekitaldiaren amaieran antzeko bilakaera ikusten da zuzeneko zergapetzean (+% 7,4) eta zeharkako zergapetzean (+% 8,0). Tasen eta beste diru-sarrera batzuen bilketaren agregatuak, berriz, jaitsiera nabarmena izan du (% 60,7); Bizkaian erregistratutako berandutze-interesen bilakaera negatiboaren ondorioz, neurri handi batean.

Zuzeneko zergapetzearen barruan, bi zerga nagusiek lagundu dute bilketak gora egin dezan: PFEZak (% 6,3) eta, bereziki, sozietateen gaineko zergak (% 17,0). Lehenengo kasuan, lan-etekinen atxikipenen bidezko diru-sarreraren hazkundeak bultzatu du diru-bilketa (% 6,3), eta bigarrenean, berriz, 2021 aldiko sozietateen kanpainaren emaitza positiboak.

Zeharkako zergapetzearen atalean, BEZaren guztizko bilketak % 10,6 egin du gora 2021. urtekoarekin alderatuta. Hazkunde hori, funtsean, Estatuarekiko egokitzapenen hazkundera oinarritzen da (% 28,8), kudeaketa propioaren bidezko diru-bilketa % 1,4 baino ez baita hazi. Bi osagai horiek EAEko 2022ko dinamika ekonomikoarekin zerikusirik ez duten kausen eraginpean daude —kudeaketa propioa bereziki— (AU-19, MOSS/OSS BEZaren erregularizazioak eta zergadun bati egindako aparteko itzulketak). Gertakari atipiko horiek konparaziotik kanpo utzi ondoren, diru-bilketaren igoera % 23,1eko tasan da-goela ikusiko dugu.

Kontsumo jakin batzuk kargatzen dituzten zerga bereziei dagokionez, % 1,7 jaitsi da kudeaketa propioaren bidezko diru-bilketa orokorra; alde batetik, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren bidezko diru-bilketak behera egin duelako (% 69,6) —zerga-tasa % 5,1127tik % 0,5era murriztu izanaren ondorioz—, eta, bestetik, hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren bidezko diru-bilketak behera egin duelako (% 3,1). Zerga horren bidezko diru-bilketak maitzean izan zuen igoerarik handiena (% 11,1; 2019an baino % 2,9 gehiago), erregaiei prezioen igoeraren goren aldian, pandemian metatutako errentak eragindakoa ziurrenik. Harrezkero, ondoz ondoko hazkunde-tasak modu neurritsuan murrizten joan ziren azarora¹ arte; azaroan, izan ere, prezioen distentsio betean, zergen bidezko diru-bilketak tasa negatiboak izaten hasi zen.

Lurralde historikoen arabera konparazioari dagokionez, kudeaketa propioaren bidezko diru-bilketaren hazkunde-tasak (barne-doikuntzen aurretik) positiboak izan badira ere, lurralde bakoitzeko zerga nagusien bilakaeran portaera desberdina ikusten da. Alde batetik, Arabak % 9,7ko hazkunde-tasa du, zuzeneko zergapetzearen eta, bereziki, sozietateen gaineko zergaren portaera onak bultzatuta. Bizkaia, % 4,8ko hazkundearekin, bilakaera positiboa eta nahiko orekatua izan du hiru zerga nagusietan. Bestalde, Gipuzkoak hazkunde-tasa apalagoa lortu du, % 2,7koa. Beste bi lurraldeekin alderatuta zuzeneko zergapetzean bilakaera txarragoa izateak oztopatu du hazkundera.

Itundutako zergengatikoko diru-bilketa Lurralde Historikokoa (2022)

Lurralde-banaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Partzipazio erlatiboa	% 15,9	% 51,4	% 32,7
Urte arteko aldaketa	% 9,7	% 8,2	% 4,8
Aurrekontuaren gauzatzea %	% 107,1	% 105,0	% 104,5
Urriko HDEK-eren aurreikuspenaren gauzatzea %	% 100,9	% 100,4	% 99,3

¹ Urria izan ezik, urte horretako tasa ez baitzen homogenea aurreko urtearekin alderatuta.

II. PFEZa

PFEZaren bidez, 2021ean baino % 6,3 gehiago bildu da, eta, gainera, zergaren zerga-kontzeptu gehienek ekarpen positiboa egin diote PFEZaren diru-bilketa osoaren aurrerapenari.

**EAEko PFEZrengatiko diru-bilketa
(2010 - 2022 aldia)**

Urtea	Diru-bilketa (milaka euro)	Urte arteko aldakuntza
2010	4.065.868	% 3,8
2011	4.321.226	% 6,3
2012	4.329.195	% 0,2
2013	4.264.991	(% 1,5)
2014	4.390.205	% 2,9
2015	4.647.680	% 5,9
2016	4.839.847	% 4,1
2017	5.132.194	% 6,0
2018	5.407.614	% 5,4
2019	5.713.671	% 5,7
2020	5.650.225	(% 1,1)
2021	6.114.393	% 8,2
2022	6.497.698	% 6,3


PFEZaren bidezko diru-bilketa zuzeneko zergen bidezko bilketaren hiru laurden baino gehiago izan da (% 78,2), eta 2022ko diru-bilketa osoaren herena baino gehiago (% 37,9).

Zergaren osagai garrantzitsuenari dagokionez, hau da, lan-etekinen atxikipenei dagokienez, urtea % 6,3ko hazkundearekin amaitu da, batez ere lan-merkatuaren bilakaera positiboari esker. Izan ere, EUS-TATen hiruhileko kontuen arabera, enplegua –lanaldi osoaren baliokideak diren lanpostuen arabera neurtuta– % 3,1 igo da 2022an aurreko urtearekin alderatuta, eta, aldi berean, % 4,1 inguru igo dira ordainsariak. Diru-bilketaren hazkundeari lagundu dio, halaber, ABEEan zeuden soldatapekoen pixkanakako erregularizazioak, horien errentek atxikipen-tasa oso urriak baitzituzten, edo halakorik ere ez baitzuten.

Kapital higigarriaren etekinen atxikipenaren bidezko diru-bilketaren bilakaera oso positiboa izan da 2022an (% 9,2), sozietate askotan aurten dibidenduen banaketa berreskuratu delako.

Alderdi negatiboan, ondare-irabazien gaineko atxikipenen bidezko diru-sarrerak nabarmen murriztu dira (% 17,6) inbertsio-funtsen errentagarritasunak urtean zehar izandako portaera txarraren ondorioz.

EAE. PFEZrengatiko diru-bilketaren bilakaera (2010 - 2022 aldia)



Azkenik, kuota diferentzial garbiaren saldoa positiboa izan da (17,0 milioi euro), diru-sarreraren zenbatekoa % 9,2 igo baita. Itzulketen bolumenak ere izan du urtetik urterako igoera nabarmena (% 7,0).

Kuota diferentzial garbiaren bilakaera (PFEZ) (milaka euro)

	2021	2022	(Urte arteko aldakuntza-tasak) Δ22/21%
Diru-bilketa likidoa	(12.379)	4.602	—
Diru-bilketa osoa	811.297	886.169	% 9,2
Itzulketak	(823.676)	(881.567)	(% 7,0)


III. Sozietateen Gaineko Zerga

Foru-aldundiek 1.351.267 mila euro bildu dituzte guztira sozietateen gaineko zergaren bidez 2022ko abenduaren 31n, hau da, aurreko urtean baino 196.116 mila euro gehiago, alegia, urtetik urterako % 17,0ko tasa.

EAEko Sozietateen g. zergarengatiko diru-bilketa (2010 - 2022ko aldia)

Urtea	Diru-bilketa (milaka euro)	Urte arteko aldakuntza
2010	987.056	(% 19,9)
2011	1.160.259	% 17,5
2012	1.131.784	(% 2,5)
2013	1.216.937	% 7,5
2014	1.159.223	(% 4,7)
2015	1.039.051	(% 10,4)
2016	1.002.703	(% 3,5)
2017	1.111.661	% 10,9
2018	1.476.010	% 32,8
2019	1.303.792	(% 11,7)
2020	1.042.548	(% 20,0)
2021	1.155.151	% 10,8
2022	1.351.267	% 17,0

EAE. SZengatiko diru-bilketaren bilakaera (2010 - 2022 aldia)



Kapital higigarriaren etekinen atxikipenen (% 9,2) eta kapital higiezinaren etekinen atxikipenen² (% 4,6) bilakaera positiboak konpentsatu egin du ondare-irabaziengatiko atxikipenen atzerakada (% 17,6). Hala

² Erdi bana banatzen dira PFEZaren eta SZaren artean, ondare-irabaziengatiko atxikipenekin batera.

eta guztiz ere, diru-bilketa orokorraren igoera zergaren kuota diferentzial garbiaren igoera handian oinarritu da; izan ere, horrek agerian uzten du enpresen mozkinak gora egin dutela 2021ean, COVID-19aren pandemiak eragindako inpaktu ekonomikoaren ondoren. Hala, uztailean eta abuztuan erregistratutako diru-sarrerak, kanpainako diru-bilketaren (eta zerga osoaren) zatirik handiena biltzen dutenak, % 43,9 igo ziren (+224,1 milioi euro). Urtearen azken zatian, igoera horrek zergaren diru-bilketa orokorrean izan duen eragina partzialki neutralizatu da, 2021ekoak baino zenbateko handiagoko itzulketen ondorioz (+140,5 milioi euro).

Urteko guztizkoan, kuota diferentzial garbiaren diru-sarrera gordinak % 33,2 hazi dira. Egindako itzulketek ere gora egin dute; kasu honetan, erritmo biziagoan oraingoan (% 75,2).

**Kuota diferentzial garbiaren bilakaera (Sozietateen gaineko zerga)
(milaka euro)**

	2021	2022	(Urte arteko aldakuntza- tasak) Δ%
Diru-bilketa likidoa	838.808	1.030.489	% 22,9
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Itzulketak	1.046.451 (207.643)	1.394.302 (363.813)	% 33,2 % (75,2)

IV. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga

Kudeaketa propioko BEZaren diru-bilketa metatuak % 1,4ko igoerarekin (58,6 milioi euro) itxi du urtea, aurreko urtearen aldean. Hazkunde txiki hori 2022ko testuinguru makroekonomikoarekin zerikusirik ez duten bi faktorek eragin dute. Alde batetik, 2019ko Agiri Bakunetatik datozen diru-sarrera gehigarriak egondako urte batekin egiten da alderaketa (400 milioi euro inguru). Bestetik, aurtan, 195 milioi euroko aparteko itzulketa batzuk egin dira. Zenbateko atipiko horien eragina garbitu ondoren, % 17,4koa izan da igoera.

**EAEko (kudeaketa propio) BEZarengatiko diru-bilketa
(2010 - 2022 aldia)**

Urtea	Diru-bilketa (milaka euro)	Urte arteko aldakuntza
2010	3.478.206	% 26,1
2011	3.099.727	(% 10,9)
2012	2.962.490	(% 4,4)
2013	3.139.434	% 6,0
2014	3.555.395	% 13,2
2015	3.645.246	% 2,5
2016	3.676.456	% 0,9
2017	3.762.184	% 2,3
2018	4.059.967	% 7,9
2019	4.129.679	% 1,7
2020	3.534.767	(% 14,4)
2021	4.152.038	% 17,5
2022	4.210.645	% 1,4


Osagaien arabera, diru-bilketa gordina % 16,7 hazi da. 2019ko Agiri Bakunetatik datozen diru-sarrerak ez baditugu 2021ean kontuan hartzen, diru-sarreraren hazkunde-tasak nabarmen egin du gora (% 24,7), eta hori neurri handiagoan dator bat 2022ko EAEko ekonomiako prezioen igoerarekin eta azken kontsumoaren hazkundearekin.

**Berezko kudeaketa diru-bilketaren bilakaera (BEZ)
(milaka euro)**

	2021	2022	(Urte arteko aldakuntza-tasak) Δ%
Diru-bilketa likidoa	4.152.038	4.210.645	% 1,4
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Itzulketak	6.202.077 (2.050.039)	7.235.471 (3.024.826)	% 16,7 (% 47,5)

Itzulketei dagokienez, horien bolumena % 47,5 handitu da erkidegoan (% 38,0, Bizkaiko Lurralde Historikoan zergadun bakar bati egindako ezohiko itzulketak kenduz gero).

**EAE. BEZarengatiko diru-bilketaren bilakaera
(2010 - 2022 aldia)**



* 2011-2017 aldirako, Itunaren metodologiaren arabera kalkulaturako BEZaren doikuntzaren zenbateko osoak kontabilizatu dira; izan ere, administrazioen arteko atxikipenek/konpentsazioek (2011-2016) eta 2017ko erregularizazioak urte bakoitzeko doikuntzaren benetako bilketari eragiten diote, 2011-2016 aldiari dagozkion kupoak zehazteko orduan egondako desadostasunen testuinguruan. EIBMaren maiatzaren 17ko akordioak direla eta, desadostasun horiek 2017an konpondu ziren.

Estatuarekin egindako BEZaren doikuntzari dagokionez, foru-aldundiek jasotako zenbatekoa % 28,8 igo da 2021arekin alderatuta, eta nabarmen igo da inportazioen BEZa (% 41,3); barne-eragiketetan, berriz, igoera % 6,7koa izan da.

Azkenik, BEZaren diru-bilketa osoak (kudeaketa propioa gehi doikuntzak) % 10,6ko hazkunde-tasa izan du 2021. urtearekin alderatuta. Ondorengo grafikoan ikusten da 2010-2022 aldian izandako bilakaera.

V. Fabrikazioaren Zerga Bereziak eta Elektrizitatearen Zerga Berezia

Fabrikazioaren eta elektrizitatearen zerga berezien bidez kudeaketa propioan bildutako diruaren zenbatekoa % 1,7 jaitsi da 2022an (32,0 milioi euro), aurreko urtearekin alderatuta.

Urte arteko aldakuntza-tasak (%)
(2015 - 2022 aldia)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Alkohola	(4,7)	(9,4)	(25,4)	(33,2)	23,4	(42,8)	35,0	(17,8)
Hidrokarburoak	3,5	4,9	5,4	1,6	13,9	(12,6)	18,6	(3,1)
Tabakoa	(3,9)	4,2	(4,4)	3,8	1,4	(6,0)	(9,8)	16,7
Garagardoa	(16,5)	3,6	(7,7)	21,1	(37,2)	(22,9)	24,9	36,0
Elektrizitatea	(12,9)	4,8	(2,7)	4,7	(5,5)	(12,2)	(9,1)	(69,6)
Bataz besteko haztatua	0,9	4,6	2,8	2,0	10,5	(11,5)	12,0	(1,7)

Zerga nagusiari dagokionez, kudeaketa propioko hidrokarburoen zerga bereziaren diru-bilketak urtetik urterako % 3,1eko beherakadarekin itxi du urtea (bilketa 1.480,8 milioi eurokoa izan da guztira). Zerga horrek portaera positiboa izan du 2022ko lehen sei hilabeteetan, baina urteko bigarren erditik aurrera aldatu egin da hidrokarburoen kontsumo-eredua, eta dezelerazio nabarmena ikusi da hirugarren hiru hilabeteetako datu metatuetan, eta atzerakada, 2022ko azken hilabeteetan. Bilakaera negatibo horrek islatzen du prezio altuek 2022ko eskarian izandako eragina, baita administrazio publikoek urteko hirugarren hiru hilabeteetako garraio publikoa sustatzeko abian jarritako neurrien eragina ere³.

Urtearen hasieratik, tabako-laboreen gaineko zergaren diru-bilketak digitu bikoitzeko urtetik urterako tasa positiboak izan ditu, prezioen igoerari eta, bereziki, kontsumoaren hedapenari esker. Azkenik, zerga horren bidezko diru-bilketaren hazkundea % 16,7koa izan da.

Alkoholaren kontsumoa kargatzen duen zergaren diru-bilketari dagokionez –bilketan pisu txikia du–, urtetik urterako aldakuntza negatiboa izan da (% 17,8). Garagardoaren kontsumoa kargatzen duen zergaren diru-bilketak, ordea, % 36,0ko igoera izan du.


Elektrizitatearen gaineko zerga bereziak, berriz, % 69,6ko murrizketa izan du 2022an, zerga-tasa % 0,5ean mantendu delako⁴.

³ Izan ere, EAEn, 2022ko azarora arteko erregaien kontsumo metatua pandemiaren aurreko mailen azpitik dago, eta, 2019ko lehen 11 hilabeteekin alderatuta, % 8ko jaitsiera izan da gasolinetan, eta % 11koa gasolioetan.

⁴ Estatuak zerga-tasa % 5,1127tik % 0,5era jaitea onartu zuen 2021eko irailetik aurrera. Neurri hori luzatu egin dute 2022an, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du azkenean.

Fabrikazioaren gaineko zerga bereziengatik eta elektrizitatearen gaineko zerga bereziengatik azken urteetan bildutako diruaren zenbateko osoaren bilakaera honako grafiko honetan ikus daiteke:

EAE. Zerga Berezi eta Elektrizitatearengatiko diru-bilketaren bilakaera (2010 - 2022 aldia)



VI. Bestelako tributuak eta zerga-sarrerak

Gainerako zergei dagokienez (tributu itunduen ondoriozko diru-bilketa osoaren % 5 hartzen dute oro har), honako bilakaera hau egon da:

Bestelako zergak (2010 - 2022 aldia)		
Urtea	Diru-bilketa (milaka euro)	Urte arteko aldakuntza
2010	750.955	% 6,2
2011	580.349	(% 22,7)
2012	608.458	% 4,8
2013	619.758	% 1,9
2014	639.446	% 3,2
2015	617.298	(% 3,5)
2016	697.622	% 13,0
2017	762.046	% 9,2
2018	840.611	% 10,3
2019	823.144	(% 2,1)
2020	765.698	(% 7,0)
2021	915.351	% 19,5
2022	993.240	% 8,5

Itundutako tributuengatik Foru Aldundien diru-bilketa

Ekonomia Itunaren araubidea dela eta, lurralde historikoetako zerga-sistema osatzen duten zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru-aldundiei dagokie, bakoitzari bereak. Esteka honetan eguneratutako informazioa kontsulta daiteke foru aldundiek zerga itunduengatik bildutakoa..

<https://www.euskadi.eus/zerga-diru-bilketa/web01-a2ogazer/eu/>

Dokumentu interesgarriak



Dokumentu interesgarriak

Informazio guztia honako esteka hauetan eskuragarri dago.

Zergak gaur egun

Zerga-arauak gaur egun

Aldizkari ofizialetan argitaratutako zerga-araudia biltzea.

Zerga-arauei buruzko aldizkaria da, hilean behin dagokion hilean argitaratu diren zerga-arauen berri ematen duena. Bost ataletan egituraturik dago eta horietako bakoitza dagokio jarraian aipaturiko aldizkari ofizialetan argitaratu den araudiari. Hauek dira aldizkari ofizialak: Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala (BOTH), Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala (BOB), Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (BOG), Nafarroako Aldizkari Ofiziala (BON) eta Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE).

Zergei buruzko zenbait argitalpenetatik ateratako iritzi-artikuluak eta administrazio-doktrina

Hilean behin argitaratzen da. Alde batetik, zerga arloko hainbat argitalpenetan jasotako iritzi-artikuluak biltzen dituena; bestetik biltzen ditu Estatuko arau-proiektuei buruzko aipamen batzuk betiere proiektu horiek zerga gaitan eragina badute; eta azkenik zerga albiste garrantzitsu batzuk, eratorri diren iturriaren aipamena egiten delarik.

Iruzur Fiskalaren kontrako borrokarako batzordea

Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordea Euskadiko Zerga Koordinatzaile Organoak —Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien ordezkaritza baitu— sortu zuen, 2013ko urriaren 14ko erabakiz, urte horretako irailaren 26an Eusko Legebiltzarrak emandako Ebazpen bati erantzuteko; ebazpen horrek iruzur fiskalaren aurkako lankidetz-estrategia bat normalizatzeko eskatzen zuen.

Foru-aldundi bakoitzeko ordezkari batek eta Eusko Jaurlaritzako beste batek osatzen dute eta honako eginkizun hauek ditu: i) Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako plan bateratua egitea urtero, eta, horretan, irizpide orokorrak eta egin beharreko jarduketak koordinatuak zehaztea, eta ii) urteko txosten integratua igortzea Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) iruzur fiskalari buruz, eta, horretan, aipaturiko urteroko plan bateratuetako jarduketaren emaitza eta efikazia ebaluatzea, eta gauzatze-maila zehaztea.

2023. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren Kontrako Borrokarako Plan Bateratua

Alde batera utzirik Foru Aldundi bakoitzak bere banakako planak egin ditzakeela iruzurraren aurka borrokatzeko eta tributuak egiaztatzeko eta autonomia duela arlo horretan esleitua duen eskumena gauzatzeko, oro har, bat datoz egokia dela baterako politikak eta estrategiak garatzea iruzur fiskalari aurre egiteko, eta, haien aburuz, eraginkortasuna indartuko da zergaadministrazioaren arloan eskumena duten erakundeen artean aliantzak eratuz eta lankidetz- harremanak estutuz gero.

Euskal Autonomia Erkidegoko Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuak testuinguru jakin batean sortu dira; sinergiak sustatu nahi dira, eta efikazia handitu, hiru foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren bidez.

Urtero egiten den Plan Bateratuak irizpide orokorrak zehazteaz gainera, Foru Aldundiek gauzatu beharreko jarduketak koordinatuak hartu behar ditu kontuan, eta jarduketak horien artean egongo dire informazioa lortzeko ekintzak, prebentzioaren ingurukoak eta erregularizatzeko eta kobranta-ekintzak.

2022. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) iruzur fiskalari buruzko urteko txosten integratua

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) iruzur fiskalari buruzko urteko txosten integratuaren bidez, aipatutako urteroko plan bateratueta jarduketan emaitza eta efikazia ebaluatzen da, eta gauzatze-maila zehazten da.

Zerga-hezkuntza programa

Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuaren barruan, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak prebentzio-neurriak indartzearen aldeko apustua egiten dugu, baita zerbitzu publikoei eusteko lagundu behar delako balio sozialaz kontzientziatzearen aldekoa ere. Horri lotuta, eta erakunde arteko lankidetzaren bitartez, gizalegezko eta zergei lotutako hezkuntza-programa bateratu bat sustatu da; programa horrek unitate didaktiko bakarra du ekonomiari eta fiskalitateari buruz, programan parte hartu nahi duten Euskadiko ikastextuetan eman beharrekoa.

Foru-aldundiek garatu dituzten unitate didaktikoak irakatsi nahi dira herritarren zerga-kontzientzia gaztetatik indartzeko. Alde batetik, ikasleek erakundearen egituraren eta funtzionamenduaren gainean ezagutza erraza baina didaktikoa eta zorrotza jaso dezaten lortu nahi da, baita erakundearen antolaketaren, administrazioen arteko eskumen-banaketa eta horiek finantzatzeko moduen gainean ere. Beste alde batetik, ikasleak zerga-iruzurrak eragiten dituen bidegabekeriaren eta ondorio kaltegarrien gainean kontzientziatu nahi dira, funts publikoen erabilerari buruzko ezagutza sustatu ahala. Hau da, berariaz azalduko zaie zein zerbitzu ematen diren herritarren ekarpenekin eta nola laguntzen duten inguru solidarioago eta orekatuagoa lortzen.

2022-2023 ikasturtea. Zerga Hezkuntzako Programaren emaitzen Txostena

TicketBAI

TicketBAI (aurrerantzean, TBAI) hiru foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean partekatutako proiektua da, eta zenbait betebeharrak legal eta tekniko ezartzea du helburu; hala, TBAI indarrean sartzen denetik aurrera, jardura ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek fakturazio-software bat erabili beharko dute, argitaratzen diren baldintza teknikoak betetzen dituen. Sistema berriari esker, foru-ogasunek zergadunen jardura ekonomikoaren diru-sarrerak kontrolatu ahal izango dituzte, eta, bereziki, azken kontsumitzaileei ondasunak edo zerbitzuak ematen dizkieten sektoreetako jarduerenak, neurri handi batean eskudirutan kobratuta. Era berean, informazio hori erabiliko da zergadunei zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko.

Ekonomia Itunaren Zabalkundea

Ekonomia Ituna Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren web orrialdean

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak tarte zabala eskaintzen dio bere web orrialdean Ekonomia Itunaren zabalkundeari: i) zer den, ii) araudi erregulatzailea, testuen konparazioak eta hainbat hizkuntzako bertsio kontsolidatua (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) barne hartzen dituen, Itunari buruzko terminoen glosario batekin osatuta, ingelesezko azalpen didaktikoa eta euskarazko eta gaztelaniazko baliokidetasun terminologikoak erantsita, iii) Ekonomia Itunaren III. kapituluaren araututako organoei buruzko informazioa (Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa, Ekonomia Itunaren Koordinazio eta Ebaluazio Arauemailearen Batzordea eta Arbitraje Batzordea) eta iv) euskarazko Itunaren terminologiari buruzko atal bat, Eusko Jaurlaritzaren Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren (IZO) gomendioak jasotzen dituen eta 700 termino baino gehiagotara iristeko tresna dinamiko bat bideratzen duena.

Ad Concordiam

Ad Concordiam Ekonomia Ituna Sustatzeko eta Zabaltzeko Elkartea irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta bere bazkide sustatzaileak Bizkaiko Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea dira. Elkartearen helburua fiskalitatearekin eta ogasun publikoarekin lotutako gaiak zabaltzea eta aztertzea da, bereziki Ekonomia Itunarekin lotutakoak.

Itun Ekonomikoaren eta Foru Organuen Ikerketarako Agiritegia (ITUNA)

Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegian EHUKo Historia Garaikidea (Leioa), zuzenbide Publikoa (Leioa eta Donostia) eta Gizarte Zientzien Didaktika (Vitoria-Gasteiz) sailek hartzen dute parte. Zentroak Dokumentazio zerbitzua du, Ekonomia Ituna eta Hitzarmena, Foru Ogasun, euskal zerga sistema eta, oro har, federalismo fiskala edo deszentralizazio fiskala eta finantzarioari buruzko informazioa bildu, arrazionalizatu, aztertu eta zabaltzeko.

Azkenik, Agiritegiak Ekonomia Ituna eta Hitzarmena eta euskal zerga sistemaren ezagutza bultzatu, hedatu eta sustatzen du, batez ere euskal, espainiar eta europar iritzi publikoan, zein nazioarteko beste esparru batzuetan, euskal kasua federalismo fiskalari buruzko nazioarteko ikerketa korrontetean kokatuz.

El Concierto Económico Vasco: una visión personal.
Pedro Luis Uriarte

Ekonomia Ituna buruzko dibulgazio-lana, hainbat ikuspegitatik ikusita. Bertan, bere 11 liburuetan zehar, egileak Ekonomia Itunaren oinarriak, ezaugarriak, funtzionamendua, bilakaera, arrakastak eta porrotak, erasoak eta defentsa, eta haren iragana, oraina eta etorkizuna azaltzen ditu.

Obra hau bereziki gomendagarria da Ekonomia Itunaren ezagutza sartu nahi dutenentzat, baina dagoeneko ezagutzen dutenentzat eta horren alderdi zehatzetan sakondu nahi dutenentzat ere baliagarria izango da. Bere ikuspegi didaktikoa eta lehen aldiz Ekonomia Ituna deskubritzen dutenek erraz eskuratzeko modukoa izateaz gain, erakunde honekiko interesa dutenek edozein kezka ase ahal izango duten material zabala eta osoa du ezaugarri.

Ekonomia Itunaren bilakaera bere lege-testuen bidez.
Javier Armentia

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak argitaratutako liburua, Ekonomia Itunaren historia ezagutzeko, une historiko bakoitzean haren edukia jasotzen duten lege-testuen bitartez. Egilea, Javier Armentia Basterra, urte askoan Arabako Foru Ogasuneko Zerga Araudiko Zerbitzuaren arduraduna eta Kontzertu Ekonomikoaren ezagutzaile handia, lege-teknizismoetatik ihes egiten saiatzen da, eta termino eta azalpen ohikoagoak erabiltzea aukeratzen du, horiek ulertzen laguntzeko, laburpen-koadro askoren laguntzarekin. Estekaren bidez, liburuaren laburpena sartzen da, egilearen sarrera-oharrarekin eta hura errazago aurkitzeko beharrezkoak diren identifikazio-datuekin batera.

Reglamentación y tutela financiera de las haciendas locales vascas: entre la Constitución foral y el Concierto Económico (1853-1937).

Mikel Erkoreka

Bizkaiko Foru Aldundiak, Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin (UPV/EHU) lankidetzan, Mikel Erkorekaren *Reglamento y tutela financiera de las haciendas locales vascas: entre la Constitución foral y el Concierto Económico (1853-1937)* lana argitaratu du Foru Ogasunaren «Klasikoen» Bilduman. Obrak dokumentuak eta funtsezko araudia biltzen eta kritikoki aztertzen ditu, euskal toki-ogasunek foru-aldiaren eta Ekonomia Itunaren lehen etaparen (1853-1937) artean izan zuten trantsizioa aztertzeko. Obrak 1910eko hamarkadan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek tokiko finantzaketarako garatu zituzten erregimenak arautzeko eta berrikusteko prozesuan jartzen du arreta.

Laburpena

Gaur egun, toki-administrazioek, nagusiki, izaera administratiboa dute. Funtsean, kudeaketari lotuta daude, eta herritarrentzako eguneroko erabilerarako eta oinarritzko zerbitzuak eta ondasunak hornitzeaz arduratzen dira. Hala ere, iragan hurbilean, rol administratiboaz gain, udalerriak botere politiko, instituzional eta tributario garrantzitsua izan du gure herrialdean. Antzinako Erregimenean, Iraultza Liberalaren eta industrializazioaren garapenaren aurretik, udalerriak funtsezko zeregina zuen foru-arkitektura politiko eta instituzionalean, bai eta zerga-kudeaketan ere.

Antzinako Erregimenaren amaierako krisiaren eta erregimen liberal berriaren pixkanakako ezarpenaren testuinguruan —xviii. mendearen amaieraren eta xix. mendearen lehen erdiaren artean—, foru-aldundiek boterea probintzia-mailan zentralizatzeko prozesu bat garatu zuten, eta tokiko ogasunen finantza-kontrol eta -tutoretzako ahalmenak xurgatu zituzten. Foruen abolizioaren ondoren, 1878an hasitako Ekonomia Itunaren erregimenaren pean, euskal probintzia-aldundi «berriek» udal-ogasunen gaineko finantza-tutoretza egiten jarraitu zuten, eta tokiko finantzaketa-erregimenen erregulazioak izaera federaleko eredu bati lotuta jarraitu zuen Euskadin. Berrogei urte geroago, 1918an, Gipuzkoako Aldundiak «Udal tributazioei buruzko ordenantza» onartu zuen. Udal-tributazioari buruz xx. mendean onartutako lehen erregelamendu modernoak izan zen, bai Euskadin, bai Espainiako ogasun konposatuaren esparruan. Ondoren, Bizkaiko Aldundiak 1919an berretsitako «Udal diru-sarreraren eta ordainarazpenen erregelamendua» etorri zen. Arabak, bestalde, bere bideari jarraitu zion, eta eredu berezia eta bereizgarria eratu zuen. Bost urte geroago, Estatuak 1924ko udal-estatutua onartu zuen, eta haren bigarren liburuak araubide erkideko toki-ogasunen finantzaketa-erregimena arautu eta eguneratu zuen. 1924ko udal-estatutuak Bizkaiko eta Gipuzkoako erregelamenduak errespetatu zituen, eta inplizituki aitortu zuen euskal aldundiek udal-finantzaketaren arloan zuten agintea eta ahalmena.

Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek 1910eko hamarkadaren bigarren erdian bide arautzailearen alde egin zuten apustu pragmatikoa une garrantzitsua izan zen Ekonomia Itunaren araubidea finkatzeko prozesuan, eta euskal aldundien boterea eta agintea sendotzen lagundu zuen toki-ogasunen esparruan, zeina gai delikatu eta garrantzi fiskal handikoa baitzen. Horrela, euskal aldundiek «Estatu gisa jarduten» jarraitu zuten beren toki-ogasunen gainean, 1937ko ekainaren 23ra arte. Izan ere, egun horretan, Gobernu frankistak Ekonomia Ituna indargabetu zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. Aitzitik, Arabako Ekonomia Itunaren eta Nafarroako Ekonomia Hitzarmenaren araubide pribatibok indarrean jarraitu zuten frankismoan.

Lanaren helburua da euskal toki-ogasunen gaia aztertzea, 1877ra arte indarrean egon zen foru-aldiaren eta Ekonomia Itunaren indarraldiaren lehen etaparen (1878-1937) arteko trantsizioaren testuinguruan, arreta jarrita 1910eko hamarkadan Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoak abiarazi zuten toki-ogasunen arautze-prozesuan. Horretarako, funtsezko dokumentu eta arauen hautaketan —eranskin gisa erreproduzitzen dira— oinarritzen da lana, baita gaiari buruzko beste argitalpen eta bigarren mailako iturri garrantzitsu batzuetan ere (garaikideak zein gaur egungoak). Lehen eta bigarren mailako iturri horien erreproduzioak, bilketak eta analisi kritikoak aukera emango digute garai hartan bizi izan zen arautze-prozesu korapilatsuen xehetasunak hobeto ulertzeko. Era berean, lan honen asmoa da etorkizunean euskal toki-ogasunen gaiari buruzko ikerketa-ildo berrien esplorazioa sustatzea.

Beste esteka interesgarri batzuk

Zerga-gaietan eskumena duten Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren web-orrialdetarako sarbideak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

ERREDAKZIO-BATZORDEA/CONSEJO DE REDACCIÓN

Miren Itziar Agirre Berriotxo (Lehendakaria/Presidenta)
Ane Etxenautia Aramburuzabala (Zuzendaria/Directora)
M^a José Perea Urteaga, Gemma Martínez Bárbara, M^a Victoria Zabala Fernández

ERREDAKZIO ORDEZKO BATZORDEA/COMITÉ DELEGADO DE REDACCIÓN

José Ramón Martínez Martínez (Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco), Esther Urruzola
Moreno (Arabako Foru Aldundia/Diputación Foral de Álava), Gorka Pereda
de Lozar (Bizkaiko Foru Aldundia/Diputación Foral de Bizkaia), Iñigo Balerdi Lizarralde (Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación Foral de Gipuzkoa)

ADMINISTRAZIOA ETA ERREDAKZIOA/ADMINISTRACIÓN Y REDACCIÓN

Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa/Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi
Gaztelako Atea/Portal de Castilla, nº 15 – 01007 Vitoria-Gasteiz
Telefona/Teléfono: 945/016770 – zergak@euskadi.eus

ARGITALPENA, MAKETAZIOA ETA MUNTAIA/EDICIÓN, MAQUETACIÓN Y MONTAJE

Antón Monzón Crespo
hac-tributos@euskadi.eus

LEGE-GORDAILUA/DEPÓSITO LEGAL

VI-522/93
ISSN – 2253 - 7805

«ZERGAK» aldizkarian parte hartu nahi dutenek Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organora bidali behar dituzte artikuluak.

- Bina kopia posta elektronikoz bidaliko da, adierazitako helbidera.
- Idazlaren luzapenak ez ditu 20 orrialdeak gaindituko, lerroen artean tarte bikoitza utziz.
- Artikulu bakoitzari ehun baino gehiago edukiko ez duen laburpen bat erantsiko zaio.
- Idazlanean irudirik balego, bera osatzeko erabili diren zenbakizko datuak bidaliko lirateke.
- Artikulugile bakoitzak bere izena, helbide oso, telefona eta NAN zenbakia bidaliko ditu.
- Idazlanak EAEko edozein hizkuntzatan, hots euskaraz zein gaztelaniaz, idatz daitezke.
- Artikuluak hizkuntza inklusiboa erabiliz idatziko dira, irudirik eta genero-estereotiporik gabe.

Erredakzio Kontseilua beretzat gordetzen du jasotako artikuluak argitaratzeko eskubidea, auzo ebaluatzaile anonimo baten edo batzuen iritzia ezagutuko duelarik. Era berean, bereziki gomendatzen eta baloratzen du datuak sexuaren arabera bereiztea, bai eta egindako azterketetan genero-ikuspegia txertatzea ere.

Idazlana argitratzeak ez du, derrigorrez, bertan jakinarazi diren aburuekiko adostasunik adierazi nahi, iritziak egilearen erantzukizunpean gelditzen baitira.

Todas las personas que deseen colaborar en «ZERGAK» deberán enviar sus artículos al Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi.

- Se remitirá una copia del trabajo mediante e-mail a la dirección de correo indicada.
- La extensión del artículo no debe superar las 20 páginas, a doble espacio.
- Los artículos deberán ir acompañados de un resumen, cuya extensión no deberá exceder de 100 palabras.
- Si el artículo contiene representaciones gráficas, se deberán incluir los datos numéricos que sirven de base para su elaboración.
- Se incluirá la autoría con nombre y dirección completos, teléfono y DNI.
- Los trabajos podrán ser redactados en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la C.A.P.V.
- Los artículos se redactarán utilizando un lenguaje inclusivo sin imágenes ni estereotipos de género.

El Consejo de Redacción se reserva el derecho de publicar los artículos que reciba, previo sometimiento a un proceso de evaluación anónima. Asimismo recomienda y valora especialmente la desagregación de datos por sexo así como la incorporación de la perspectiva de género en los análisis efectuados.

Su publicación no significa necesariamente un acuerdo con las opiniones expresadas que serán de la responsabilidad exclusiva de la autora o autor.